

SAMSUNG

SM-G960F
SM-G960F/DS
SM-G965F
SM-G965F/DS

Erabiltzailearen eskuliburua

**Euskaltelek itzulitako eta
ekoiztutako eskuliburua**



Edukia

Oinarrizko kontzeptuak

- 4 Hasi aurretik, irakurri informazio hau
- 6 Gailua gehiegi berotu daitekeen egoerak, eta irtenbideak
- 10 Gailuaren diseinua eta funtzioak
- 16 Bateria
- 21 SIM edo USIM txartela (nanoSIM txartela)
- 27 Memoria-txartela (microSD txartela)
- 31 Gailua piztea eta itzaltzea
- 32 Hasierako konfigurazioa
- 35 Samsung account
- 37 Beste gailu batetik datuak transferitzea
- 39 Pantailari buruzko informazioa
- 52 Jakinarazpen-panela
- 54 Testua idaztea
- 85 Internet
- 87 Posta elektronikoa
- 88 Kamera
- 120 Galeria
- 126 Always On Display
- 128 Edge pantaila
- 135 Multiwindow
- 141 Samsung Pay
- 144 Samsung Gear
- 145 Samsung Members
- 146 Samsung Oharrak
- 147 Egutegia
- 148 Samsung Health
- 155 Ahots-grabagailua
- 157 Nire fitxategiak
- 157 Erlojua
- 159 Kalkulagailua
- 159 Game Launcher
- 162 SmartThings
- 166 Edukiak partekatzea
- 167 Samsung DeX
- 178 Beste pantaila batera konektatzea
- 179 Google apps

Aplikazio eta funtzioak

- 57 Aplikazioak instalatzea edo desinstalatzea
- 59 Bixby
- 73 Telefonoa
- 78 Kontaktuak
- 82 Mezuak

Ezarpenak

- 181 Sarrera
- 181 Konexioak
 - 182 WiFi-a
 - 185 Bluetootha
 - 187 Datuak aurrezte
 - 188 NFC eta ordainketa
 - 190 Konexio partekatua eta Modema
 - 191 SIM txartelen administratzailea (bi SIMeko modeloak)
 - 192 Konexio-doikuntza gehiago
- 195 Soinua eta bibrazioa
 - 196 Dolby Atmos (inguratze-soinu inguratzailea)
- 196 Jakinarazpenak
- 197 Pantaila
 - 198 Argi urdinaren iragazkia
 - 199 Pantaila-modua aldatzea edo bistaratze-kolorea doitzea
 - 200 Pantaila-bereizmena
 - 200 Pantaila-babesa
- 201 Pantaila-atzealdea eta gaiak
- 201 Funtzio aurreratuak
- 203 Mezularitza duala
- 204 Gailuaren mantentze-lanak
- 207 Aplikazioak
- 207 Blokeo- eta segurtasun-pantaila
 - 209 Smart Lock
 - 209 Eskaneatze adimenduna
 - 212 Aurpegia ezagutzea
 - 214 Irisa ezagutzea
 - 219 Hatz-markak ezagutzea
 - 222 Samsung Pass
 - 226 Karpeta segurua

- 230 Hodeia eta kontuak
 - 231 Samsung Cloud
 - 233 Smart Switch
- 236 Google
- 237 Irisgarritasuna
- 237 Kudeaketa orokorra
- 238 Softwarea eguneratzea
- 239 Erabiltzailearen eskuliburua
- 239 Telefonoari buruz

Eranskina

- 240 Irisgarritasuna
- 258 Arazoak konpontzea
- 265 Bateria jartzea/ateratzea

Oinarrizko kontzeptuak

Hasi aurretik, irakurri informazio hau

Gailua erabiltzen hasi aurretik, irakurri eskuliburu hau, erabilera zuzena eta segurua bermatzeko.

- Deskribapenak gailuaren aurrez zehaztutako doikuntzei buruzkoak dira.
- Baliteke eskuliburu honetako eduki batzuk eta gailuarenak guztiz bat ez etortzea, eskualdearen, zerbitzu-hornitzailearen, modeloaren ezaugarrien edo gailuaren softwarearen arabera.
- CPUaren eta RAM memoriaren erabilera handia eskatzen duten edukiek (kalitate handiko edukia) gailuaren errendimendu orokorrari eragiten diote. Baliteke edukiari lotutako aplikazioek behar bezala ez funtzionatzea, eta desberdinak izatea gailuaren zehaztapenen eta erabiltzen den inguruaren arabera.
- Samsungek ez du bere gain hartzen bera ez den hornitzaile baten aplikazioek eragindako errendimendu-arazoen erantzukizunik.
- Samsungek ez du bere gain hartzen erregistro-doikuntzak editatzeagatik edo sistema eragilearen softwarea aldatzeagatik sortzen diren errendimendu-arazoen erantzukizunik. Sistema eragilea pertsonalizatzen saiatuz gero, baliteke gailuak edo aplikazioek ondo ez funtzionatzea.
- Softwareak, soinu-iturriek, pantaila-atzealdeek, irudiek eta gailuarekin batera datozen gainerako multimedia-edukiek erabilera-lizentzia mugatua dute. Material horiek helburu komertzialekin edo beste helburu batzuekin erabiltzea egile-eskubideen legeak urratzea da. Erabiltzaileak guztiz erantzule dira multimedia-edukiak legez kanpo erabiltzen badituzte.
- Zure datu-planaren arabera, gerta liteke gastu gehigarriak izatea datu-zerbitzu hauek erabiltzeagatik, besteak beste: mezuak, kargatzea eta deskargatzea, sinkronizazio automatikoa edo kokapen-zerbitzuak. Datu-kantitate handiak transferitzeko WiFi konexioa erabiltzea gomendatzen da.
- Gailuarekin datozen aplikazio lehenetsiak eguneratu egin litezke, eta baliteke bateragarri izateari uztea, aurrez jakinarazi gabe. Gailuak dakarren aplikazioen batekin zalantzaren bat badaukazu, jarri harremanetan Samsungen Laguntza Teknikoko Zerbitzuarekin. Erabiltzaileak instalatutako aplikazioen kasuan, berriz, jarri harremanetan zerbitzu-hornitzailearekin.

Oinarrizko kontzeptuak

- Gailuaren sistema eragilea aldatzen baduzu edo iturri ez-ofizialetako softwarea instalatzen baduzu, baliteke gailuak ondo ez funtzionatzea eta datuak hondatzea edo galtzea. Hori eginez gero, Samsungekiko lizentzia-hitzarmena urratzen da, eta bermea ezeztatuta geratzen da.
- Modeloaren eta eskualdearen arabera, litekeena da gailu batzuek FCCren onespina behar izatea (Federal Communications Commission). Gailu honek haren onespina baldin badu, dagokion FCCren IDa ikusi ahal izango duzu. ID hori ikusteko, ireki **Ezarpenak** aplikazioa, eta sakatu **Gailuari buruz Egoera**.

Urarekiko eta hautsarekiko erresistentzia mantentzea

Zure gailua hautsak eta urak ez dute hondatzen. Segi aholku hauei arretaz, erresistentziari eusteko. Bestela, gailua hondatu egin daiteke.

- Ez sartu gailua ur gezatan, 1,5 m-tik gorako sakoneran, eta ez eduki urpean 30 minutuan baino gehiagoan. Gailua ur geza ez den beste edozein likidotan sartzen baduzu (adibidez, ur gazia, ur ionizatua edo edari alkoholduak), likidoa bizkorrago sartuko da gailuan.
- Ez jarri gailua ur-korronte zakarretan.
- Gailua ur gezarekin busti bada, lehortu ongi zapi garbi eta leun batekin. Beste likidoren batekin busti bada (hala nola, ur gazia, ur ionizatua edo edari alkoholduak), busti ur gezarekin, eta lehortu ongi, zapi garbi eta leun batekin. Jarraibide hauei kasu egiten ez badiezu, baliteke gailuaren errendimenduari eta itxurari eragitea.
- Gailua uretan sartu baduzu edo mikrofonoa edo bozgorailua bustita badaude, baliteke deietan soinua argi ez entzutea. Erabili zapi lehor bat gailua garbitzeko, eta ongi lehortu ezazu erabili aurretik.
- Baliteke ukipen-pantaila eta beste funtzio batzuk ondo ez exekutatzea gailua uretan erabiliz gero.
- Gailua erortzen bada edo kolpe handi bat jasotzen badu, urarekiko eta hautsarekiko erresistentzia gutxitu egin daitezke.
- **Gailuari zenbait proba egin zaizkio giro kontrolatuan, eta frogatu da urari eta hautsari eusten diela egoera jakin batzuetan (IP68 sailkapen-irizpideak betetzen ditu, IEC 60529 nazioartean deskribatzen denari jarraikiz, bilgarrien babes-graduari dagokionez [IP kodea]; probaren baldintzak: 15-35 °C, 86-106 kPa, ur geza, 1,5 metro, 30 minutu). Sailkapen hori eduki arren, gailua hondatu egin daiteke egoera jakin batzuetan.**

Jakinarazpen-ikonoak



Oharra: zu zeu edo beste pertsona batzuk kaltetu ditzaketen egoerak.



Kontuz: zure gailua edo beste tresna batzuk kaltetu ditzaketen egoerak.



Oharra: oharrak, erabilera-aholkuak edo informazio gehigarria.

Gailua gehiegi berotu daitekeen egoerak, eta irtenbideak

Bateria kargatzen ari den bitartean gailua berotu egiten bada

Kargatzen ari den bitartean, gerta liteke gailua eta kargagailua berotzea. Baliteke gailua beroago egotea haririk gabe kargatzen ari denean edo kargatze bizkorra erabiltzen denean. Ez du eraginik telefonoaren bizitza erabilgarrian edo errendimenduan; funtzionamenduaren parte da. Bateria gehiegi berotzen bada, baliteke kargagailuak kargatzeari uztea.

Gailua berotzean, segi jarraibide hauei:

- Deskonektatu gailuaren kargagailua eta itxi irekita dauden aplikazioak. Itxaron gailua hoztu arte, eta, ondoren, jarri berriro kargatzen.
- Gailuaren beheko aldea gehiegi berotzen bada, litekeena da konektatutako USB kablea hondatuta egotea. Ordezkatu USB kable hondatua Samsungek onartutako berri batekin.
- Haririk gabeko kargagailu bat erabiltzen baduzu, ez jarri material arrotzik (adibidez, objektu metalikoak, imanak edo banda magnetikoak dituzten txartelak) gailuaren eta haririk gabeko kargagailuaren artean.



Haririk gabe kargatzeko edo bizkor kargatzeko funtzioak modelo bateragarrietan bakarrik daude aukeran.

Erabiltzen ari garela gailua berotzen denean

Bateria-karga handiagoa eskatzen duten funtzioak edo aplikazioak luzaroan erabiltzen badituzu, gerta daiteke gailua aldi baterako berotzea, bateria-kontsumo handiagoa dela eta. Itxi zabalik dauden aplikazioak, eta ez erabili gailua puska batean.

Hona hemen gailua gehiegi berotzea eragin dezaketen zenbait egoera. Erabiltzen dituzun funtzio eta aplikazioen arabera, baliteke adibide hauek ez aplikatzea zure modeloari:

- Hasierako konfigurazioan, erosi ondoren, edo datuak berrezartzean
- Fitxategi handiak deskargatzean
- Bateria-karga handiagoa behar duten aplikazioak erabiltzean, edo aplikazioak luzaroan erabiltzean:
 - Kalitate handiko jokoak luzaroan erreproduzitzean
 - Bideoak luzaroan grabatzean
 - Distira-doikuntza maximoa erabiliz transmititzean bideoak
 - Telebista batera konektatzea
- Zenbait zeregin aldi berean egiten direnean edo aplikazio asko atzeko planoan exekutatzeko direnean:
 - Multiwindow erabiltzean
 - Bideo-grabazio batean aplikazioak eguneratzen edo instalatzen direnean
 - Bideo-dei batean fitxategi handiak deskargatzen direnean
 - Nabigazio-aplikazio bat erabili bitartean bideoak grabatzen direnean
- Datu-kantitate handia erabiltzen denean hodeiarekin, posta elektronikoarekin edo beste kontu batzuekin sinkronizatzeko
- Auto batean nabigazio-aplikazio bat erabiltzen denean gailua eguzki-argitan dagoela
- Konexio partekatua erabiltzen denean
- Seinaleko ahuleko edo seinalerik gabeko eremuetan erabiltzen denean gailua
- Hondatutako USB kable batekin kargatzen denean bateria
- Gailuaren erabilera ugariko larakoa hondatuta dagoenean edo material arrotzen eraginpean dagoenean, hala nola likidoa, hauts metalikoa edo grafitoa
- Desplazamenduan zaudenean

Gailua berotzean, segi jarraibide hauei:

- Eduki eguneratuta telefonoa azken softwarearekin.
- Aplikazio irekien arteko gatazken ondorioz, gailua berotu liteke. Berrabiarazi gailua.
- Desaktibatu WiFi, GPS eta bluetooth funtzioak, behar ez dituzunean.
- Itxi bateria-kontsumoa handitzen duten aplikazioak edo bigarren mailan exekututzen direnak erabiltzen ez dituzunean.
- Ezabatu behar ez dituzun fitxategiak edo erabiltzen ez dituzun aplikazioak.
- Murriztu pantailaren distira.
- Gailua gehiegi berotzen bada edo denbora luzez berotuta baldin badago, ez erabili minutu batzuez. Gehiegi berotzen jarraitzen badu, jarri harremanetan Samsungen Laguntza Teknikoko Zerbitzuarekin (LTZ).

Gailuaren mugak gehiegi berotzen denean

Gailua berotzen denean, baliteke haren funtzioak eta errendimendua mugatzea edo gailua itzaltzea hozteko. Funtzio hau modelo bateragarrietan bakarrik dago erabilgarri.

- Gailua ohikoa baino gehiago berotzen bada, mezu bat bistaratuko da gehiegi berotu dela adieraziz. Gailuaren tenperatura jaisteko, pantailaren distira eta errendimenduaren abiadura mugatuko dira, eta bateria kargatzeari utziko dio. Gainera, exekututzen ari diren aplikazioak itxi egingo dira, eta larrialdietako deiak baino ezingo dira egin gailua hoztu arte.
- Gailua gehiegi berotzen bada edo denbora luzez berotuta baldin badago, mezu bat bistaratuko da itzaltzeko esanez. Itzali gailua, eta itxaron hoztu arte.

Ingurune operatiborako kontuan hartu beharrekoak

Inguruneak gailua berotzea eragin dezake, kondizio hauetan: Kontuz! Ez laburtu bateriaren bizitza erabilgarria, ez hondatu gailua eta ez eragin sutarik.

- Ez gorde gailua tenperatura oso hotzak edo beroak dauden lekuetan.
- Ez utzi gailua denbora luzez eguzkiaren argiak zuzenean jotzen duela.
- Ez erabili eta ez gorde gailua denbora luzez leku oso beroetan (adibidez, udan, auto barruan).
- Ez jarri gailua gehiegi berotu daitekeen lekuetan (adibidez, manta elektriko baten gainean).
- Ez gorde gailua berogailuetan, mikrouhin-labeetan, sukaldeko ekipo beroetan eta goi-presioko edukiontzietan, ezta haietatik gertu ere.
- Ez erabili inoiz hondatutako kargagailurik, ez eta bateriarik ere.

Telefonoaren diseinua eta funtzioak

Kaxaren edukia


Ikus bizkor hasteko gida paketearen edukiari buruzko informazioa lortzeko.




- Gailuarekin batera datozen elementuak eta eskuragarri dauden osagarriak desberdinak izan litezke eskualdearen edo zerbitzu-hornitzailearen arabera.
- Gailuarekin batera emandako elementuak gailurako berariaz diseinatuta daude, eta baliteke beste gailu batzuekin bateragarriak ez izatea.
- Gailuaren itxura eta zehaztapenak aldatu egin litezke aurretik jakinarazi gabe.
- Hainbat osagarri eros ditzakezu Samsungen tokiko hornitzailearen bidez. Erosi aurretik, ziurtatu gailuarekin bateragarriak direla.
- Samsungek onartutako osagarriak soilik erabili. Hori egin ezean, baliteke bermeak estaltzen ez dituen errendimendu-arazoak eta funtzionamendu-erroreak eragitea.
- Osagarrien eskuragarritasuna aldatu egin liteke, fabrikatzaileen arabera. Eskuragarri dauden osagarriei buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, ikusi Samsungen webgunea.


Gailuaren diseinua


► Galaxy S9 modeloak:





► **Galaxy S9+ modeloak:**






Bozgorailuak erabiltzen dituzunean, adibidez multimedia-fitxategiak erreproduzitzeko edo bozgorailua erabiltzeko, ez jarri belarririk oso gertu.




- Egoera hauetan konektagarritasun-arazoak gerta daitezke, edo bateria deskargatu egin daiteke:
 - Gailuaren antenaren tokian metalezko itsasgarriak jartzen badituzu.
 - Metalezko materialekin egindako zorroa jartzen badiozu gailuari.
 - Funtzio jakin batzuk (adibidez, deiak edo datu-konexioak) erabiltzen ari zarela gailuaren antenaren ingurua eskuekin edo beste objektu batekin estaltzen baduzu.
- Samsungek onartutako pantaila-babesle bat erabiltzea gomendatzen da. Baliteke Samsungek onartu gabeko pantaila-babesleek funtzionamendu-erroreak eragitea sentsoreetan.
- Ez estali hurbiltasun-/argi-sentsorea pantailarako osagarriekin (adibidez, pantaila-babesekin edo pegatinekin). Bestela, akatsak gerta daitezke sentsorearen funtzionamenduan.
- Baliteke Edge pantailaren koloreak desberdin ikustea, ikuspen-angeluaren arabera.

Botoi fisikoak



Botoia	Funtzioa
Pizteko/Itzaltzeko botoia	<ul style="list-style-type: none"> • Luze sakatu telefonoa pizteko eta itzaltzeko. • Sakatu, pantaila pizteko edo blokeatzeko.
Bixby	<ul style="list-style-type: none"> • Sakatu Bixby Home irekitzeko. Informazio gehiago eskuratzeko, kontsultatu Bixby.
Bolumen-tekla	<ul style="list-style-type: none"> • Sakatu gailuaren bolumena doitzeko.

Tekla programagarriak



Gailua pizten duzunean, tekla programagarriak pantailaren beheko aldean agertuko dira. Tekla programagarriak honela daude konfiguratuta lehenespenez: azkena erabilitako aplikazioak, Hasierako botoia eta Atzera egiteko tekla. Ikusi [Nabigazio-barra \(tekla programagarriak\)](#) atala, informazio gehiago lortzeko.

Bateria

Bateria kargatzea

Kargatu bateria gailua lehen aldiz erabili aurretik edo denbora luzean erabili ez baduzu.



Samsungek onartzen dituen kargagailuak, bateriak eta kableak soilik erabili. Onartu gabeko kargagailu edo kableek bateria leherrarazi edo gailua hondatu lezakete.




- Kargagailua gaizki konektatzen baduzu, baliteke gailuari kalte larriak eragitea. Okerreko erabilerak eragindako kalteak ez dira bermean sartzen.
- Erabili soilik gailuarekin eman dizuten USB-C kablea. Bestela, MicroUSB kable bat erabiliz gero, gailua hondatu egin daiteke.



Kargagailuak ez du pizteko eta itzaltzeko etengailurik, eta, beraz, ez du elektrizitate-hornidura eteteko aukerarik; ondorioz, erabiltzaileak kendu behar du kargagailua saretik. Gainera, konektatuta dagoenean, entxufetik gertu egon behar du. Energia aurrezteko, deskonektatu kargagailua erabiltzen ari ez zarenean.

1 Konektatu USB kablea USB elikadurako egokigailura.

2 Konektatu USB kablea zure gailuko funtzio ugariko larakora.




- 3 Konektatu USB elikadura-egokigailua korrante-hargune batera.
- 4 Bateria guztiz kargatuta dagoenean, deskonektatu kargagailua gailutik. Ondoren, deskonektatu kargagailua korrante-hargunetik.

Beste gailu batzuk kargatzea

C motako USB konektorea erabil dezakezu zure gailuaren bateriarekin beste gailu mugikor batzuk kargatzeko.

Entxufatu C motako USB konektorea gailuko funtzio ugariko larakora, eta konektatu zure gailua beste gailura haren USB kablea erabilita.

Kargatzen hasten denean, beste gailuaren pantailan agertzen da bateria kargatzen ari dela adierazten duen ikonoa.



Gailuan aplikazioak hautatzeko bistaratzen den leiho gainerakorrak balio du datuak transferitzeko. Ez hautatu aplikaziorik leiho gainerakor horretan.

Bateria-kontsumoa murriztea

Bateria aurrezten laguntzen duten zenbait funtzio ditu gailuak:

- Optimizatu kontsumoa gailuaren mantentze-lanetarako funtzioa erabilita.
- Gailua erabiltzen ari ez bazara, itzali pantaila, pizteko tekla sakatuta.
- Aktibatu energia aurrezteko modua.
- Itxi behar ez dituzun aplikazioak.
- Desaktibatu Bluetooth funtzioa, behar ez duzunean.
- Desaktibatu WiFi funtzioa, behar ez duzunean.
- Desaktibatu sinkronizatu behar diren aplikazioen sinkronizazio automatikoa.
- Gutxitu ezazu pantailaren atzeko argiztapenaren denbora.
- Murriztu pantailaren distira.

Bateriaren kargatzeari buruzko aholkuak eta oharrak

- Bateria-maila txikia bada, bateriaren ikonoa hutsik egongo da.
- Bateria batere kargarik gabe badago, ezingo duzu gailua piztu kargagailua konektatu eta berehala. Utzi bateria minutu batzuek kargatzen, berriro saiatu aurretik.
- Aplikazio bat baino gehiago erabiltzen badituzu aldi berean, sareko aplikazioak nahiz beste gailu batekin konektatu beharrekoak, bateria azkar agortuko da. Datu-transferentzia egin bitartean bateriarik gabe ez geratzeko, bateria osorik kargatu ondoren erabili beti aplikazio horiek.
- Kargagailuaz bestelako energia-iturri bat erabiliz gero (adibidez, ordenagailua), baliteke mantsoago kargatzea, korrante elektrikoa baxuagoa baita.
- Gailua erabil dezakezu kargatzen ari dela, baina guztiz kargatzeko denbora gehiago beharko du.
- Gailuak, kargatzen ari dela, elikadura ezegonkorra jasotzen badu, gerta liteke ukipen-pantailak ez funtzionatzea. Hori gertatzen bada, deskonektatu kargagailua gailutik.


- Kargatzen ari den bitartean, gerta liteke gailua eta kargagailua berotzea. Hori normala da, eta ez du eraginik telefonoaren bizitza erabilgarrian edo errendimenduan. Bateria ohikoa baino gehiago berotzen bada, baliteke kargagailuak kargatzeari uztea.
- Erabilera ugari larakoa bustita dagoenean kargatzen baduzu gailua, hondatu egin daiteke. Lehortu ondo erabilera ugari larakoa, gailua kargatu aurretik.
- Gailua behar bezala kargatzen ez bada, eraman ezazu kargagailuarekin batera Samsungen Laguntza Teknikoko Zerbitzu batera.

Bizkor kargatzea

Gailuak bizkor kargatzeko funtzioa du. Bateria bizkorrago kargatu dezakezu gailua edo pantaila itzalita daudenean.

Kargatze-abiadura handitzea

Kargatzeko abiadura handitzeko, itzali gailua edo pantaila, bateria kargatzen ari den bitartean. Gailua itzalita dagoela bateria kargatzen ari bazara, (...) ikonoa bistaratuko da pantailan.

Bizkor kargatzeko funtzioa aktibatuta ez baldin badago, ireki **Ezarpenak** aplikazioa, eta sakatu **Gailuaren mantentze lanak** → **Bateria** →  → **Ezarpen aurreratuak** eta, ondoren, irristatu **Kabledun kargatze azkarra** etengailua, aktibatzeko.



- Ezingo duzu erabili bizkor kargatzeko funtzioa, bateria kargatzeko kargagailu estandarra erabiltzen baduzu.
- Gailua berotuz gero edo giro-tenperatura igotzen bada, litekeena da kargatzeko abiadura automatikoki jaitea. Neurri operatibo arrunta da hori, gailua honda ez dadin.

Haririk gabe kargatzea

Gailuak haririk gabe kargatzeko teknologia du. Bateria karga dezakezu haririk gabeko kargagailu bat erabilita (bereiz saltzen da).

Haririk gabe bizkor kargatzea

Gailua bizkorrago karga dezakezu haririk gabe bizkor kargatzeko aukera erabilita. Funtzio hori erabiltzeko, funtzio honekin bateragarriak diren kargagailu bat eta osagarriak erabili behar dira.

Bizkor kargatzeko funtzioa aktibatuta ez baldin badago, ireki Ezarpenak aplikazioa, eta sakatu **Gailuaren mantentze lanak** → **Bateria** → **Ezarpen aurreratuak** eta, ondoren, sakatu **Kabledun kargatze azkarra** etengailua, aktibatzeko.




- Aktibatzeko eta desaktibatzeko aukera gailuko doikuntza-menura gehituko da gailua kargagailuan jartzen duzun lehenengo aldian.
- Baliteke kargagailuaren barruko haizagailuak zarata egitea haririk gabe kargatzen ari den bitartean.

Bateria kargatzea

1 Jarri gailuaren atzealdearen erdigunea haririk gabeko kargagailuaren erdiaren gainean.

Pantailan bistaratzen da gutxi gorabehera zenbat denbora beharko duen kargatzeko. Kargatzeko falta den benetako denbora aldatu egin daiteke karga-baldintzen arabera.



2 Bateria guztiz kargatuta dagoenean, deskonektatu gailua kargagailutik.



Haririk gabe kargatzean kontuan hartu beharreko neurriak

- Ez jarri gailua haririk gabe kargagailuaren gainean, baldin eta kreditu-txartelen bat edo irrati-maiztasunaren bidezko identifikazio-txartelen bat (RFID) (adibidez, garraio-txartel bat edo giltza-txartel bat) baduzu gailuaren atzeko aldearen eta gailuaren zorroaren artean.
- Ez jarri gailua haririk gabeko kargagailuaren gainean baldin eta material eroalaren bat (adibidez, metalezko objekturen bat edo imanen bat) badago gailuaren eta haririk gabeko kargagailuaren artean.

Litekeena da gailua ez ondo kargatzea edo gehiegi berotzea. Gainera, gailua eta txartelak hondatu egin daitezke.



- Sare-seinale ahula dagoen lekuetan erabiltzen baduzu haririk gabeko kargagailua, gerta liteke konexioa galtzea.
- Erabili Samsungek onartutako haririk gabeko kargagailuak. Haririk gabeko beste kargagailu batzuk erabiltzen badituzu, gerta liteke bateria ez ondo kargatzea.

SIM edo USIM txartela (nanoSIM txartela)

SIM edo USIM txartela sartzea

Sartu telefonia mugikorreko zerbitzu-hornitzaileak emandako SIM edo USIM txartela.

Bi SIMeko modeloen kasuan, bi SIM edo USIM txartel sar ditzakezu, eta gailu berean bi telefono-zenbaki edo bi zerbitzu-hornitzaile eduki. Alor batzuetan, moteldu egin daiteke datuak transferitzeko abiadura, SIM txartel bakarraren ordean bi txartel sartzen badira.





Kontuz: ez galdu SIM edo USIM txartela, eta ez utzi beste inori erabiltzen. Samsungek ez du bere gain hartzen txartelak galtzearen edo lapurtzearen ondorioz sortutako kalte eta eragozpenen ardurarik.





Baliteke LTE zerbitzu batzuk erabilgarri ez izatea, zure zerbitzu-hornitzailearen arabera. Zerbitzuaren erabilgarritasunari buruzko informazio gehiago eskuratzeko, jarri harremanetan hornitzailearekin.


► SIM bakarreko modeloak:



► Bi SIMeko modeloak:




1 SIM txartelaren erretilua ateratzeko, sartu ateratze-eraztuna erretiluaren zuloan.

 Ziurtatu ateratze-eraztuna zuloari perpendikular dagoela. Hala ez bada, gailua honda daiteke.


2 Atera kontu handiz erretilua zirrikitutik.

3 **SIM bakarreko modeloak:** sartu SIM edo USIM txartela 1. erretiluan, urre-koloreko kontaktuak beherantz dituela.


Bi SIMeko modeloak: sartu SIM edo USIM txartela erretiluan, urre-koloreko kontaktuak beherantz dituela. Jarri SIM edo USIM txartel nagusia 1. SIM txartelaren erretiluan **1**, eta bigarren SIM edo USIM txartela, 2. SIM txartelaren erretiluan **2**.



4 Sakatu poliki SIM edo USIM txartela erretiluan, ondo sartuta geratu dadin.


 Txartela ez badago ondo jarrita erretiluan, SIM txartela erretilutik atera edo eror daiteke.

5 Sartu berriro erretilua dagokion lekuan.



-  • Erretilua bustita dagoela sartzen baduzu gailuan, gailua hondatu egin daiteke. Ziurtatu une oro erretilua lehorra dagoela.
- Sartu erabat erretilua bere zirrikituan, gailuan likidorik sar ez dadin.

Txartela ongi instalatzea

► SIM bakarreko modelook:



► Bi SIMeko modelook:



- Erabili nanoSIM txartelak bakarrik.
- Ezin da sartu nanoSIM txartel bat eta microSD txartel bat 2. erretiluan, aldi berean.

SIM edo USIM txartela ateratzea

- 1 SIM txartelaren erretilua ateratzeko, sartu ateratze-eraztuna erretiluaren zuloan.
- 2 Atera kontu handiz erretilua zirrikitutik.
- 3 Kendu SIM edo USIM txartela.
- 4 Sartu berriro erretilua dagokion lekuan.

SIM edo USIM txartelak erabiltzea (bi SIMeko modeloetan)

Bi SIM edo USIM txartel sartzen badituzu, gailu berean bi telefono-zenbaki edo bi zerbitzu-hornitzaile eduki ditzakezu.

SIM edo USIM txartelak aktibatzea

Ireki Ezarpenak, eta sakatu Konexioak → **SIM txartel kudeatzailea**. Hautatu SIM edo USIM txartel bat, eta sakatu etengailua hura aktibatzeko.

SIM edo USIM txartelak pertsonalizatzea

Ireki Ezarpenak aplikazioa, sakatu **Konexioak** → **SIM txartel kudeatzailea**, eta hautatu SIM edo USIM txartel bat aukera hauetara sartzeko:

- **Ikonoa:** SIM edo USIM txartelaren ikonoa aldatzen du.
- **Izena:** SIM edo USIM txartelaren izena aldatzen du.
- **Sare modua:** SIM edo USIM txartelarekin erabiltzeko sare-mota hautatzeko balio du.

SIM edo USIM txartel gogokoenak konfiguratzeko

Bi txartel aktibatzen direnean, txartel jakin bati esleitzen dakizkioke ahots-deiak, mezuak eta datu-zerbitzuak.

Ireki **Ezarpenak** aplikazioa sakatu **Konexioak** → **SIM txartel kudeatzailea**, eta konfiguratu zure txartelarako lehentasunak **SIM TXARTEL LEHENETSIA** aukeran.

Memoria-txartela (microSD txartela)

Memoria-txartel bat sartzea


Baliteke gailuaren memoria-txartelaren edukiera beste modelo batzuetakoen desberdina izatea, eta baliteke memoria-txartel batzuk zure gailuarekin bateragarriak ez izatea, memoria-txartel motaren eta haren fabrikatzailearen arabera. Gailuaren memoria-txartelaren gehienezko edukiera egiaztatzeko, kontsultatu Samsungen webgunea.



- Baliteke memoria-txartel batzuk gailuarekin erabat bateragarriak ez izatea. Bateragarria ez den memoria-txartel bat erabiltzen baduzu, baliteke gailua edo memoria-txartela hondatzea, baita txartelean gordetako datuak hondatzea ere.
- Ziurtatu memoria-txartela norabide egokian sartu duzula, gora begira.



- Gailu honetan, FAT eta exFAT fitxategi-sistemak erabil daitezke memoria-txarteletarako. Fitxategi-sistema ezberdin batekin formateatu den txartel bat txertatzen baduzu, txartela berriz formateatzeko eskatuko dizu gailuak; bestela, ez du ezagutuko. Memoria-txartela erabiltzeko formateatu egin behar duzu. Gailuak ezin badu txartela formateatu edo ez badu ezagutzen, jarri harremanetan memoria-txartelaren fabrikatzailearekin edo Samsungen bezeroentzako arreta-zentro batekin.
- Datuak sarri idazten eta ezabatzen arituz gero, memoria-txartelaren bizitza erabilgarria murriztu egiten da.
- Gailuan memoria-txartel bat sartzen duzunean, txartelaren fitxategi-direktoria **Nire fitxategiak > SD txar.** karpetan agertuko da, barne-memoriaren barruan.




1 SIM txartelaren erretilua ateratzeko, sartu ateratze-eraztuna erretiluaren zuloan.

! Ziurtatu ateratze-eraztuna zuloari perpendikular dagoela. Hala ez bada, gailua honda daiteke.

2 Atera kontu handiz erretilua zirrikitutik.

! Erretilua gailutik ateratzen duzunean, datu mugikorren konexioa desaktibatu egingo da.

3 Sartu memoria-txartel bat 2. erretiluan urre-koloreko kontaktuak behera begira dituela.



4 Sakatu poliki memoria-txartela erretiluan, ondo sartuta geratu dadin.



Txartela ez badago ondo jarrita erretiluan, memoria-txartela erretilutik atera edo eror daiteke.

5 Sartu berriro erretilua dagokion lekuan.



- Erretilua bustita dagoela sartzen baduzu gailuan, gailua hondatu egin daiteke. Ziurtatu une oro erretilua lehorra dagoela.
- Sartu erabat erretilua bere zirikitan, gailuan likidorik sar ez dadin.

Memoria-txartela ateratzea

Memoria-txartel bat kendu aurretik, desaktibatu, seguru erazteko.

Ireki **Ezarpenak** aplikazioa, eta sakatu **Gailuaren mantentze lanak** → **Biltegitratzea** →  → **Biltegitratzea ezarpenak** → **SD txar.** → **Desmuntatu.**

1 SIM txartelaren erretilua ateratzeko, sartu ateratze-eraztuna erretiluaren zuloan.

2 Atera kontu handiz erretilua zirrikitutik.

3 Atera memoria-txartela:

4 Sartu berriro erretilua dagokion lekuan.



Ez atera kanpo-biltegitagailua (adibidez, memoria-txartel bat edo USB biltegitagailu bat) informazioa transferitzen edo jasotzen ari denean, ez eta datuak transferitu bezain laster. Hori eginez gero, baliteke datuak galtzea edo kaltetzea, edo kanpo-biltegitagailua edo telefonoa bera kaltetzea. Samsungek ez du bere gain hartzen kanpo-biltegitagailuak gaizki erabiltzearen ondorioz sor daitezkeen galeren ardurarik (datu-galerak adibidez).

Memoria-txartela formateatzea

Baliteke ordenagailu batean formateatutako memoria-txartel bat ez izatea bateragarria gailuarekin. Formateatu memoria-txartela gailuan.

Ireki **Ezarpenak** aplikazioa, eta sakatu **Gailuaren mantentze lanak** → **Biltegitatzea** → (...) → **Biltegitaketa ezarpenak** → **SD txar.** → **FORMATEATU.**



Memoria-txartela formateatu aurretik, gogoan izan han gordetako datu garrantzitsu guztien segurtasun-kopia egin behar dela. Fabrikatzailearen bermeak ez ditu estaltzen erabiltzaileen ekintzek eragindako datu-galerak.

Gailua piztea eta itzaltzea

Gailua pizteko, luze sakatu pizteko/itzaltzeko botoia segundo batzuez.

Gailua lehen aldiz piztean, edo fabrikako balioak berrezarri ondoren, jarraitu pantailako argibideei, gailua konfiguratzeko.


Gailua itzaltzeko, luze sakatu pizteko/itzaltzeko botoia, eta ukitu **Itzalita**.



Haririk gabeko gailuak debekatuta dauden eremuetan (hegazkinetan eta ospitaletan, adibidez zaudenean, bete langileek egindako ohar eta argibide guztiak.

Gailua berrabiaraztea

Gailua blokeatu egiten bada eta ez badu erantzuten, sakatu pizteko/itzaltzeko tekla eta bolumena jaisteko koa batera gutxienez 7 segundoz, berrabiarazteko.



Larrialdi modua

Larrialdi modua aktibatu dezakezu gailuan, bateriaren kontsumoa murrizteko. Aplikazio eta funtzio batzuen erabilera mugatu egingo da. Larrialdi moduan, ekintza hauek egin ditzakezu: larrialdi-dei bat egin, zure uneko kokalekuari buruzko informazioa bidali, larrialdi-alarma bat martxan jarri, eta beste.

Larrialdi modua aktibatzea

Larrialdi modua aktibatzeko, luze sakatu pizteko botoia, eta, ondoren, sakatu Larrialdi modua.



Geratzen den erabilera-denborak erakusten du zenbat denbora gelditzen den bateria erabat agortu arte. Kargatze-denbora aldatu egin liteke, gailuaren doikuntzen eta funtzionamendu-baldintzen arabera.

Larrialdi modua desaktibatzea

Larrialdi modua desaktibatzeko, sakatu  → **Ezgaitu Larrialdi modua**. Bestela, luze sakatu pizteko/itzaltzeko tekla, eta, gero, sakatu Larrialdi modua.

Hasierako konfigurazioa


Gailua lehen aldiz piztean, edo fabrikako balioak berrezarri ondoren, jarraitu pantailako argibideei, gailua konfiguratzeko.



Hasierako konfigurazioko prozedurak desberdinak izan daiteke gailuaren softwarearen eta eskualdearen arabera.

1 Piztu gailua.

2 Hautatu gailurako nahi duzun hizkuntza, eta hautatu (→).



3 Hautatu WiFi sare bat, eta konekta zaituz hartara.



WiFi sare batera konektatzen ez bazara, baliteke gailuko funtzio batzuk konfiguratzeko aukerarik ez izatea hasierako konfigurazioan.

4 Pantailan agertzen diren argibideei jarraitu behar diezu, hasierako konfigurazioarekin segitzeko.

5 Konfiguratu pantaila blokeatzeko modu bat gailua babesteko. Zure informazio pertsonala babestu dezakezu, eta beste pertsona batzuek informazio hori ikustea saihestu. Pantaila blokeatzeko modua beste une batean konfiguratzeko, sakatu **Ez, eskerrik asko**.

- 6 Hasi saioa zure Samsung account-en. Samsung zerbitzuak erabil ditzakezu, eta zure datuak eguneratuta eta babestuta eduki gailu guztietan. Informazio gehiago nahi baduzu, ikusi [Samsung account](#) atala.



- 7 Samsung Cloud edo beste gailu batean duzun edukia berreskuratuz dezakezu. Informazio gehiago eskuratzeko, kontsultatu [Beste gailu batetik datuak transferitzea](#).




- 8 Hautatu erabili nahi dituzun funtzioak eta osatu hasierako konfigurazioa. Pantaila nagusia agertuko zaizu.

Samsung account

Sarrera

Samsung account kontu-zerbitzu bat da, aukera ematen duena Samsungen zenbait zerbitzu Samsungen gailu mugikor, telebista eta webgune bidez erabiltzeko. Samsung account-en erregistratu ondoren zure datuak eguneratuta eta babestuta eduki ahal izango dituzu zure Samsung gailuetan, Samsung Cloud erabilita; gainera, gailua galduz edo lapurtuz gero haren segimendua egin dezakezu. Samsung Membersen aholkuak eta trikimailuak ere ikusi ahal izango dituzu, eta beste aukera gehiago ere izango duzu.

Sortu Samsung account bat zure helbide elektronikoarekin.

Zure Samsung account-ekin erabil ditzakezun zerbitzuen zerrenda ikusteko, zoaz gune honetara: account.samsung.com. Samsung account kontuei buruzko informazio gehiago jasotzeko, ireki **Ezarpenak** aplikazioa, eta sakatu **Hodeia eta kontuak** → **Kontuak** → **Samsung account** →  -> **Laguntza**.

Zure Samsung account kontua erregistratzea

Samsung account kontu bat lehen aldiz erregistratzea

Samsung account konturik ez baduzu, bat sortu behar duzu.

- 1 Zoaz **Ezarpenak** aukerara, eta sakatu **Hodeia eta kontuak** → **Kontuak** → **Gehitu kontua**.
- 2 Sakatu **Samsung account** → **KONTUA SORTU**.
- 3 Segi pantailako jarraibideei, kontua sortzeko.

Lehendik sortuta dagoen Samsung account bat erregistratzea

Lehendik sortuta baldin baduzu Samsung account kontu bat, erregistratu gailuan.

- 1 Zoaz **Ezarpenak** aukerara, eta sakatu **Hodeia eta kontuak** → **Kontuak** → **Gehitu kontua**.
- 2 Sakatu **Samsung account** → **HASI SAIOA**.

3 Sartu zure Samsung account-eko IDa eta pasahitza, eta sakatu **HASI SAIOA**.

Zure kontuaren informazioa ahaztu baduzu, sakatu **ID bilatu** edo **Berrezarri pasahitza**. Zure kontuari buruzko informazioa jaso dezakezu, beharrezko informazioa sartuta.

Zure Samsung account-en pasahitza egiaztatu nahi baduzu zure datu biometrikoekin (adibidez, hatz-markak edo irisa), sakatu **Pasahitzaren ordeztu, egiaztatu nortasuna datu biometr. bidez Samsung Pass-ekin** aukera. Informazio gehiago nahi baduzu, ikusi [Samsung Pass](#) atala.

4 Irakurri eta onartu baldintzak eta sakatu **ADOS**.

5 Sakatu **AMAITUTA**. Samsung account kontuaren erregistroa amaitzeko.

Zure Samsung account kontua ezabatzea

Zure gailuan erregistratutako Samsung account kontua ezabatzen baduzu, zure datuak (adibidez, kontaktatuak eta gertaerak) ezabatzen dira.

1 Ireki **Ezarpenak** aplikazioa, eta sakatu **Hodeia eta kontuak** → **Kontuak**.

2 Sakatu **Samsung account** →  → **Kendu kontua**.

3 Sakatu **EZABATU**, sartu berriz zure Samsung account-eko pasahitza, eta, gero, sakatu **KENDU KONTUA**.


Beste gailu batetik datuak transferitzea

Zure datuak berrezarri ditzakezu (adibidez, argazkiak, kontaktuak, mezuak eta aplikazioak) Samsung Cloud erabilia. Bestela, zure aurreko gailutik kopiatu ditzakezu, Smart Switch erabilia.



- Baliteke funtzio hau gailu edo ordenagailu batzuetan erabilgarri ez egotea.
- Mugak aplikatzen dira. Ikusi www.samsung.com/smartswitch xehetasun gehiago izateko. Samsungentzat, copyrighta oso garrantzitsua da. Zure edukiak edo eskubideak dituzun edukiak bakarrik transferitu.

Ondoren, hasierako konfigurazio-prozesuan datuak berrezartzeko aukeran dauden funtzioak aipatzen dira. Samsung Cloud edo Smart Switch funtzioei buruzko informazio gehiago behar izanez gero, ikusi [Samsung Cloud](#) edo [Smart Switch](#) atalak.




Aurreko gailutik datuak berrezartzeko (Smart Switch).

Lehenengo gailua uneko gailura konektatu dezakezu USB-C konektore baten eta USB kable baten bidez, datuak bizkor eta erraz transferitzeko.

- 1 Hasierako konfigurazioan, datuak berrezartzeko pantaila bistaratzen denean, sakatu **Gailu zaharretik** → **HURRENGOA**.
- 2 Konektatu C Motako USB konektorea zure gailuko funtzio ugariko larakora.

3 Konektatu gailua lehengo gailura gailu horren USB kable baten bidez.



4 Lehengo gailuan, sakatu **BAIMENDU**.

5 Jarraitu pantailako argibideei datuak lehengo gailutik berrira transferitzeko.



Ez deskonektatu USB kablea eta C Motako USB konektorea gailutik, fitxategiak transferitzen ari diren bitartean. Hala eginez gero, baliteke datuak galtzea edo gailuak kalteak izatea.



Datuak transferitzean gailuak bateria gehiago kontsumitzen du. Datuak transferitu aurretik, ziurta ezazu bateriak nahiko karga duela. Bateria-maila baxua baldin bada, baliteke datu-transferentzia etetea.

Datuak Samsung Cloud erabilia berrezartzea

Zure aurreko gailuko segurtasun-kopiako datuak berrezar ditzakezu, baldin eta Samsung Cloud badituzu.

1 Hasierako konfigurazioan, datuak berrezartzeko pantaila bistaratzen denean, sakatu **Samsung Cloud-etik** → **HURRENGOA**.

2 Sakatu ▼ **DISPOSITIVO PARA COPIA DE SEGURIDAD** aukeran, eta hautatu aurreko gailua.

3 Markatu berrezarri nahi dituzun datu-motak, eta sakatu **Berrezarri**.

Pantailari buruzko informazioa

Ukipen-pantaila kontrolatzea




- Ukipen-pantailak ez du ukitu behar beste gailu elektrikorik. Deskarga elektrostatikoez ukipen-pantailaren funtzionamenduan eragin dezakete.
- Ukipen-pantailak kalterik izan ez dezan, ez ukitu edo sakatu objektu puntadunekin, eta ez sakatu gehiegi hatzekin.
- Ukipen-pantaila denbora luzez inaktibo utziz gero, baliteke irudiak bata bestearen gainean edo ahulduta agertzea. Gailua erabili behar ez baduzu, itzali pantaila.



- Pantailaren ertzetatik hurbil ukituz gero, baliteke gailuak ez ezagutzea, ertzak ukipen bidez idazteko eremutik kanpo daudelako.
- Ukipen-pantaila hatzez erabiltzea gomendatzen da.


Sakatzea

Sakatu pantaila.




Luze sakatzea

Luze sakatu pantaila, gutxi gorabehera 2 segundoz



Mugitzea

Luze sakatu elementu bat, eta eraman nahi duzun kokalekura.




Bi aldiz sakatzea

Sakatu bi aldiz pantaila





Irristatzea

Irristatu hatza gora, behera, ezkerrera edo eskuinera.




Atximur egitea

Bereizi edo elkartu bi hatz pantailan.



Nabigazio-barra (tekla programagarriak)

Gailua pizten duzunean, tekla programagarriak nabigazio-barran agertuko dira, pantailaren beheko aldean. Tekla programagarriak honela daude konfiguraturuta lehenespenez: azkena erabilitako aplikazioak, Hasierako botoia eta Atzera egiteko tekla. Botoien funtzioak aldatu egin daitezke, erabiltzen den aplikazioaren edo erabilera-ingurunearen arabera.



Botoia/ tekla	Funtzioa
● Erakustea/ Ezkutatzea	<ul style="list-style-type: none"> Sakatu bi aldiz nabigazio-barra ainguratzeko edo ezkutatzeko.
⌵ Azkena erabilitako aplikazioak	<ul style="list-style-type: none"> Sakatu, azkena erabilitako aplikazioen zerrenda irekitzeko.
□ Hasierako botoia	<ul style="list-style-type: none"> Sakatu, pantaila nagusira itzultzeko. Luze sakatu Google-ren morroia aplikazioa irekitzeko.
← Atzera tekla	<ul style="list-style-type: none"> Sakatu, aurreko pantailara itzultzeko.

Nabigazio-barra erakustea eta ezkutatzea

Nabigazio-barraren ezkerrean dagoen bistaratzeko eta ezkutatzeko botoiarekin nabigazio-barra konfiguratu dezakezu, aplikazioak edo funtzioak erabiltzen dituzunean ezkuta dadin edo pantailara ainguratu dadin. Lehenespenez, nabigazio-barra ainguratuta dago.

Pantaila osoan ikusi nahi badituzu fitxategiak edo erabili aplikazioak, sakatu bi aldiz bistaratzeko eta ezkutatzeko botoia, nabigazio-barra ezkutatzeko.

Nabigazio-barra berriro bistaratzeko, irristatu pantailaren beheko alde gorantz.




- Pantaila jakin batzuetan (adibidez, pantaila nagusia) nabigazio-barra beti bistaratuko da eta bistaratzeko eta ezkutatzeko botoia ez da agertuko.
- Nabigazio-barra ainguratuta egon arren, ezkutatu egin ahal izango duzu aplikazio edo funtzio batzuk erabiltzen dituzunean (adibidez, bideo bat erreproduzitzean).

Pantaila piztea hasierako botoia sakatuta

Luze sakatu hasteko botoia edo hasteko botoiaren eremua, pantaila pizteko.

Always On Display pantailan, pantaila pizteko aukera ere izango duzu hasteko botoia bi aldiz sakatuta.



Nabigazio-barra konfiguratzeko

Ireki **Ezarpenak** aplikazioa, sakatu **Pantaila** → **Nabigazio barra** eta, ondoren, hautatu aukera bat.

- **Erakutsi eta ezkutatu botoia:** botoi bat eransteko nabigazio-barra ezkutatu edo ainguratzeko. Aplikazio bakoitzean botoia bistaratzea nahi duzun ala ez ezar dezakezu.
- **ATZEALDEAREN KOLOREA:** nabigazio-barraren atzeko kolorea aldatzeko.
- **Sakatu luze Botoi nagusia:** gailua konfiguratzeko pantaila nagusira itzul dadin botoi hori luze sakatuz gero. Hasierako botoia luze sakatzean erabiltzeko egin beharreko presioa ere doitu dezakezu.
- **Desblokeatu botoi nagusiarekin:** gailua konfiguratzeko pantaila desblokeatu dadin hatza blokeatutako pantailatik pasatu gabe, hasierako botoia luze sakatuta. **Sakatu luze Botoi nagusia** aktibatzen denean erabil daiteke funtzio hau.
- **Botoiaren itxura:** nabigazio-barrako botoien ordena aldatzeko.

Pantaila nagusia eta aplikazioen pantaila

Gailuaren funtzio guztietara sartzeko abiapuntua da pantaila nagusia. Widgetak, aplikazioetarako lasterbideak eta beste funtzio asko ditu.

Aplikazioen pantailan, aplikazioetako ikonoak daude; baita azkena instalatutakoenak ere.




Pantailaren itxura aldatu egin liteke eskualdearen edo zerbitzu-hornitzailearen arabera.



Nola txandakatu pantaila nagusiaren eta aplikazioen pantailaren artean

Pantaila nagusian, irristatu hatza gorantz edo beherantz aplikazioen pantaila irekitzeko.


Pantaila nagusira itzultzeko, irristatu hatza gorantz edo beherantz aplikazioen pantailan. Hasierako botoia edo atzera tekla ere sakatu dezakezu.



Pantaila nagusia

Aplikazioen pantaila

Pantaila nagusian aplikazioen botoia erantsiz gero, aplikazioen pantaila ireki dezakezu botoi hori sakatuta. Pantaila nagusian, luze sakatu eremu huts bat, eta sakatu **Pantaila nagusiko ezarpenak** → **Aplikazioak botoia** → **Erak. Aplikazioak botoia** → **EZARRI**. Aplikazioen botoia pantaila nagusiaren beheko aldean bistaratuko da.



Pantaila horizontalean erakustea

Hasierako pantailan, luze sakatu eremu huts bat, sakatu **Pantaila nagusiko ezarpenak** eta, ondoren, sakatu **Erretratu modua soilik** etengailua, hura desaktibatzeke.

Bira eman gailuari horizontal jarri arte, pantaila ere horizontal ikusteko.



Elementuak mugitzea

Luze sakatu elementu bat, eta, ondoren, mugitu kokaleku berri batera. Elementu bat beste panel batera eramateko, mugitu pantailaren alboetako bateraino.

Aplikazio baten lasterbide bat eransteko pantaila nagusian, luze sakatu elementua aplikazioen pantailan, eta, ondoren, mugitu pantailaren goiko aldera. Pantaila nagusian aplikaziorako lasterbidea gehituko da.


Aukera duzu, halaber, sarrien erabiltzen dituzun aplikazioak lasterbideen eremura eramateko (pantaila nagusiaren beheko aldean).

Karpetak sortzea

Karpetak sor ditzakezu antzeko aplikazioak gordetzeko eta horietara bizkorrago sartzeko.

- 1 Pantaila nagusian edo aplikazioen pantailan, luze sakatu aplikazio bat, eta, ondoren, eraman beste aplikazio batera.
- 2 Askatu aplikazioa, inguruan karpeta-marko bat azaltzen denean.

Hautatutako aplikazioak izango dituen karpeta berri bat sortuko da. Sakatu Karpeta izena idatzi, eta idatzi izen bat.



- **GEHITU APLIKAZIOAK**

Sakatu **GEHITU APLIKAZIOAK** karpetan. Markatu erantsi nahi dituzun aplikazioak, eta sakatu GEHITU. Bestela, eraman aplikazioa karpeta horretara.

- **Karpeta batetik aplikazioak mugitzea**

Luze sakatu aplikazio bat, kokaleku berri batera mugitzeko.


- **Karpeta bat ezabatzea**

Luze sakatu karpeta bat, eta, gero, sakatu **Ezabatu karpeta**. Karpeta baino ez da ezabatuko. Karpetako aplikazioak aplikazioen pantailan kokatuko dira berriro.

Pantaila nagusia editatzea

Pantaila nagusian, luze sakatu eremu huts bat, edo egin atximur, editatzeko eskuragarri dauden aukeretara sartzeko. Pantaila-atzealde bat konfiguratu dezakezu, widgetak gehitu ditzakezu, eta askoz gehiago. Horrez gain, pantaila nagusian panelak erantsi, ezabatu edo berrantolatu ditzakezu.

- Panel bat gehitzeko: mugitu hatza ezkerredera, eta, ondoren, sakatu **+**.
- Panelak mugitzeko: luze sakatu panel baten aurrebista, eta, ondoren, mugitu beste kokapen bateraino.
- Panelak ezabatzeko: sakatu **🗑️** panelean.



- **Horma paperak:** pantaila nagusiaren eta blokeo-pantailaren pantaila-atzealdearen doikuntzak aldatzeko.
- **Gaiak:** gailuaren gaia aldatzeko. Interfazearen ikusizko elementuak (koloreak, ikonoak eta atzeko planoak) aldatu egingo dira aukeratutako gaiaren arabera.
- **Widgetak:** aplikazio txikiak dira, funtzio jakin batzuk martxan jartzen dituztenak, pantaila nagusian informazioa eta sarbide erosoak izateko. Luze sakatu widget bat, eta, ondoren, mugitu pantaila nagusira. Widgeta pantaila nagusira erantsiko dira.
- **Pantaila nagusiko ezarpenak:** laukiaren tamaina aldatzeko pantaila nagusian elementu gehiago edo gutxiago bistaratzeko, eta aukera gehiago ere badaude.

Pantaila nagusian aplikazio guztiak bistaratzea

Aplikazioen beste pantaila bat erabili beharrik gabe, gailua konfiguratu dezakezu pantaila nagusian aplikazio guztiak bistara ditzan. Pantaila nagusian, luze sakatu eremu huts bat, eta, ondoren, sakatu **Pantaila nagusiko ezarpenak** → **Pantaila nagusiaren diseinua** → **Pantaila nagusia soilik** → **EZARRI**.

Aplikazio guztietara sartu ahal izango duzu hatza ezkerrera mugituta pantaila nagusian.









Jakinarazpen-ikonoak

Jakinarazpen-ikonoak egoera-barran bistaratzen dira, pantailaren goiko aldean. Taula honetan jasotzen dira ikono ohikoenak.



Aplikazio batzuetan, baliteke egoera-barra ez bistaratzea pantailaren goiko aldean. Bistaratzeko, irristatu pantailaren goiko aldea beherantz.

Ikonoa	Esanahia
	Ez dago seinalerik
	Seinalearen intentsitatea
	Desplazamendua (roaminga)
	SIM edo USIM txartel gogokoena deietarako (bi SIMeko modeloetarako)
	GPRS sarea konektatuta
	EDGE sarea konektatuta
	UMTS sarea konektatuta
	HSDPA sarea konektatuta
	HSPA+ sarea konektatuta
	LTE sarea konektatuta (LTEekin bateragarriak diren modeloak)
	WiFi-a konektatuta
	Bluetootha aktibatuta
	Erabiltzen ari zaren kokapen-zerbitzuak
	Deia, martxan
	Dei galdua

Ikonoa	Esanahia
	Testu-mezu edo multimedia-mezu berria
	Alarma aktibatuta
	Isilik modua aktibatuta
	Bibrazio modua aktibatuta
	Hegazkin modua aktibatuta
	Errore bat gertatu da edo ohar bat dago.
	Bateria kargatzea
	Bateriaren karga-maila

Blokeo-pantaila

Pizteko/Itzaltzeko botoia sakatzen baduzu, pantaila itzali egingo da, eta gailua blokeatu egingo da. Gainera, pantaila itzali eta automatikoki blokeatuko da, gailua denbora-tarte jakin batez erabiltzen ez baduzu.

Pantaila desblokeatzeko, irristatu hatza edozein norabidetan pantaila pizten denean.

Pantaila itzalita baldin badago, sakatu pizteko botoia edo luze sakatu hasteko botoia edo hasteko botoiaren eremua, pantaila pizteko.



Blokeo-pantaila

Pantaila blokeatzeko modua aldatzea

Pantaila blokeatzeko modua aldatzeko, ireki **Ezarpenak** aplikazioa, sakatu **Pan. Blokeo eta segurtas** → **Pantaila blokeo mota**, eta, gero, aukeratu metodo bat.

Patroi bat, PIN bat, pasahitz bat, zure aurpegia, irisa edo hatz-marka digitala hautatzen baduzu pantaila blokeatzeko, beste pertsona batzuk zure gailura sartzea eragotziko duzu, eta zure informazio pertsonala babestu dezakezu. Pantaila blokeatzeko modua ezarri ondoren, desblokeatze-kodea behar da gailua desblokeatzeko.

- **Irristatu:** irristatu hatza pantailan edozein norabidetan, desblokeatzeko.
- **Diseinua:** marraztu patroi bat lau punturekin edo gehiagorekin, pantaila desblokeatzeko.
- **PINa:** idatzi gutxienez lau zenbaki dituen PIN bat, pantaila desblokeatzeko.
- **Pasahitza:** idatzi gutxienez lau karaktere, zenbaki edo ikur dituen pasahitz bat, pantaila desblokeatzeko.
- **Batere ez:** ez konfiguratu pantaila blokeatzeko modurik.
- **Eskaneatze adimenduna:** erregistratu zure aurpegia eta irisa gailuan pantaila erosoago desblokeatzeko. Informazio gehiago eskuratzeko, ikusi [Eskaneatze adimenduna](#).
- **Aurpegia:** erregistratu zure aurpegia pantaila desblokeatzeko. Informazio gehiago eskuratzeko, kontsultatu [Aurpegia ezagutzea](#).
- **Irisak:** erregistratu zure irisa pantaila desblokeatzeko. Ikusi [Irisa ezagutzea](#) atala, informazio gehiago lortzeko.
- **Hatz markak:** erregistratu zure hatz-markak, pantaila desblokeatzeko. Ikusi [Hatz-markak ezagutzea](#) atala, informazio gehiago lortzeko.



Gailua konfiguratu dezakezu desblokeatzeko kodea zenbait aldiz segidan gaizki sartu eta saiakera-kopuru jakin bat gaindituz gero gailuan fabrikako datuak berrezartzeko moduan. Ireki **Ezarpenak** aplikazioa, sakatu **Pan. Blokeo eta segurtas** → **Pantaila blokeo mota**, desblokeatu pantaila horretarako aukeratutako moduarekin, eta, ondoren, sakatu **Fabrikako ezarp. auto. berrezartzea** etengailua, aktibatzeke.

Pantaila-argazkia hartzea

Gailua erabiltzen ari zaren bitartean pantaila-argazkia atera dezakezu, eta gainean idatzi, gainean marraztu, moztu edo partekatu egin dezakezu. Uneko pantailaren eta eremu mugigarriaren argazkia atera dezakezu.

Pantaila-argazki bat egitea

Pantaila-argazkiak egiteko modu hauek dituzu. Pantaila argazkiak Galerian gordetzen da.

- Teklekin pantaila-argazki bat egitea: luze sakatu bolumena igotzeko eta pizteko/itzaltzeko tekla aldi berean.
- Desplazamendu bidez pantaila-argazki bat egitea: eskua pantailan ezkerrera eta eskuinera irristatu.



- Zenbait aplikazio eta funtzio erabiltzen ari zaren bitartean ezin da egin pantaila-argazkirik.
- Desplazamendu bidez pantaila-argazkia egiteko aukera ez badago aktibatuta, ireki **Ezarpenak** aplikazioa, sakatu **Eginbide aurreratuak**, eta, ondoren, irristatu **Irristatu esku-azpia kapturatzeko** etengailua, hura aktibatzeko.

Pantaila-argazki bat atera ondoren, pantailaren beheko tresna-barrako aukera hauek erabil ditzakezu:



- **Bixby Vision:** edukia ezagutzen du Bixby Vision-en bidez, eta informazio garrantzitsua bilatzen.
- **Korritze kaptura:** uneko edukiaren eta orri zabaldu batean (adibidez, webgune bat) ezkutuan dagoen edukiaren pantaila-argazkia egiteko. **Korritze kaptura** sakatuz gero, pantaila automatikoki mugituko da behera eta eduki gehiago hartuko du.
- **Marraztu:** pantaila-argazkian idatzi edo marrazteko.
- **Moztu:** egindako pantaila-argazkiaren zati bat moztu dezakezu. Moztutako eremua galerian gordeko da.
- **Partekatu:** pantaila-argazkia beste pertsona batzuekin partekatu dezakezu.




- Pantaila-argazkian ez badira aukerak bistaratzen, ireki **Ezarpenak** aplikazioa, sakatu **Eginbide aurreratuak**, eta, ondoren, irristatu **Kaptura osoa** etengailua, hura aktibatzeko.

Jakinarazpen-panela


Jakinarazpenak jasotzen dituzunean (mezuak edota dei galduak), ikonoak bistaratuko zaizkizu egoera-barran. Ikonoei buruzko informazio gehiago ikusteko, ireki jakinarazpen-panela, eta ikusi xehetasunak.

Jakinarazpen-panela irekitzeko, irristatu behera egoera-barra. Ixteko, irristatu pantaila gorantz.




Pantaila blokeatuta dagoenean ere ireki dezakezu jakinarazpen-panela.

Jakinarazpen-panelean, funtzio hauek erabili ahal izango dituzu.



Doikuntza azkarreko botoien erabilera

Sakatu doikuntza azkarreko botoiak, funtzio batzuk aktibatzen. Mugitu hatza jakinarazpen-panelean gorantz botoi gehiago ikusteko.



Funtzioen doikuntzak aldatzeko, sakatu botoi bakoitzaren azpian dagoen testua. Doikuntza zehatzagoak ikusteko, luze sakatu botoi bat.

Botoiak berrantolatzeko, sakatu  → **Botoien ordena**, luze sakatu botoi bat, eta, ondoren, eraman beste kokaleku batera.


Testua idaztea

Teklatuaren kokapena


Mezuak bidaltzeko, oharrak sortzeko edo beste aukeraren baterako testua idazteko, teklatura bistaratuko da automatikoki.



- Teklatura irekitzen duzun lehen aldian hura konfiguratzeko pantaila bistaratuko da. Konfiguratu testua idazteko hizkuntza, teklatu-mota eta ezarpenak, eta, ondoren, sakatu **HASI**.
- Testua ahoz sartzeko moduak ez du funtzionatzen hizkuntza batzuetan. Testua sartzeko, bateragarria den hizkuntzetako batera aldatu behar duzu idazteko hizkuntza.



Sarrerako hizkuntza aldatzea


Sakatu  → **Hizkuntzak eta motak** → **KUD. IDAZKETA HIZKUNTZAK** eta, gero, aukeratu erabili nahi dituzun hizkuntzak. Bi hizkuntza edo gehiago aukeratzen badituzu, idazteko hizkuntza alda dezakezu, zuriune-barra ezkerrean edo eskuinera eramanda.

Teklatua aldatzea






Sakatu  teklatua aldatzeko.

Teklatu-mota aldatzeko, sakatu  → **Hizkuntzak eta motak**, hautatu lehenengo hizkuntza, eta, ondoren, nahi duzun teklatu-mota.









- Baldin eta  teklatua agertzen ez bada nabigazio-barran, ireki **Ezarpenak** aplikazioa, sakatu **Kudeaketa orokorra** → **Hizkuntza eta idazketa** eta, ondoren, sakatu **Erakutsi Teklatua botoia** etengailua hura aktibatzeko.
- **3x4 teklatuan**, tekla bakoitzak hiru edo lau karaktere ditu. Karaktere bat sartzeko, sakatu tekla behin baino gehiagotan, nahi duzun karakterea bistaratu arte.

Teklatuaren funtzio gehigarriak



- : hitzak aurratsen ditu, idatzi ahala, eta hitzak proposatzen ditu. Teklatuaren funtzioen zerrendara itzultzeko, sakatu .
- : aurpegierak txertatzeko.
- : sticker-ak txertatzeko. **Nire emoji** aukera erabilita, zure antza duten stickerrak ere sar ditzakezu. Informazio gehiago eskuratzeko, kontsultatu [Nire emoji](#).
- : GIF animatuak eransteko.



Baliteke funtzio hori erabilgarri ez egotea, zure herrialdearen edo zerbitzu-hornitzailearen arabera.





- : testua ahots bidez idazteko.
- : teklatuaren doikuntzak aldatzeko.
-  → : arbeleko elementu bat gehitzeko.
-  → : teklatua aldatzeko esku bakarrarekin erabiltzeko modua aktibatzeko.

Kopiatzea eta itsastea

- 1 Luze sakatu testu bat.
- 2 Mugitu  edo , nahi duzun testua aukeratzeko, edo ukitu **Hautatu den.**, testu osoa aukeratzeko.
- 3 Sakatu **Kopiatu** edo **Moztu**.
Hautatutako testua arbelean gordetzen da automatikoki.
- 4 Luze sakatu testua sartu nahi duzun lekua, eta sakatu **Itsatsi**.
Aurrez kopiatutako testua itsasteko, sakatu Arbela, eta aukeratu testua.

Hiztegia

Hitzen definizioak bila ditzakezu zenbait funtzio erabiltzen dituzun bitartean, hala nola webguneak arakatzea.

- 1 Luze sakatu bilatu nahi duzun hitza.
Hitz hori hautatzen ez bada, mugitu  edo  zuk nahi duzun testua hautatzeko.
- 2 Sakatu **Gehiago** → **Hiztegia** aukeren zerrendan.
Hiztegi bat gailuan alde aurretik instalatua ez badago, sakatu **Move to Manage dictionaries** →  (hiztegiaren ondoan), deskargatzeko.
- 3 Ikusi definizioa hiztegiaren leiho gainerakorrean.
Pantaila osoko ikuspegira aldatzeko, sakatu . Sakatu pantailako definizioa, definizio gehiago ikusteko. Ikuspegi xehatuan, sakatu ★ hitza hitz gogokoen zerrendara gehitzeko, edo WEBGUNEAN BILATU hitza bilaketa-termino gisa erabiltzeko.

Aplikazioak eta funtzioak

Aplikazioak instalatzea edo desinstalatzea

Galaxy Apps

Aplikazioak erosi eta deskargatu ditzakezu. Samsung Galaxy gailuetarako diseinatutako aplikazioak deskargatu ditzakezu.

Ireki Samsung karpeta, eta abiarazi Galaxy Apps aplikazioa.



Baliteke aplikazio hori erabilgarri ez egotea, herrialdearen edo zerbitzu-hornitzailearen arabera.

Aplikazioak instalatzea

Bilatu aplikazioak kategoriaren arabera, edo ukitu bilaketa-eremua, hitz gakoak erabilia bilatzeko.

Aukeratu aplikazio bat, hari buruzko informazioa ikusteko. Doako aplikazioak deskargatzeko, sakatu **INSTALATU**. Ordaintzeko aplikazioak erosteko eta deskargatzeko, sakatu prezioa, eta bete pantailako jarraibideak.



Automatikoki eguneratzeko doikuntza aldatzeko, sakatu (...) → **Ezarpenak** → **Eguneratu aplikazioak automatikoki**, eta, ondoren, hautatu aukera bat.

Play Store

Aplikazioak erosi eta deskargatu ditzakezu.


Ireki Play Store aplikazioa.

Aplikazioak instalatzea

Bilatu aplikazioak kategoriaren arabera, edo gako-hitzen arabera.

Aukeratu aplikazio bat, hari buruzko informazioa ikusteko. Doako aplikazioak deskargatzeko, sakatu **INSTALATU**. Ordaintzeko aplikazioak erosteko eta deskargatzeko, sakatu prezioa, eta bete pantailako jarraibideak.



Automatikoki eguneratzeko doikuntza aldatzeko, sakatu  → **Ezarpenak** → **Eguneratu aplikazioak automatikoki**, eta, gero, hautatu aukera bat.

Aplikazioak kudeatzea

Aplikazioak desinstalatzea edo desaktibatzea

Luze sakatu aplikazio bat, eta hautatu aukera bat:

- **Desgaitu:** gailuan desinstalatu ezin diren hautatutako zenbait aplikazio lehenetsi desaktibatzeko.
- **Desinstalatu:** deskargatutako aplikazioak desinstalatzeko.

Aplikazioak aktibatzea

Ireki **Ezarpenak**, Sakatu **Aplikazioak** → ▼ → Desgaituta, hautatu aplikazio bat, eta, ondoren, sakatu **GAITU**.

Aplikazioen baimenak konfiguratzeko

Aplikazio batzuek ondo funtziona dezaten, baliteke baimenak behar izatea zure gailuko informazioa erabiltzeko edo ikusteko. Aplikazio batzuk irekitzean, leiho gainerakorrak ager daitezke funtzio edo datu jakin batzuetara sartzeko eskatzeko. Sakatu BAIMENDU leiho gainerakorrean, aplikazioari baimena emateko.

Mugikorrean dituzun aplikazioaren baimenen ezarpenak ikusteko, ireki **Ezarpenak** eta sakatu **Aplikazioak**. Hautatu aplikazio bat, eta sakatu Baimenak. Aplikazioen baimenen zerrenda ikus dezakezu, eta baimenak aldatu.

Aplikazioen baimenen doikuntzak ikusteko edo aldatzeko, baimen-mailaren arabera, ireki **Ezarpenak** eta sakatu **Aplikazioak** → ⋮ → **Baimenak**. Baimenak emateko, hautatu elementu bat, eta sakatu aplikazioen ondoan dauden etengailuak.



Aplikazioei baimenak ematen ez badizkiezu, baliteke aplikazio horien oinarrizko funtzioak behar bezala ez ibiltzea.

Bixby

Sarrera


Bixby interfaze berria zurekin komunika daiteke, eta smartphonea erosoago erabil dezazun laguntzen dizuten zerbitzuak eskaintzen dizkizu.

- **Bixby Home:** Bixby-k zure erabilera-ereduak eta errutina azertu ondoren eskaintzen dizkizun informazioa eta zerbitzu pertsonalizatuak kontsultatu ditzakezu.
- **Bixby Vision:** Bixby Visionen funtzioak erabiliz, erraz bilatu dezakezu objektuei edo lekuei buruzko informazio garrantzitsua.
- **Reminder:** gogorarazpenak sortzeko, egin beharreko zereginak programatzeko edo edukiak aurrerago ikusteko.



- Bixby funtzioa erabili ahal izateko, gailua Wi-Fi sare batera edo sare mugikor batera konektatuta eduki behar duzu.
- Bixby funtzioa erabiltzen hasteko, Samsung account-en erregistratuta egon behar duzu, eta saioa hasi.

Sakatu Bixby botoia Bixby Home irekitzeko. Ixteko, sakatu berriro botoia



Eskuragarri dauden Bixby aukerak aldatu egin daitezke lurraldearen edo zerbitzu-hornitzailearen arabera.


Bixby Home

Bixby Home-ren pantailan, Bixby-k zure erabilera-ereduak eta errutina azertu ondoren ematen dizkizun informazioa eta zerbitzu gomendatuak ikus ditzakezu.

Bixby Home irekitzea

1 Sakatu Bixby botoia. Hatza ere irrista dezakezu eskuinerantz hasierako pantailan pantailan. Bixby Home-ren pantaila agertuko da.

2 Irristatu hatza gorantz edo beherantz, gomendatutako edukia ikusteko.



3 Bixby Home ixteko, sakatu berriro Bixby botoia. Hatza ere irrista dezakezu ezkerrerantz pantailan.

Gomendatutako edukia erabiltzea Bixby Home-n.





Bixby Home irekitzen duzunean, Bixby-ren txarteletan sarrien eguneratzen duzun edukia ikus dezakezu. Haiek ikusteko, irristatu hatza gorantz edo beherantz.

Adibidez, goizean bulegora zoazela, eguneko agenda ikus dezakezu eta zure gogoko abestiak erreproduzitu Bixby Home pantailan. Arratsaldean, alarmak ikusi ditzakezu, zure eguneroko jarduera berrikusi, eta zure lagunen iruzkinak ikusi.



Txartelen edukia eta ordena automatikoki eguneratzen dira, denbora-tarte jakinetan. Txartelak eskuz eguneratzeko, irristatu pantaila beherantz.

Bixby-ren txartelen zerrenda editatu


- Txartel bat **Bixby Home** pantailaren goialdean ainguratzeko, sakatu  → **Ainguratu goian**. Ainguraketa kentzeko, sakatu  → **Desenganchar**.
- Txartel bat zerrendatik ezkutatzeko, sakatu  → **Ezkutatu oraingoz**.
- Zerrendatik txartel bat kentzeko, sakatu  → **Ez erakutsi berriz**.

Aplikazioak hautatzea Bixby-ren txartel gisa erakusteko

Gehitu edo ezabatu Bixby Home pantailan txartel gisa erakustea nahi duzun aplikazioak.

Bixby Home pantailan, sakatu  → **Ezarpenak** → **Aplikazioak**, eta sakatu elementuen ondoan dauden etengailuak haiek gehitzeko edo ezabatzeko.




Aplikazio bat ez badago instalatuta gailuan, instalatu egin beharko duzu erabili ahal izateko. Bixby Home pantailan, sakatu  → **Ezarpenak** → **Aplikazioak** eta, ondoren, deskargatu aplikazio bat.

Bixby Vision

Bixby Vision zerbitzu bat da, antzeko irudiei, kokapenei, itzulitako testuei eta QR kodeei buruzko informazioa ematen dizuna. Bixby Vision-ek bizkor eta modu intuitiboan ezagutzen ditu objektuak, bai eta zure izena ezagutzen ez badu ere.



Erabili Bixby Vision-en funtzio hauek.



- Funtzio hori erabiltzeko, gailuak WiFi sare batera edo sare mugikor batera konektatuta egon behar du.
- Halaber, Samsung account-en izena eman eta saioa hasi behar duzu.
- Eskura dauden funtzioak eta bilaketa-emaitzak desberdinak izan daitezke eskualdearen edo zerbitzu-hornitzailearen arabera.
- Irudi-bereizmenaren, -tamainaren edo -formatuaren arabera, baliteke funtzio hau eskura ez egotea edo bilaketa-emaitza zuzenak ez ematea.
- Samsung ez da Bixby Vision-ek produktuei buruz ematen duen informazioaren erantzule.

Bixby Vision abiarazi

1 Abiarazi Bixby Vision, metodo hauetako bat erabilia.

- **Kamera** aplikazioan, hautatu **AUTO** modua eta sakatu .
- Galeria aplikazioan, hautatu irudi bat eta sakatu .
- Internet aplikazioan, luze sakatu irudi bat eta sakatu Bixby Vision.
- Kapturatu pantaila, eta hautatu Bixby Vision tresna-barran.
- Pantaila nagusian Bixby Vision-en ikonoa erantsi baduzu, ireki aplikazioa hemendik.

2 Hautatu nahi duzun funtzioa.

3 Luze sakatu objektua pantailan, hura ezagutzeko.

Objektua ezagutzen duenean, bilaketaren emaitzak agertuko dira pantailan.


Informazio gehiago ikusteko, sakatu funtzioaren ikonoa edo hautatu bilaketaren emaitza.

Testua itzultzea edo erauztea


Itzulitako testua ezagutzen du, eta pantailan bistaratzen. Horrez gain, testua erazi dezake dokumentu batetik edo testu-fitxategi batetik.

Esaterako, jakin nahi baduzu zer esan nahi duen idazkun batek beste hizkuntza batean, erabili Bixby Vision-en funtzioak. Gailuak idazkuneko testua itzuliko du hautatzen duzun hizkuntzara.

1 Nahi duzun irudia edo objektua duzunean, ireki Bixby Vision.

2 Hautatu  eta eduki testua pantailan hura ezagutzeko.



Itzulitako testua pantailan agertuko da.

- Testua erauzteko, sakatu . Erauzitako testua partekatu edo gorde egin dezakezu.
- Jatorrizko edo helburuko hizkuntza aldatzeko, sakatu hizkuntzaren ezarpenen panela pantailaren goiko aldean.

Antzeko irudiak bilatzea

Bilatu sarean antzemandako objektuaren antzeko irudiak. Objektuaren antzeko ezaugarriak (kolorea, itxura...) dituzten zenbait irudi ikusiko dituzu.


Esaterako, argazki edo irudi baten izenburua jakin nahi baduzu, erabili Bixby Vision-en funtzioak. Horri lotutako informazioa edo antzeko ezaugarriak dituzten irudiak bilatu eta erakutsiko ditu gailuak.

- 1 Nahi duzun irudia edo objektua duzunean, ireki Bixby Vision.
- 2 Hautatu  eta eduki objektua pantailan hura ezagutzeko.
- 3 Sakatu  edo hautatu bilaketako emaitzaren bat pantailan.
Antzeko irudiak agertuko dira.

Hurbileko lekuak bilatzea


Bilatu erreferentziatzko tokia edo gertuko tokiei buruzko informazioa, zure uneko kokapena ezagutzean.

Esaterako, zauden lekutik hurbil dauden kafetegiak bilatu nahi badituzu, erabili Bixby Vision-en funtzioak. Gailuak bilaketa bat egingo du, eta hurbileko kafetegiak erakutsiko dizkizu.

- 1 Nahi duzun erreferentziatzko lekua duzunean, ireki Bixby Vision.
- 2 Hautatu  eta eduki toki ezaguna edo beste mota bateko toki bat pantailan hura ezagutzeko.
Gertuko tokiei buruzko oinarritzko informazioa ikus dezakezu.
Gailua mugitzen duzunean, kamerak fokuratzen duen norabidean dauden hurbileko lekuak agertuko dira pantailan.





Bixby Vision kamerarekin erabiltzen ari bazara, zure uneko kokapena eta eguraldiari buruzko informazioa ikus dezakezu. Mapan zure uneko kokapena ikusteko, jarri kamera lurrera begira. Uneko eguraldiari buruzko informazioa ikusteko, jarri kamera zerura begira.

- 3 Sakatu  edo hautatu bilaketako emaitzaren bat pantailan.
Gailuak hurbileko lekuen informazioa erakutsiko du.

Ardoi buruzko informazioa bilatzea


Hauteman ardo-botila baten etiketako informazioa, eta bilatu ardo horri buruzko informazioa.

Esaterako, zure ardorik gogokoena aurkitzen baduzu, edo ardo bati buruz informazio gehiago lortu nahi baduzu, erabili Bixby Vision-en funtzioak.

- 1 Nahi duzun irudia edo objektua duzunean, ireki Bixby Vision.
- 2 Hautatu  eta eduki ardoaren etiketa pantailan hura ezagutzeko.
- 3 Sakatu  edo hautatu bilaketako emaitzaren bat pantailan.
Ardo-botilaren etiketari buruzko informazioa agertuko da.

QR kodeak irakurtzea

Ezagutu itzazu QR kodeak, eta bistaratu horietako informazioa (webguneak, argazkiak, bideoak, mapak eta bisita-txartelak).

- 1 Nahi duzun irudia edo objektua duzunean, ireki Bixby Vision.
- 2 Hautatu  eta eduki QR kodea pantailan hura ezagutzeko.
QR kodeari lotutako informazioa agertuko da.

Reminder

Ohartarazpenak sortzeko, egin beharreko zereginak programatzeko edo edukiak aurrerago ikusteko bali du. Jakinarazpenak jasoko dituzu ohartarazpen bakoitzerako ezarritako orduan edo lekuan.



- Jakinarazpen zehatzagoak jasotzeko, konektatu gailua WiFi sare batera edo sare mugikor batera.
- Funtzio hau osorik erabiltzeko, Samsung account-en erregistratu behar duzu, eta saioa hasi.
- Lekuetao gogorarazpenak erabiltzeko, GPS funtzioak aktibatuta egon behar du.

Reminder abiaraztea


Bixby Home-tik abiaraz dezakezu Reminder.

1 Sakatu Bixby botoia. Hatza ere irrista dezakezu eskuinerantz hasierako pantailan pantailan.

Bixby Home-ren pantaila agertuko da.


2 DATOZEN ABISUAK txartelean, sakatu **HASI**.

Reminder-eko sarrera-orria agertuko da.



Erantsi aplikazioaren ikonoa pantaila nagusian.

3 Sakatu **HASI**.

Nagusi pantailan ikonoa gehitu aukera markatuta badago, ireki **Reminder**  aplikazioa pantaila nagusian.

Ohartarazpenak sortzea

Zenbait modutara sortu ditzakezu ohartarazpenak. Reminder aplikazioak ohartarazi egingo dizu ohartarazpen bat sortzean ordua eta lekua zehazten badituzu. Eduki desberdina ere gorde dezakezu, hala nola ohar bat edo webgune baten helbidea, eta geroago ikusi.


Adibidez, sortu gogorarazpen bat ez ahazteko landareak ureztatu behar dituzula etxera iristen zarenean.

1 Ireki **Reminder** aplikazioa.

2 Sakatu **Idatzi abisua**, eta idatzi "Landareak ureztatu".

3 Sakatu **Ezarri baldintzak** → **Aukeratu toki bat** eta ezarri etxearen kokapena.

4 Sakatu **HONA IRISTEAN** → **EGINA**.




5 Sakatu **GORDE** ohartarazpena gordetzeko.

Etxera iristen zarenean, "Landareak ureztatzea" mezua agertuko zaizu.

Ohartarazpenen jakinarazpenak egiaztatzea

Aldez aurretik ezarritako orduan edo lekuan, jakinarazpenen laster-leiho bat agertuko da. Sakatu **OSATU** edo **ALARMA ATZERATU**.



Ohartarazpenen zerrenda ikustea


Ireki **Reminder** aplikazioa, ohartarazpenen zerrenda ikusteko. Ohartarazpenen xehetasunak ikusteko, hautatu itzazu.



Ohartarazpenen xehetasunak konfiguratzeko

Gehitu edo editatu ohartarazpenen xehetasunak, hala nola maiztasuna, data eta ordua edo kokapena.

- 1 Hautatu ohartarazpen bat hura editatzeko, eta sakatu **EDITATU**. Halaber, hatza eskuinera irristatu dezakezu ohartarazpen baten gainean, eta **Editatu** sakatu.
- 2 Editatu baldintzak, eta sakatu **GORDE**.



Ohartarazpenak amaitzea

Markatu amaitutzat jada behar ez dituzun ohartarazpenak.

Ohartarazpenen zerrendan, hautatu haietako bat, eta sakatu **OSATU**. Bestela, hatza irrista dezakezu gogorazpenean ezkererantz.

Ohartarazpenak leheneratzea

Leheneratu amaituta dauden ohartarazpenak.


- 1 Ohartarazpenen zerrendan, sakatu **Osastuta** → **EDITATU**.
- 2 Markatu leheneratu nahi dituzun elementuak, eta sakatu **BERREZARRI**.

Elementu horiek ohartarazpenen zerrendan gehituko dira, eta haren ohartarazpena jasoko duzu aldez aurretik ezarritako unean.

Ohartarazpenak ezabatzea

Ohartarazpen bat ezabatzeko, arrastatu hatza eskuinerantz ohartarazpenaren gainean, eta sakatu Ezabatu. Ohartarazpen bat baino gehiago ezabatzeko, luze sakatu bat, markatu ezabatu nahi dituzun ohartarazpenak, eta sakatu EZABATU.

Bixbyren doikuntzak pertsonalizatzea

Bixby Home-ren pantailan, sakatu  → **Ezarpenak**.

- Samsung account: zure Samsung accounteko informazioa bistaratzeko.
- **BIXBY HOME-KO TXARTELAK**
 - **Aplikazioak:** Bixby Home pantailan txartel gisa bistaratzeko aplikazioak hautatzeko.
 - **Erakutsi Blokeo pantailan:** aplikazioak hautatzeko txartel gisa bistaratzeko Bixby Home pantaila blokeatuan irekitzen denean.
- **OROKORRA**
 - **Bixby tekla:** konfiguratu ea Bixby Home aukera ireki nahi duzun Bixby botoia sakatzen duzunean.
 - **Eguneratu Bixby automatikoki:** gailua konfiguratzeko Bixbyren softwarea automatikoki egunera dezan, bai eta zure sare mugikorra erabiltzen duzunean ere.



Baliteke gastu gehigarriak ordaindu behar izatea funtzio hau erabiltzeagatik.

- **Jakinarazpenak:** gailua konfiguratzeko jakinarazpenak jaso ditzan Bixby Homerren txartelei buruz, marketineko informazioari buruz eta abar.
- **Pribatutasuna:** gailua konfiguratzeko Bixbyren zerbitzu interaktibo eta pertsonalizatuak erabil ditzan zure esperientzia hobetzeko. Bixbyren interakzio-datuak ere ezabatu ditzakezu.
- **Bixby-ri buruz:** Bixbyren bertsioa eta lege-informazioa bistaratzeko.


Telefonia

Sarrera

Deitu edo erantzun ahots-deiei edo bideo-deiei.


Deitzea

1 Ireki Telefonia aplikazioa, eta sartu telefono-zenbaki bat.

Teklatua pantailan azaltzen ez bada, sakatu  teklatura irekitzeko.

2 Sakatu  ahots-dei bat egiteko, edo  bideo-dei bat egiteko.

Bi SIMeko modeloetan, sakatu  edo  ahots-dei bat egiteko.




Erregistro- edo kontaktu-zerrenda erabiliz deiak egitea

Sakatu AZKENAK edo KONTAKTUAK, eta, ondoren, arrastatu hatza eskuinerantz kontaktu edo telefono-zenbaki baten gainean, dei bat egiteko.

Funtzio hau desaktibatuta badago, ireki Ezarpenak aplikazioa, sakatu Eginbide aurreratuak, eta, ondoren, irristatu **Irris. Deit. Edo mez. bidaltzeko** etengailua, hura aktibatzeko.

Markaketa bizkorra erabiltzea


Konfiguratu markaketa bizkorreko zenbakiak, deiak bizkorrago egiteko.

Zenbaki bat markaketa bizkorreko zenbaki gisa konfiguratzeko, sakatu **KONTAKTUAK** →  → Markaketa azkarra, hautatu markaketa bizkorreko zenbaki bat, eta, ondoren, gehitu telefono-zenbaki bat.





Dei bat egiteko, luze sakatu markaketa bizkorreko zenbakietako bat zenbakizko teklatuan. 10etik aurreragoko markaketa bizkorreko zenbakiak sartu nahi badituzu, sakatu zenbakiaren lehenengo digituak, eta, gero, luze sakatu azken digitua.

Adibidez, **123** markaketa bizkorreko zenbaki gisa konfiguratzeko baduzu, sakatu **1**, sakatu **2** eta, ondoren, luze sakatu **3**.

Pantaila blokeatuta dagoela deitzea


Pantaila blokeatuta dagoela, mugitu  zirkulutik kanpora.

Nazioarteko dei bat egitea

- 1 Sakatu  teklatura irekitzeko, teklatura pantailan azaltzen ez bada. Luze sakatu 0, + ikurra bistaratu arte.
- 2 Idatzi herrialdeko kodea, area-kodea eta telefono-zenbakia; eta, ondoren, sakatu .
- 3 Bi SIMeko modeloen kasuan, idatzi herrialdeko kodea, area-kodea eta telefono-zenbakia; eta, ondoren, sakatu  edo .

Deiak jasotzea



Dei bati erantzutea

Dei bat jasotzen duzunean, arrastatu  zirkulu handitik kanpora.


Dei bat ez onartzea

Dei bat jasotzen duzunean, arrastatu  zirkulu handitik kanpora.


Jasotako dei bat ez onartzean mezu bat bidali nahi baduzu, irristatu gorantz **BIDALI MEZUA** barra. Testu-mezu bat edo sticker bat bidal dezakezu deia ez onartzeko. **Gehitu Reminder** hautatzen baduzu, ohar-tarazpen bat gordeko da handik ordubetera gogorarazteko dei bat ez duzula onartu.

Deia onartzen ez duzunerako mezu batzuk sortzeko, ireki **Telefonoa** aplikazioa, eta sakatu  → **Ezarpenak** → **Ukatu azkar mezuak**, idatzi mezu bat, eta, ondoren, sakatu .

Dei galduak

Dei galdu bat baduzu,  ikonoa bistaratuko da egoera-barran. Dei galduen zerrenda ikusteko, ireki jakinarazpen-panela. Halaber, Telefonoa aplikazioa ireki dezakezu, eta sakatu AZKENAK galdutako deiak ikusteko.

Telefono-zenbakiak blokeatzea

1 Blokea itzazu blokeatuen zerrendan dauden zenbakien deiak. Ireki **Telefonoa** aplikazioa, eta sakatu  → **Ezarpenak** → **Blokeatu zenbakiak**.

2 Sakatu  aukeratu kontaktuak, eta, gero, sakatu EGINDA.

Zenbaki bat eskuz sartzeko, sakatu **Adierazi tel. zenbakia**, idatzi telefono-zenbakia, eta, ondoren, sakatu .

Blokeatutako zenbakiak zurekin harremanetan jartzen saiatzen direnean, ez duzu jakinarazpenik jasoko. Deiak deien erregistroan agertzen dira.



Halaber, solaskidearen IDa erakusten ez duten pertsonen sarrerako deiak blokeatu ditzakezu. Sakatu Blokeatu dei anonimoak etengailua, funtzio hori aktibatzeko.



Hitz egiten ari zarela dituzun aukerak



Atzeko kameraren eta hatz-markak ezagutzeko sentsorearen ingurua estalita baldin badago, baliteke hitz egiten ari zaren bitartean zaratak entzutea. Kendu atzeko kameraren inguruan dauden osagarriak (pantaila-babesa edo itsasgarriak).



Ahots-dei bat martxan dagoenean

Aukera hauek dituzu:

- : aukera gehigarrietara sartzeko.
- **Gehitu deia:** bigarren dei bat markatzeko. Lehen deia zain geratuko da. Bigarren deia amaitzen duzunean, lehena jarriko da martxan berriro.
- **Bolumen osagarria:** bolumena igotzeko.
- **Bluetooth:** audioaren irteera bluetooth entzungailu batera aldatzeko, halakorik badago gailuari konektatuta.
- **Bozgor.:** bozgorailua aktibatzeke edo desaktibatzeke. Bozgorailu bat erabiltzen duzunean, urrundu gailua belarritik.
- **Isilarazi:** mikrofonoa desaktibatzeke, beste solaskideak ez diezazun entzun.
- **Teklatua:** teklatura irekitzeko edo ixteko.
- : uneko deia amaitzeko.


Bideo-dei bat martxan dela

Sakatu pantaila, aukera hauek erabiltzeko:

- : aukera gehigarrietara sartzeko.
- **Kamera:** kamera itzaltzeko, solaskideak ikus ez zaitzan.
- **Aldatu:** aurreko kameraren eta atzekoaren artean aldatzeko.
- : uneko deia amaitzeko.
- **Isilarazi:** mikrofonoa desaktibatzeke, beste solaskideak ez diezazun entzun.
- **Bozgor.:** bozgorailua aktibatzeke edo desaktibatzeke. Bozgorailu bat erabiltzen duzunean, urrundu gailua belarritik.

Telefono-zenbaki bat kontaktuetan gordetzea

Telefono-zenbaki bat kontaktuetan gordetzea teklatura erabilia

- 1 Ireki Telefonoa aplikazioa.
- 2 Sartu zenbakia.
Teklatura pantailan azaltzen ez bada, sakatu  teklatura irekitzeko.
- 3 Sakatu **KONTAKTUA SORTU** kontaktu berri bat sortzeko, edo sakatu **EGUNERATU LEHENG.** datu berri bat lehendik dagoen kontaktu bati eransteko.

Telefono-zenbaki bat kontaktuetan gordetzea dei-zerrenda erabilia

- 1 Ireki Telefonoa aplikazioa eta sakatu **AZKENAK**.
- 2 Sakatu solaskide baten argazkia, edo sakatu telefono-zenbaki bat → **Info**.
- 3 Sakatu **Kontaktua sortu** kontaktu berri bat sortzeko, edo sakatu **Eguneratu leheng.** datu berri bat lehendik dagoen kontaktu bati eransteko.

Etiketa bat gehitzea telefono-zenbaki bati

Zenbakiei etiketak jar diezazkiekezu, Kontaktuetan gorde beharrik gabe. Hartara, solaskideari buruzko informazioa ikus dezakezu deitzen dizunean, Kontaktuetan gordeta ez badago ere.

- 1 Ireki **Telefonoa** aplikazioa eta sakatu **AZKENAK**.
- 2 Sakatu telefono-zenbaki bat → **Info**.
- 3 Sakatu **Gehitu etiketa**, idatzi etiketa bat, eta, gero, sakatu **EGINA**.

Zenbaki horretatik dei bat jasotzen duzunean, etiketa agertuko da zenbaki horren azpian.


Kontaktuak

Sarrera


Sortu kontaktu berriak, edo kudea itzazu gailuan.

Kontaktuak gehitzea

Kontaktu berria sortzea

1 Ireki Kontaktuak aplikazioa, sakatu  eta, ondoren, hautatu biltegitzeko kokaleku bat.

2 Idatzi kontaktuaren informazioa.




Gorde daitezkeen informazio-motak aldatu egin daitezke gordetzeko hautatutako kokapenaren arabera.

3 Sakatu **GORDE**.

Kontaktuak inportatzea


Zure gailuko beste toki batzuetatik inportatu ditzakezu kontaktuak.

- 1 Ireki Kontaktuak aplikazioa eta sakatu  → **Kudeatu kontaktuak** → **Inportatu/esportatu kontaktuak** → **INPORTATU**.
- 2 Hautatu nondik inportatu nahi dituzun kontaktuak.
- 3 Markatu inportatu nahi dituzun kontaktuak edo VCF fitxategiak, eta sakatu **EGINA**.
- 4 Hautatu non gorde nahi dituzun kontaktuak eta sakatu **INPORTATU**.

Kontaktuak web-kontuetakoekin sinkronizatzea

Sinkronizatu gailuko kontaktuak web-eko kontuetan (adibidez, Samsung account-en) gordeta dituzun kontaktuekin.

- 1 Ireki **Ezarpenak** aplikazioa, sakatu **Hodeia eta kontuak** → **Kontuak**, eta hautatu sinkronizatu nahi duzun kontua.
- 2 Sakatu **Sinkronizatu kontua** eta arrastatu **Sinkronizatu kontaktuak** etengailua, aktibatzeko.

Samsung account-entzat, sakatu  → **Sinkronizazio ezarpenak**, eta sakatu **Kontaktuak** etengailua, hura aktibatzeko.

Kontaktuak bilatzea

Ireki **Kontaktuak** aplikazioa.

Erabili modu hauetako bat bilatzeko:


- Irristatu pantaila gora edo behera kontaktuen zerrendan.
- Arrastatu hatz bat kontaktu-zerrendaren eskuinean dagoen aurkibidean, zerrendan barrena azkar mugitzeko.
- Sakatu bilaketa-eremua (kontaktu-zerrendaren goiko aldean dago), eta sartu bilaketa-irizpideak.

Sakatu kontaktuaren argazkia, edo sakatu kontaktuaren izena → Info. Gero, egin eragiketa hauetako bat:

- ★ : kontaktua gogokoetara eransteko.
- 📞 / 📺 : ahots-dei bat edo bideo-dei bat egiteko.
- 💬 : mezu bat idazteko.
- ✉ : mezu elektronikoa bat ezabatu.

Kontaktuak partekatzea

Kontaktuak beste pertsona batzuekin partekatzeko aukera ugari daude.


- 1 Ireki Kontaktuak aplikazioa eta sakatu  → Partekatu.
- 2 Hautatu kontaktuak, eta sakatu PARTEKATU.
- 3 Hautatu partekatzeko metodo bat.

Profil bat gordetzea eta partekatzea

Gorde eta partekatu zure profileko informazioa —hala nola argazkia eta egoera-mezua— profila partekatzeko funtzioa erabiltzen duten beste erabiltzaile batzuekin.



- Baliteke profila partekatzeko funtzioa erabilgarri ez egotea, herrialdearen edo zerbitzu-hornitzailearen arabera.
- Gailuan profila partekatzeko funtzioa aktibatua duten kontaktuek bakarrik dute erabilgarri funtzio hori.

- 1 Ireki Kontaktuak aplikazioa, eta hautatu profil bat. Sakatu **EDITATU**, editatu zure profila eta sakatu **GORDE**.
- 2 Sakatu  → **Profila partekatzea**, eta, ondoren, irristatu etengailua, aktibatzeko.
- 3 Profila partekatzeko funtzioa erabiltzeko, haren telefono-zenbakia egiaztatu beharko duzu.
Zure kontaktuen profilari buruzko informazio eguneratua Kontaktuak-en kontsultatu dezakezu.
Zure profila zer kontaktu-motarekin partekatu nahi duzun aldatzeko, sakatu **Partekatu honekin**, hautatu partekatu nahi duzun elementua, eta, ondoren, hautatu aukera bat.


Taldeak sortzea

Taldeak sor ditzakezu (adibidez, familia edo lagunak), eta kontaktuak taldeka kudeatu. Ireki **Kontaktuak** aplikazioa, eta sakatu **Taldeak** → **SORTU**.

- 1 Idatzi taldearen izena.
- 2 Taldeari doinu bat esleitzeko, sakatu Talde dei tonua eta hautatu doinua.
- 3 Sakatu **Gehitu kidea**, hautatu taldean sartu nahi dituzun kontaktuak, eta, ondoren, sakatu **EGINDA**.
- 4 Sakatu **GORDE**.

Taldeko mezuak bidaltzea

Talde bateko kideei mezu bera bidaltzeko aukera duzu.


Ireki **Kontaktuak** aplikazioa, sakatu **TALDEAK**, hautatu talde bat, eta, ondoren, sakatu  → **Bidali mezua**.


Nola fusionatu kontaktu bikoiztuak

Kontaktuak beste toki batzuetatik inportatzen badituzu edo beste kontu batzuetako kontaktuekin sinkronizatzen badituzu, kontaktu batzuk bikoiztuta egon daitezke zure zerrendan. Bikoiztutako kontaktuak bakarrean fusiona ditzakezu, kontaktuen zerrenda optimizatzeke.

- 1 Ireki Kontaktuak aplikazioa eta sakatu  → **Kudeatu kontaktuak** → Bateratu kontaktuak.
- 2 Hautatu kontaktuak, eta sakatu **BATERATU**.

Kontaktuak ezabatzea

- 1 Ireki Kontaktuak aplikazioa eta sakatu  → Ezabatu.
- 2 Hautatu kontaktuak, eta sakatu **EZABATU**.

Banaka ezabatzeko, ireki zerrenda, eta sakatu kontaktuaren argazkia edo izena → Info. Ondoren, sakatu  → Ezabatu.

Mezuak


Sarrera


Mezuak bidaltzea eta elkarrizketen arabera ikustea.


Mezuak bidaltzea






Litekeena da atzerrian zaudenean mezuak bidaltzeagatik kargu osagarriak izatea.

- 1 Ireki Mezuak aplikazioa eta sakatu .
- 2 Gehitu hartzaileak, eta sakatu **HASI**.
- 3 Mezua idazteko.



Ahots-mezu bat grabatzeko edo bidaltzeko, luze sakatu , esan mezua, eta askatu hatza. Grabazioaren ikonoa bakarrik bistaratuko da teklatura ezkutuan dagoenean.



- 4 Sakatu  mezua bidaltzeko.
Bi SIMeko modeloetan, sakatu  edo  mezua bidaltzeko.



Mi emoji aukerako stickerrak bidaltzea

Mi emoji aukera erabilita zure antza duten stickerrak ere bidal ditzakezu mezu bidez.

Mezu bat idatzi bitartean, sakatu  edo  Samsungen teklatuan, sakatu zure emojiaren ikonoa. Mi emoji aukerako stickerrak agertuko dira. Hautatu partekatu nahi duzun sticker -a.



Sticker horiek agertuko dira zure emojiia sortzen duzunean **Kamera** aplikazioan. Informazio gehiago eskuratzeko, kontsultatu [Nire emojiia](#).



Mezuak ikustea




Kontaktuen arabera ordenatutako kateetan sailkatzen dira mezuak.



Litekeena da atzerrian zaudenean mezuak jasotzeagatik kargu osagarriak izatea.

- 1 Ireki **Mezuak** aplikazioa, eta sakatu **HIZKETALDIAK**.
- 2 Hautatu kontaktu bat mezuen zerrendan.

3 Ikusi elkarrizketa.


Mezuari erantzuteko, sakatu, idatzi mezu bat, eta, ondoren, sakatu . Bi SIMeko modeloetan, sakatu  edo .

Nahi ez diren mezuak blokeatzea

Blokea itzazu blokeatuen zerrendan dauden zenbaki jakin batzuen mezuak.

1 Ireki Mezuak aplikazioa eta sakatu  → **Ezarpenak** → **Blokeatu zenbakiak eta mezuak** → **Blokeatu zenbakiak**.

2 Sakatu **SARRERAKO ONTZIA** eta hautatu kontaktu bat, edo sakatu **KONTAKTUAK**, hautatu nahi dituzun kontaktuak eta, ondoren, sakatu **EGINDA**.

Zenbaki bat eskuz sartzeko, sakatu **Adierazi zenbakia**, idatzi telefono-zenbakia, eta, ondoren, sakatu .

Mezuen jakinarazpena doitzea

Jakinarazpen-soinua, pantaila-aukerak eta beste aukera batzuk alda ditzakezu.

1 Ireki **Mezuak** aplikazioa, sakatu  → **Ezarpenak** → **Jakinarazpenak** eta, ondoren, irristatu etengailua aktibatzeke.

2 Aldatu jakinarazpenen doikuntzak.

Mezu-gogorazlea konfiguratzeko:

Alerta bat tarteka konfiguratu dezakezu, egiaztatu beharrik gabe jakinarazpenen berri eman diezazun. Funtzio hau aktibatuta ez baldin badago, ireki **Ezarpenak** aplikazioa, sakatu → **Erabilgarritasuna** → **Jakinarazpen gogorazlea** eta, ondoren, irristatu etengailua, aktibatzeke. Ondoren, aktibatu **Mezuak** etengailua.

Internet

Sarrera

Interneten nabigatu dezakezu informazioa bilatzeko eta gogoko dituzun webguneak markatu ditzakezu gogoko gisa, haietara erosotasunez sar zaitezenez.

Webguneetan nabigatzea


1 Ireki Samsung karpeta, eta abiarazi Internet aplikazioa.

2 Sakatu bilaketa-eremua.

3 Idatzi web-helbidea edo hitz gako bat, eta sakatu Joan.

Tresna-barrak ikusteko, arrastatu poliki hatza pantailan behera.

Fitxa batetik bestera bizkor joateko, irristatu hatza ezkerrera edo eskuinera, norabide-eremuan.



Ezkutuko modua erabiltzea

Ezkutuko moduan, irekitako fitxak, laster-markak eta gordetako orriak banaka kudeatu ditzakezu. Ezkutuko modua blokeatu dezakezu pasahitz bat eta zure hatz-marka edo irisa erabilita.

Ezkutuko modua aktibatzea


Pantailaren beheko aldean dagoen tresna-barran, sakatu Fitxak → GAITU M. SEKR. Funtzio hau lehen aldiz erabiltzen ari bazara, adierazi Ezkutuko modurako pasahitz bat erabili nahi duzun edo zure datu biometrikoak erabili nahi dituzun.



Ezkutuko moduan ezingo dituzu funtzio batzuk erabili; adibidez, pantaila-argazkia. Ezkutuko moduan, gailuak tresna-barran kolorea aldatuko du.

Segurtasun-doikuntzak aldatzea

Zure pasahitza edo blokeatzeko modua alda ditzakezu.

Sakatu  → Ezarpenak → Pribatutasuna → Modu sekretu segurtasuna → Aldatu pasahitza. Pasahitzarekin batera blokeatzeko modu gisa erregistratutako hatz-marka edo irisak konfiguratzeko, irristatu **Hatz-marka** edo **Iris** etengailua, funtzio hori aktibatzeko. Hatz-marken edo irisaren erabilerari buruzko informazio gehiago edukitzeko, ikusi [Hatz-markak ezagutzea](#) edo [Irisa ezagutzea](#) atala.

Ezkutuko modua desaktibatzea

Pantailaren beheko aldean dagoen tresna-barran, sakatu Fitxak → DESG. M. SEKR.




Posta elektronikoa

Posta elektronikoko kontuak konfiguratzeko


Posta elektronikoa lehen aldiz irekitzen duzunean, konfiguratu kontu bat.

- 1 Ireki Samsung karpeta, eta abiarazi Posta elektronikoa aplikazioa.
- 2 Idatzi helbide elektronikoa eta pasahitza, eta, ondoren, hautatu **SAIO HASIERA**.
Posta elektronikoko kontu bat eskuz erregistratzeko, sakatu **ESKUZKO KONFIG**.
- 3 Segitu pantailan agertuko diren jarraibideei konfigurazioa osatzeko.

Posta elektronikoko beste kontu bat konfiguratzeko, sakatu  →  → Gehitu kontua.

Posta elektronikoko kontu bat baino gehiago badituzu, haietako bat konfiguratu dezakezu kontu lehenetsi gisa. Sakatu  →  →  → Ezarri lehenetsitako kontua.

Mezu elektronikoen bidaltzea



- 1 Sakatu  mezu elektronikoa bat sortzeko.
- 2 Erantsi hartzaileak, eta osatu gaiaren lerroa eta mezua bera.
- 3 Sakatu **BIDALI** mezua bidaltzeko.

Mezu elektronikoen irakurtzea

Posta elektronikoa aplikazioa irekita dagoenean, mezu berriak automatikoki berreskuratuko ditu gailuak. Eskuz berreskuratuzeko, irristatu hatza beherantz mezu elektronikoen zerrendaren goiko aldetik.

Sakatu pantaila agertzen diren mezu elektronikoen bat, irakurtzeko.



Mezu elektronikoen sinkronizazioa desaktibatuta badago, ezingo dira berreskuratu mezu elektronikoen berriak. Sinkronizazioa aktibatuzeko, sakatu  →  → kontuaren izena eta, ondoren, irristatu **Sinkronizatu kontua etengailua**, aktibatuzeko.

Kamera

Sarrera


Atera argazkiak eta grabatu bideoak hainbat modu eta doikuntzarekin.

Kamera erabiltzeko arauak

- Ez egin inori argazkirik edo ez grabatu bideorik baimenik gabe.
- Ez egin argazkirik eta ez grabatu bideorik legez debekatuta dagoen lekuetan.
- Ez egin argazkirik eta ez grabatu bideorik inoren pribatutasunari eragin diezaiokezun lekuetan.

Kamera abiarazteko

Erabili metodo hauetako bat kamera irekitzeko:



- Ireki Kamera aplikazioa.
- Sakatu Pizteko botoia, bizkor, bi aldiz.
- Pantaila blokeatuta dagoela, mugitu  zirkulutik kanpora.









- Baliteke funtzio batzuk erabilgarri ez egotea, zure herrialdearen edo zerbitzu-hornitzailearen arabera.
- Kameraren funtzio batzuk ez dira egoten erabilgarri **kamera** aplikazioa blokeo-pantailatik abiaraztean edo pantaila itzaltzean, blokeo modua aktibatuta dagoen bitartean.
- Argazkiak lausotuta ateratzen badira, garbitu kameraren lentea eta saiatu berriro.

Oinarrizko argazki-ateratzea

Argazkiak ateratzea edo bideoak grabatzea

- 1 Aurrebistako pantailan, sakatu kamerarekin fokuratu nahi duzun irudia.
- 2 Sakatu  argazki bat ateratzeko, edo sakatu  bideo bat grabatzeko.



- Argazkien edo bideoen distira doitzeko, sakatu pantaila. Doikuntza-barra agertzen denean, irristatu  barran,  edo  aukerara.
- Grabatzen ari zarela bideoan grabatzen ari zarenaren argazki bat egin nahi baduzu, sakatu .
- Bideo bat grabatzen ari zarela fokua aldatzeko, sakatu pantaila, fokuratu nahi duzun puntuan. Automatikoki fokuratzeko modua erabiltzeko, sakatu .




- Aurrebistaren pantaila aldatu egin daiteke argazkia ateratzeko moduaren eta erabiltzen ari zaren kameraren arabera.
- Kamera automatikoki itzaliko da erabiltzen ari ez bazara.
- Egiaztatu lentea garbi dagoela eta ez dagoela kaltetuta. Garbi ez badago, baliteke gailuak ondo ez funtzionatzea bereizmen handia behar duten modu batzuetan.
- Gailuko kamerak objektibo angelu handi bat du. Baliteke angelu zabaleko argazkietan eta bideoetan distortsio txikiagoa egotea; horrek ez du esan nahi gailuak funtzionamendu-arazoak dituenik.
- Bideo bat bereizmen handian grabatuz gero, baliteke grabazio-denbora maximoa murriztea.

Kamerarentzako beste botoi bat eranstea

Erantsi kamerarentzako beste botoi bat pantailan, nahi duzun tokian, argazkiak ateratzea erosoago izan dadin.

Aurrebistako pantailan, irristatu .



Kameraren botoia eranstean ez baduzu  aurrebistako pantailan, eta irristatu **Kamera botoi mugikorra** etengailua, hura aktibatzeke.

Kamera botoiaren ekintza konfiguratzeko

Argazki sorta bat atera dezakezu, eta GIF animatu bat sortu Kamera botoia sakatuta.

Aurrebistaren pantailan, sakatu  → **Eutsi kamera botoiari hautarako**, eta hautatu erabili nahi duzun ekintza.



- **Atera jarraikako argazkia:** argazki-segida bat ateratzeko.
- **Sortu GIF fitxategia:** GIF animatu bat sortzen du ateratako argazki-segidarekin.



Funtzio hori argazkiak ateratzeko modu batzuetan soilik dago erabilgarri.

Zooma handitzea eta txikitzea

Erabili zenbait modu irudia gerturatzeko edo urrutiratzeko.

- Bereizi bi hatz pantailan, zooma handitzeko, eta elkartu, txikitzeko.
- Kontrolatu zoom-a hatz bakarrarekin. Irristatu  zoomaren barran **+** edo **-** aldera.
- Erabili bi handipeneko zoom optikoa argazki garbiagoak ateratzeko, bai eta urrun dagoen subjektu bat zooma erabilia fokuratuta ere. Aurrebistaren pantailan, sakatu . (Galaxy S9+ modeloetan bakarrik)



- Zoomaren funtzioak atzeko kameran bakarrik daude erabilgarri.
- Bideoan zoomaren funtzioa erabiltzen baduzu denbora luzez, bideo bat grabatzen ari zaren bitartean, baliteke bideo horren kalitatea pixka bat jaistea, gailua gehiegi berotu ez dadin. (Galaxy S9+ modeloetan bakarrik)
- Baliteke bi handipeneko zoom optikoak ez funtzionatzea argi gutxi dagoen lekuetan. (Galaxy S9+ modeloetan bakarrik)

Fokuratze- eta esposizio- funtzioak erabiltzea

Fokuratze automatikoa (AF) eta esposizioa (AE) blokeatzea

Hautatutako gune baten fokuratze automatikoa (AF) eta esposizioa (AE) funtzioak blokea ditzakezu, kamerak doikuntza automatikorik egin ez dezan subjektuetan edo argi-iturrietan egon daitezkeen aldaketen arabera.

Luze sakatu fokuratu beharreko eremua. AF/AE zirkulua azalduko da eremuan, eta fokuratze- eta esposizio-doikuntzak blokeatu egingo dira. Doikuntza hori blokeatuta egongo da argazki bat atera ondoren ere.



Funtzio hori soilik **AUTO** eta **PRO** aukeretan dago eskuragarri.

Fokuratze-eremua eta esposizio-eremua bereiztea

Fokuratze-eremua eta esposizio-eremua bereizi ditzakezu

Luze sakatu aurrebistako pantaila. AF/ AE laukia pantailan bistaratuko da. Irristatu zirkulua fokuratze-eremua eta esposizio-eremua bereizi nahi dituzun tokira arte.



Funtzio hori soilik **PRO** aukeran dago eskuragarri.



SUPERGELDOA (Super Slow-mo)

lhes egiten utzi nahi ez diezun une guztiak grabatu ditzakezu abiadura ultra bizkorrean, eta kamera geldoan ikusi. Kamera supergeldoa funtzioak aukera emango dizu une berezi horiek eta mugimendu azkarreko eszenak grabatzeko, eta ondoren modu berri eta dibertigarri batean ikusteko. Bideo bat erreproduzitzen duzunean, kamera supergeldoan grabatutako zatiak kamera geldoan erreproduzitzen dira.

- **Kaptura anitza:** Bideo bat grabatzen du eta une batzuen kapturak egiten ditu kamera supergeldoan.
- **Kaptura bakarra:** kamera supergeldoan une bat kapturatuta, bideo labur bat grabatzen du.




- Erabili funtzio hori argi asko dagoen lekuetan.
- **Auto** moduan bideo bat grabatzen duzun bitartean, kamera supergeldoaren grabazioa ustekabearen has daiteke, egoera hauetan:
 - Gailua mugitzen denean.
 - Mugimendua detektatzeko eremuaren barruko subjektutik gertu objektu bat mugitzen ari denean.
 - Argi keinukari batekin (adibidez, argi fluoreszentea) egiten denean grabazioa.
 - Grabazioa zarata dagoen leku ilunetan egiten denean.


Multikaptura moduan grabatzea


Bideo bat grabatzen ari zarela, subjektua mugitzen den une guztiak kamera supergeldoan grabatuko dira.


- 1 Sakatu **SUPER GELDOA** (Super Slow-mo) argazkiak ateratzeko moduen zerrendan.
- 2 Ziurtatu moduaren konfigurazioan **Auto** dagoela.



3 Sakatu bideoa grabatzen hasteko.

Mugimendua detektatzeko eremuan mugimendua detektatzen duenean, gailuak kamera supergeldoan kapturatuko du. Kamera supergeldoa zenbat aldiz erabili duzun jakiteko, begiratu  ikonoaren gainean zenbat puntu zuri dauden. Bideo berean 20 aldiz erabil dezakezu kamera supergeldoa.



 Gailua astinduz gero, baliteke mugimendua detektatzea eta nahi ez duzun momenturen bat grabatzea kamera supergeldoan.

4 Sakatu bideoaren grabazioa geldiarazteko.

Kaptura bakar moduan grabatzea

Grabatu bideo labur bat subjektua mugitzen den une bakar bat kapturatuta.


1 Sakatu **SUPER GELDOA** (Super Slow-mo) argazkiak ateratzeko moduen zerrendan.

2 Aurretiko bistaren pantailan, sakatu  → **SUPER GELDOA** → **Kaptura bakarra** eta sakatu bi aldiz Atzera tekla.

3 Ziurtatu moduaren konfigurazioan **Auto** dagoela.

4 Sakatu .

Mugimendua detektatzeko eremuan mugimendua detektatzen duenean, gailuak kamera supergeldoan kapturatuko du, eta bideo labur gisa grabatuko du.

 Gailua astinduz gero, baliteke mugimendua detektatzea eta kamera geldoan grabatzea nahi ez duzun zerbait.

Mugimendua detektatzeko eremua aldatzea

Mugimendua detektatzeko eremua aldatzeko, luze sakatu markoaren barruko eremu bat, eta mugitu beste toki batera. Eremuaren tamaina doitzeko, luze sakatu markoaren izkina, eta irristatu.


Eskuzko moduan grabatzea

Botoia eskuz sakatuta ere graba dezakezu kamera supergeldoan.

Kamera supergeldoaren aurrebistaren pantailan, sakatu **Automatikoa** aukera, eskuzko modura aldatzeko.

Kamera supergeldoa erabili nahi duzunean, sakatu .

Bideoak erreproduzitzea kamera supergeldoan



Aukeratu kamera supergeldoan grabatutako bideo bat, eta sakatu .

Bideoa erreproduzitzen ari zarenean, ausaz hautatutako musika entzungo da atzean.

Kamera supergeldoan bideoak editatzea

Erreprodukzio-pantailan editatu egin dezakezu bideoa, eta beste fitxategi bat balitz bezala gorde edo partekatu.



- : bideoaren zati bat hautatzeko eta kamera supergeldoan bistaratzeko. Kamera supergeldoaren efektua desaktibatu nahi baduzu, sakatu .

- ✂: nahi duzun zatia mozteko balio du. Irriatu hasierako eta amaierako kakoak nahi duzun punturaino, gorde nahi duzun zatia hautatzeko.



- 🎵: Atzeko musika aldatzeko.

Bideoak partekatzea GIF animatu gisa

- 1 Hautatu kamera supergeldoan grabatutako bideo bat, eta irriatu gora bideoaren aurrebistaren pantailan.

Zenbait efektutako klip laburrak agertzen dira.

- 2 Aukeratu nahi duzun klipa.

- 3 Sakatu **PARTEKATU**.

Klipa GIF animatu gisa gordeko da.

- 4 Hautatu partekatzeko metodo bat.



- Bideo bat GIF animatu gisa gordeta, bideoaren kalitatea txikitu egiten da, fitxategiaren edukiera ere txikitu egiten baita.
- Baliteke sare sozialetako zerbitzu batzuk eta mezularitzako aplikazio batzuk GIFak partekatzeko funtzioarekin bateragarriak ez izatea.
- Kamera supergeldoan grabatu eta editatu ez diren jatorrizko bideoekin bakarrik erabil daiteke funtzio hau.

FOKURATZE DINAMIKOA (Galaxy S9+ modeloetan bakarrik)

Kamera dualarekin fokuratze sakoneko argazkiak atera daitezke, zeinetan atzealdea lausoturik ikusten baita, eta subjektua argi nabarmenduta. Gainera, Kaptura bikoitza funtzioaren bidez, argazki bat atera dezakezu lehen planoan, zoomarekin, eta beste bat atzealde panoramikoarekin, atzealde zabalagoarekin, guztia kliskatze bakararekin.

Erretratuak nabarmenduta, fokuratze dinamikoa funtzioa erabilia

Doitu zer neurritan desfokuratuko den atzealdea aurrebistaren pantailan, eta atera subjektua nabarmen-tzen den argazkia.




- Erabili funtzio hori argi asko dagoen lekuetan.
- Baliteke atzealdea ondo ez desfokuratzea ez aplikatzea egoera hauetan:
 - Gailua edo objektua mugitzea.
 - Subjektu fina edo gardena bada.
 - Subjektuak atzealdearen kolore edo eredu antzekoa baldin badu.
 - Subjektua edo atzealdea lauak badira.

1 Argazkiak ateratzeko moduen zerrendan, sakatu **ZUZENEKO FOK**.

2 Irristatu doikuntza-barra ezkerrera edo eskuinera atzealdea desfokuratzeko, eta doitu desfokuratze-maila.

3 Sakatu argazkia ateratzeko.



Fokuratze dinamikoarekin ateratako argazkien atzealdea editatzea

Halaber, Fokuratze dinamikoa funtzioarekin ateratako argazki baten atzealdearen desfokuratze-maila edita dezakezu. Atzeko argia puntu desfokuratuetan agertzen denean, atzealdea desfokuratzeko modua alda dezakezu. Hautatu forma bat (bihotz bat, izar bat edo lore bat), argazkia apaintzeko eta desberdina izateko.

Atzealdearen desfokuratze-maila ezartzea



Atzealdearen desfokuratze-forma aldatzea



1 Hautatu fokuratze dinamikoa funtzioarekin ateratako argazki bat, eta sakatu **DOITU ATZEALDEAREN LAUSOTZEA**.

2 Atzealdearen desfokuratze-maila ezartzeko, mugitu desfokuratzea ezartzeko barra ezkerrera edo eskuinera.

Atzealdearen desfokuratze-forma aldatzeko, irristatu efektu-zerrenda ezkerrera edo eskuinera, eta hautatu nahi duzun efektua. Efektu-zerrenda kasu honetan bakarrik agertuko da: argazkiak atzean desfokuratze-forma bat duenean.



Atzealdearen
desfokuratze-maila
ezartzeko

Atzealdearen
desfokuratze-forma
aldatzeko

3 Sakatu ✓ argazkia gordetzeko.

Kaptura bikoitza funtzioaren bidez ezkutuan dagoen atzealdea kapturatzea

Kaptura bakar batekin bi argazki egin ditzakezu: lehen planoko argazki bat, eta atzealde panoramikoaren argazki bat, atzealde zabalago batekin. Aurrebistaren pantailan ezkutuan zegoen atzealdea ikusi ahal izango duzu.

Argazkiak ateratzeko moduen zerrendan, sakatu **ZUZENEKO FOK**. Ziurtatu kaptura bikoitzaren funtzioa (📷) aktibatuta dagoela, eta, ondoren, atera argazki bat. Hautatu argazki bat eta ikusi lehen planoko argazkiak eta panoramikoak.



Lehen planoko argazki bat




Atzealde panoramikoarekin ateratako argazkia

AR EMOJI

Nire emoji

Modu dibertigarri eta sortzaile batean komunika zaitezke zure antza duten emojiak erabilia. Mi emoji aplikazioarekin argazkiak atera eta bideoak graba ditzakezu, edo Mi emoji aukerako stickerak partekatu beste pertsona batzuekin.



Nire emoji sortzea




- 1 Argazkiak ateratzeko moduen zerrendan, sakatu **AR EMOJI**.
- 2 Sakatu **Sortu Nire emoji**.
- 3 Zentratu aurpegia pantailan, eta sakatu argazkia ateratzeko.
- 4 Hautatu emojiaren sexua, eta sakatu **HURRENGOA**.
- 5 Apaindu zure emoji eta sakatu **ADOS**.




Litekeena da modu honek beste izen bat edukitzea, gailuaren softwarearen arabera.

Mi emoji aplikazioarekin argazkiak eta bideoak kapturatzea

Argazkietan eta bideoetan zure emojiak zure espresioak imita ditzan egin dezakezu.


- 1 Argazkiak ateratzeko moduen zerrendan, sakatu **AR EMOJI**.
- 2 Sakatu  eta hautatu zure emoji bat.
- 3 Sakatu  argazki bat ateratzeko, edo sakatu  bideo bat grabatzeko.


Nire emoji ezabatzea

Luze sakatu ezabatu nahi duzun emoji, eta sakatu .

Mi emoji aukerako sticker-ak erabiltzea

Mezuetako edo sare sozialetako elkarrizketetan, zure emojiarekin sortutako stickerrak erabil ditzakezu.

Samsung-en teklatuan, sakatu  eta, ondoren, sakatu Mi emoji aukeraren ikonoa. Zure emojiaren sticker-ak agertuko dira, espresio dibertigarriekin. Hautatu bat eransteko.



Mi emoji aukerako stickerrak ezabatzea

- 1 Samsung-en teklatuan, sakatu 🗨️ → ⚙️.
- 2 Aukeratu ezabatu nahi dituzun stickerrak, eta sakatu **EZABATU**.

Sticker animatuak

Atera argazki eta bideoak sticker bizidunekin. Aurpegia mugitzen duzunean, sticker-ek zure mugimenduei segituko diete. Gainera, sticker polit eta dibertigarri bat erregistratu ahal izango duzu, bideoetan mugitzen segituko duena.

- 1 Argazkiak ateratzeko moduen zerrendan, sakatu **AR EMOJI**.
- 2 Sakatu 🐰 edo 🐶 eta hautatu nahi duzun stickerra.



- 3 Sakatu ○ argazki bat ateratzeko, edo sakatu ● bideo bat grabatzeko.

Sticker-ak ausaz aplikatzea


Sticker-ak ausaz aplikatu ditzakezu, zerrendan hautatu beharrean. Sakatu Ausaz zenbait aldiz, nahi duzun sticker-a bistaratu arte.

Kliskatzeko moduak erabiltzea

Kliskatzeko modua aldatzeko, irristatu kliskatzeko moduen zerrenda ezkerrera edo eskuinera, edo irristatu aurrebistaren pantailan ezkerrera edo eskuinera.

Aukeratu nahi duzun modua.





Kliskatzeko moduaren zerrendan editatu dezakezu. X Sakatu  → **Editatu kamera moduak** aurrebistaren pantailan. Bestela, luze sakatu kliskatzeko moduen zerrenda aurrebistaren pantailan.

Auto modua


Auto moduaren bidez, kamerak ingurua aztertu eta argazkirako modurik onena zehaztu dezake. Argazkiak ateratzeko moduen zerrendan, sakatu **AUTO**.

Pro modua

Atera argazkiak eta bideoak kliskatzeko aukerak eskuz doitu, hala nola esposizio-balioa eta ISO balioa.



Argazkiak ateratzeko moduen zerrendan, sakatu **PRO**. Hautatu aukerak eta pertsonalizatu doikuntzak, eta, ondoren, sakatu  argazkia ateratzeko edo sakatu  bideo bat grabatzeko.







Erabilgarri dauden aukerak

- : ISO balio bat hautatzeko. Kamerak argirako duen sentsibilitatea kontrolatzen du. Balio txikiak objektu finkoetarako edo ondo argiztatuetarako erabiltzen dira. Balio handienak argi gutxiko objektuetarako edo azkar mugitzen direnetarako dira egokiak. Dena den, ISO sentsibilitate-maila altuek zarata eragin dezakete argazkietan.



Obturazio-abiadura eskuz konfiguratzen bada, ezingo da doitu ISOa **Auto** aukeran.

- : obturadorearen abiadura doitzeko. Abiadura mantsoa bada, argi gehiago pasatzen uzten du, eta, beraz, argazkiak argitsuagoak dira. Aukera hau egokia da paisaiei argazkiak ateratzeko, edo gauean ateratzen direnerako. Obturazio-abiadura bizkorragoa bada, argi gutxiago sartzen da. Oso bizkor mugitzen diren objektuei argazkiak ateratzeko egokia da aukera hau. Irekidura-balio bat hauta dezakezu, eremuaren distira eta sakontasuna zehaztuko dituen. Sakatu **F1.5** edo **F2.4**.
- : kolore-tonua hautatzeko. Zeure kolore-tonua sortzeko, sakatu **Tonu 1** edo **Tonu 2**.

- : fokuratzeko modua aldatzeko. Mugitu doikuntza-barra  edo  aldera, fokuratzea eskuz doitzeko. Automatikoki fokuratzeko modura aldatzeko, sakatu **MANUAL**.
- : zurien balantze egoki bat aukeratzeko, irudiek errealitateko kolorearen antzekoa izan dezaten. Kolore-tenperatura konfiguratu dezakezu. Sakatu  eta irristatu hatza kolore-tenperaturaren barran.
- : esposizioaren balioa aldatzeko. Kameraren sentsoreak jasotzen duen argi-kantitatea zehazteko. Argi gutxi dagoen lekuetan, esposizio handiagoa erabili behar da.



Obturadorearen abiadura eskuz konfiguratzen bada, ezingo duzu esposizioaren balioa aldatu. Exposizioaren balioa aldatu egiten da, eta obturadorerako doitutako abiaduraren arabera bistaritzen da.

Modu panoramikoa


Modu panoramikoan, zenbait argazki atera ditzakezu, eta, ondoren, elkartu eszena zabal bat sortzeko.




Argazkirik onenak ateratzeko, jarraitu aholku hauei.

- Mugitu kamera, poliki, norabide batean.
- Mantendu argazkia kameraren bisorearen markoaren barruan. Aurrebistako irudia gidari gisa balio duen markotik kanpo baldin badago edo gailua mugitzen ez baduzu, gailuak automatikoki utziko dio argazkiak ateratzeari.
- Saiatu ez ateratzen argazkiak xehetasunik gabeko atzealdeekin (zeru hutsa edo horma laua).

1 Argazkiak ateratzeko moduen zerrendan, sakatu **PANORAMA**.

2 Sakatu  eta mugitu gailua poliki norabide batean.


3 Sakatu  argazkiak ateratzeari uzteko.

Mugitzen ari den objektu bati argazki panoramikoak ateratzea

Panoramiko bat mugimenduan atera eta ikus dezakezu.







Mugitzen ari den objektu bati argazki panoramikoak ateratzen dizkiogunean, soinua ez da grabatzen.

- 1 Panoramikoaren aurrebistaren pantailan, egiaztatu mugimenduaren funtzioa aktibatuta dagoela , eta atera mugitzen ari den objektuaren argazki panoramiko bat.
- 2 Aurrebistaren pantailan, sakatu aurrebistaren miniatura.
- 3 Sakatu **IKUSI MUGIMEN. PANORAMIKA GISA**.
Ateratako argazkia erreproduzituko da.
- 4 Okertu gailua edo irristatu hatza pantailan, mugitzen ari den objektuari ateratako argazki panoramiko birarazteko.
Bideo-fitxategi gisa gordetzeko, sakatu **GORDE BIDEOA**.

Kamera lasterra modua

Grabatu eszenak (adibidez hodeiak mugitzen edo pertsonak pasatzen), eta bistaratu bideo gisa, kamera bizkorrean.



- 1 Argazkiak ateratzeko moduen zerrendan, sakatu **Hipertartea**.
- 2 Sakatu , eta hautatu irudiak transmititzeko abiadura-aukera bat.
Irudiak transmititzeko abiadura Auto. aukeran konfiguraturaz gero, gailuak automatikoki doitzen du irudiak transmititzeko abiadura, eszenaren abiadura-aldaketan arabera.
- 3 Sakatu  grabatzen hasteko.
- 4 Sakatu  grabazioa amaitzeko.
- 5 Aurrebistaren pantailan, sakatu aurrebistaren miniatura, eta, ondoren, sakatu  bideoa ikusteko.

Janarien modua

Janarien argazkiak kolore biziagoekin atera ditzakezu.

- 1 Argazkiak ateratzeko moduen zerrendan, sakatu **JANARIA**.
- 2 Sakatu pantaila, eta lerratu marko zirkularra nabarmendu nahi duzun eremuaren gainean.
Marko zirkularretik kanpoko eremua desfokuratuta ikusiko da.
Marko zirkularra berriro aldatzeko, mugitu markoaren izkina bat.







- 3 Sakatu  eta lerratu doikuntza-barra, kolorearen tonua doitzeko.
- 4 Sakatu  argazkia ateratzeko.

Kamera geldoa modua


Grabatu bideo bat, kamera geldoan ikusteko. Kamera geldoan erreproduzitu nahi dituzun bideo-sekzioak zehaztu ditzakezu.



Modu hau erabili aurretik, kliskatzeko moduen zerrendan erantsi behar duzu. Aurrebistaren pantailan, sakatu  → **Editatu kamera moduak** → **Atzeko kamera** eta, ondoren, markatu **Kamera geldoa**.

- 1 Kliskatzeko moduen zerrendan, sakatu **KAMERA GELDOA**.
- 2 Sakatu  grabatzen hasteko.
- 3 Grabatzen bukatzen duzunean, sakatu  grabazioa gelditzeko.
- 4 Aurrebistaren pantailan, sakatu aurrebistaren miniatura.
- 5 Sakatu 

Bideoaren zati bizkorrena kamera geldoko sekzio bezala konfiguratuko da, eta bideoa erreproduzitzen hasiko da. Bideoaren arabera, kamera geldoko bi sekzio sor daitezke.


Kamera geldoaren sekzioa editatzeko, irristatu  ezkerrera edo eskuinera.

Kirolak modua

Atera argazki garbiagoak bizkor mugitzen ari diren subjektuei, adibidez, korrika dabiltzan pertsoneri edo mugitzen ari den maskotari.

Argazkiak ateratzeko moduen zerrendan, sakatu **Kirolak**.



Modu hau erabili aurretik, kliskatzeko moduen zerrendan erantsi behar duzu. Aurrebistaren pantailan, sakatu  → **Editatu kamera moduak** → **Atzeko kamera** eta, ondoren, markatu **Kirolak**.

Fokuratze selektiboaren modua (Galaxy S9 modeloetan bakarrik)

Erabili fokuratze selektiboa argazki batean objektu jakin bat nabarmentzeko.

1 Argazkiak ateratzeko moduen zerrendan, sakatu **FOKURATZE SELEKTIBOA**.

2 Aurrebistako pantailan, sakatu kamerarekin fokuratu nahi duzun irudia.

3 Sakatu  argazkia ateratzeko.

4 Sakatu aurrebistaren miniatura.

5 Sakatu **DOITU ATZEALDEAREN LAUSOTZEA**, eta hautatu aukera hauetako bat:

- **Fokatu gertu:** objektua nabarmentzeko eta atzealdea lausotuta bistaratzeko.
- **Fokatu urrutira:** objektua lausotuta ikus dadin eta atzealdea nabarmendu dadin.
- **Panorama fokua:** objektua eta atzeko plano nabarmentzeko.


6 Sakatu **GORDE**.



- Objektua gailutik 50 cm-ra jartzea gomendatzen da. Jarri fokuratu nahi duzun objektua gailutik hurbil.
- Argazkiak ateratzean, ziurtatu nahikoa tarte dagoela objektuaren eta atzealdearen artean. Gailuaren eta objektuaren arteko distantziaren hirukoitza izan behar du tarte horrek.
- Eutsi ondo gailuari, eta gelditu egon, argazkiak ateratzerakoan.
- Argazkien kalitatean eragina izan dezakete kondizio hauek:
 - Gailua edo objektua mugitzea.
 - Atzeko planoan argi bizi bat egotea, argi gutxi egotea edo argazkiak toki itxietan ateratzea.
 - Subjektuak atzealdearen kolore edo eredu antzekoa baldin badu.

Selfie modua

Atera selfieak aurreko kamerarekin. Pantailan edertasun-efektuen aurrebista eduki dezakezu.

- 1 Aurrebistaren pantailan, irristatu hatza gora edo behera, edo sakatu (...) aurreko kamera aldatzeko eta selfieak ateratzeko.
- 2 Argazkiak ateratzeko moduen zerrendan, sakatu **SELFIE**.
- 3 Jarri aurreko kameraren lentearen aurrealdean.
- 4 Sakatu  argazkia ateratzeko.


Halaber, esku-ahurra erakutsi diezaiokezu aurreko kamerari. Esku-ahurra ezagutu ondoren, atzerako kontaketa tenporizadorea bistaratuko da. Amaierara iristen denean, gailuak argazkia aterako du.



Bestela, bihotz-taupaden maiztasunaren sentsorea edo pantaila sakatuta atera dezakezu argazkia. Aurreko kameran argazkiak ateratzeko zenbait modu erabiltzeko, sakatu (...) → **Argazk. Ateratzeko moduak** eta, ondoren, irristatu etengailuak aktibatzeko.



Edertasun-efektuak aplikatzea

Selfie bat atera aurretik, foku-efektua aplikatu dezakezu, edo aurpegiko ezaugarriak alda ditzakezu (azalaren tonua, aurpegiaren ingurua...). Gainera, zure aurpegian makillaje-mota ugari proba ditzakezu.

- 1 Aurrebistaren pantailan, sakatu .
- 2 Hautatu zure aurpegian edertasun-efektuak aplikatzeko eta argazkia ateratzeko aukerak.

Selfiea fokuratzeko modua

Atera zure aurpegian zentratzen diren eta atzealdea desfokuratua duten selfieak.

- 1 Aurrebistaren pantailan, irristatu hatza gora edo behera, edo sakatu  aurreko kamera aldatzeko eta selfieak ateratzeko.
- 2 Argazkiak ateratzeko moduen zerrendan, sakatu **AUTOARG. FOKUR.**
- 3 Jarri aurreko kameraren lentearen aurrealdean.
- 4 Sakatu  argazkia ateratzeko.


Halaber, esku-ahurra erakutsi diezaiokezu aurreko kamerari. Esku-ahurra ezagutu ondoren, atzerako kontaketa tenporizadorea bistaratuko da. Amaierara iristen denean, gailuak argazkia aterako du.



Bestela, bihotz-taupaden maiztasunaren sentsorea edo pantaila sakatuta atera dezakezu argazkia. Aurreko kameran argazkiak ateratzeko zenbait modu erabiltzeko, sakatu (...) → **Argazk. Ateratzeko moduak** eta, ondoren, irristatu etengailuak aktibatzeko.



Edertasun-efektuak aplikatzea

Autorretratu bat atera aurretik, azalaren tonua aukeratu dezakezu.

- 1 Aurrebistaren pantailan, sakatu .
- 2 Hautatu zure aurpegian edertasun-efektuak aplikatzeko eta argazkia ateratzeko aukerak.
 - **Kolorea:** pantailaren kolorearen tonua ezartzeko.
 - **Azal tonua:** azalaren tonua argitsuagoa eta argiagoa izateko.


Selfie panoramiko modua

Atera selfie panoramiko bat, eta sartu ahalik eta pertsona gehien guztiak atera daitezzen.

- 1 Aurrebistaren pantailan, irristatu hatza gora edo behera, edo sakatu  aurreko kamera aldatzeko eta selfieak ateratzeko.
- 2 Argazkiak ateratzeko moduen zerrendan, sakatu **SELFIE PANORAMA**.
- 3 Jarri aurreko kameraren lentearen aurrealdean.
- 4 Sakatu  argazkia ateratzeko.

Halaber, esku-ahurra erakutsi diezaiokezu aurreko kamerari. Esku-ahurra ezagutu ondoren, atzerako kontaktako tenporizadorea bistaratuko da. Amaierara iristen denean, gailuak argazkia aterako du.



Bestela, bihotz-taupaden maiztasunaren sentsorea edo pantaila sakatuta atera dezakezu argazkia. Aurreko kameran argazkiak ateratzeko zenbait modu erabiltzeko, sakatu  → **Argazk. Ateratzeko moduak** eta, ondoren, irristatu etengailuak aktibatzeko.

- 5 Biratu poliki-poliki gailua ezkererantz, eta gero eskuinerantz, edo alderantziz, selfie panoramiko bat egiteko.

Gailuak argazki gehiago aterako ditu, marko zuria bisorearen leihoaren ertz bakoitzera mugitzen denean.




- Ziurtatu marko zuria bisorearen leihoaren barruan dagoela.
- Izakiek geldirik egon behar dute selfie panoramikoak egiten diren bitartean.
- Aurrebistaren pantailan bistaritzen den irudiaren goiko eta beheko aldeak moztuta ager daitezke argazkian, argazkia nola ateratzen den.

Selfie panoramiko mugimenduan ateratzea

Selfie panoramiko bat mugimenduan atera eta ikus dezakezu.



- Selfie panoramiko bat mugimenduan ateratzen duzunean, soinurik ez da grabatzen.
- Baliteke mugimendua ez gordetzea, argazkiak ateratzeko kondizioen arabera.

- 1 Selfie panoramikoaren aurrebistaren pantailan, egiaztatu mugimenduaren funtzioa aktibatuta dagoela () eta atera selfie panoramiko bat mugimenduan.
- 2 Aurrebistaren pantailan, sakatu aurrebistaren miniatura.
- 3 Sakatu **MUGIMENDUDUN ANGELU ZABALEKO AUTOARGAZKIA**.
Ateratako selfie panoramiko erreproduzitu egingo da.
- 4 Okertu gailua edo irristatu hatza pantailan, mugimenduan ateratako argazki panoramiko birarazteko.

Mugimenduan ateratako argazki panoramiko bideo-fitxategi gisa gordetzeko, sakatu **GORDE BIDEOA**.

Kameraren doikuntzak pertsonalizatzea

Uneko kliskatzeko modurako aukerak


Aurrebistaren pantailan, erabili aukera hauek:



Aukera erabilgarriak aldatu egin daitezke argazkia ateratzeko moduaren eta erabiltzen ari zaren kameraren arabera.

- : aurrebista-pantaila osoa pizteko eta itzaltzeko.
- : irudiak transmititzeko abiadura bat hautatzeko.
- : flasha aktibatzeko edo desaktibatzeko.
- : aukeratu iragazki-efektu bat, argazkiak ateratzean edo bideoak grabatzean erabiltzeko.
- : neurketa-metodo bat hautatzeko. Argiztapen-balioak nola kalkulatu zehazten du. **Erdian** aukerak argazkiaren erdialdeko argia erabiltzen du esposizioa kalkulatzeko. **Gunea** aukerak argazkiaren erdialdeko argi kontzentratua erabiltzen du esposizioa kalkulatzeko. **Matrizea** aukerak eszena osoa neurtzen du.
- : fokuratze automatikoaren moduan fokuratzeko eremua aldatzeko. **Hainbat** aukerak koadraketaren barruan kokatutako zenbait eremu fokuratzeko balio du. Zenbait laukizuzen bistaratuko dira, fokuratutako eremuak adierazteko. **Erdian** aukerak enkoadraketaren zentroa fokuratzeko du.
- : mugitzen ari den objektuari argazki panoramikoak edo selfie panoramikoak ateratzeko, gero bideo gisa erreproduzi daitezkeenak. Ondoren, zenbait angelutatik ikusi ahal izango dituzu mugitzen ari den objektuari ateratako argazkiak, gailua okertuta edo pantailan hatza irristatuta.
- **JANARIA** moduan, objektu bat enkoadraketa zirkularraren barruan fokuratzeko eta enkoadraketaren kanpoan geratzen den irudia desfokuratzeko.
- : kaptura bikoitzaren funtzioa aktibatzeko edo desaktibatzeko. (Galaxy S9+ modeloetan bakarrik)

Kameraren doikuntzak

Aurrebistaren pantailan, sakatu . Baliteke aukera batzuk erabilgarri ez egotea, argazkia ateratzeko hautatutako moduaren arabera.

ATZEKO KAMERA

- **Argazkiaren neurria:** argazkiak ateratzeko bereizmena aukeratzeko. Bereizmen altuagoak kalitate handiagoko argazkiak sortuko ditu, baina leku gehiago hartuko dute memorian.

Irristatu **Gorde RAW eta JPEG fitx.**: hautagailua, argazkiak RAW fitxategi-formatuan gordetzeko, konprimitu gabe (DNG fitxategi-formatuan), Pro moduan. RAW fitxategiek argazkien datu guztiak gordetzen dituzte, argazkiak kalitate gorena edukitzen segitu dezan, baina memorian toki gehiago hartzen dute.



Funtzio hau erabiltzen duzunean, argazki bakoitza bi formatutan gordeko da: DNG eta JPG.

- **Bideoaren neurria:** bideoak ateratzeko bereizmena aukeratzeko. Bereizmen altuagoak kalitate handiagoko bideoak sortuko ditu, baina leku gehiago hartuko dute memorian.

Eraginkortasun handiko bideoa funtzioa aktibatzen baduzu, bideoak grabatu ditzakezu eraginkortasun handiko Códec bideo-formatuan (HEVC). Zure HEVC bideoak artxibo konprimitu gisa gordeko dira, gailuan memoria aurrezteko.



- Ezin dira erreproduzitu HEVC bideoak beste gailu batzuetan, ez eta Internet bidez partekatu ere.
 - Kamera supergeldoko eta kamera geldoko bideoak ezin dira grabatu HEVC formatuan.
- **Sintetizadorea:** kamerak argazki bat automatikoki atera baino lehen zenbat denbora pasatuko den hautatzeko.
- **HDR (tonu aberastua):** kolore biziko argazkiak atera eta xehetasun guztiak erreproduzitzeko, eremu oso argi edo ilunetan.

- **AF segitzea:** doitu gailua arakatze bat egiteko eta hautatutako objektu batean fokuratzeko automatikoki. Aurrebistaren pantailan objektu bat hautatzen baduzu, gailuak fokuratu egingo du, baita mugitzen ari bada ere edo kameraren posizioa aldatzen bada ere.



- Funtzio hori aktibatuta dagoenean, ezin da erabili bideoa egonkortzeko funtzioa.
- Baliteke objektu baten arakatzeak huts egitea, kondizio hauetan:
 - Objektua handiegia edo txikiegia da.
 - Izakia gehiegi mugitzen da.
 - Objektuak argia du atzeko planoan edo toki ilun batean dago.
 - Objektuaren koloreak edo patroiak atzeko planoarenaren berdinak dira.
 - Objektuak patroia horizontalak ditu, persiana baten bezalakoak.
 - Kamera gehiegi mugitzen da.
 - Bideoa bereizmen handian dago.
 - bi handipeneko zoom optikoa gerturatzean edo urruntzean. (Galaxy S9+ modeloetan bakarrik)
- **Mugimendu super geldoa:** bideoak kamera supergeldoan grabatzeko aukera hautatzeko balio du.

AURREKO KAMERA

- **Argazkiaren neurria:** argazkiak ateratzeko bereizmena aukeratzeko. Bereizmen altuagoak kalitate handiagoko argazkiak sortuko ditu, baina leku gehiago hartuko dute memorian.
- **Bideoaren neurria:** bideoak ateratzeko bereizmena aukeratzeko. Bereizmen altuagoak kalitate handiagoko bideoak sortuko ditu, baina leku gehiago hartuko dute memorian.


Eraginkortasun handiko bideoa funtzioa aktibatzen baduzu, bideoak grabatu ditzakezu eraginkortasun handiko Códex bideo-formatuan (HEVC). Zure HEVC bideoak artxibo konprimitu gisa gordeko dira, gailuan memoria aurrezteko.



- Ezin dira erreproduzitu HEVC bideoak beste gailu batzuetan, ez eta Internet bidez partekatu ere.
- **Sintetizadorea:** kamerak argazki bat automatikoki atera baino lehen zenbat denbora pasatuko den hautatzeko.
- **HDR (tonu aberastua):** kolore biziko argazkiak atera eta xehetasun guztiak erreproduzitzeko, eremu oso argi edo ilunetan.

- **Gorde argazkia aurreikusitako gisa:** aurreko kamerarekin argazkiak ateratzean automatikoki sortzen den ispilu-efektua alderantzikatzeko.
- **Argazk. ateratzeko moduak:** argazkia ateratzeko modua hautatzeko.
- **Aurpegiaren forma zuzentzea:** zure aurpegia aurrebistaren pantailako ertzeetan baldin badago, desitxuratua agertuko da. Gaitu aukera hau aurpegiaren forma zuzentzeko. Zuzendu ondoren, baliteke atzealdea desitxuratuta agertzea.

OHIKOA

- **Editatu kamera moduak:** aukeran dauden kliskatzeko moduak bistaratzeko, edo kliskatzeko moduen zerrenda editatzeko balio du.
- **Mugimendu argazkia:** gailua konfiguratzeko bideoklip bat grabatu dezan segundo batzuez  sakatu aurretik. Hartara, galdu daitezkeen une guztiak jaso ditzakezu. Bideoa ikusteko, sakatu aurrebisten miniatura, eta sakatu **ERREPR. MUGIMEND. ARGAZKIA**. Bideoklipetik argazki finko bat ateratzeko, sakatu pantaila, erreprodukzioa eteteko, eta sakatu **KAPTURATU**. Funtzio hori soilik **AUTO** eta **SELFIE** aukeretan dago eskuragarri.
- **Bideo egonkortzea:** aktibatu bibrazioen aurkako funtzioa, bideoa grabatzean kamera mugitzeak eragiten duen efektu lausoa murrizteko edo kentzeko.



Ezin da funtzio hau erabili **AF segitzea** aktibatuta baldin badago.

- **Sareta lerroak:** bisorean gidak agertzeko, helburuak hautatzean argazkia osatzen laguntzeko.
- **Kokapen etiketak:** erantsi GPS kokapeneko etiketa bat argazkiari.



- Baliteke GPSaren seinalearen intentsitatea gutxitzea seinalea oztopatzen den kokalekuetan — besteak beste, eraikinen artean edo eremu baxuetan— edo eguraldi txarra egiten duenean.
- Zure kokapena argazkietan ager liteke Internetera igotzen dituzunean. Halakorik ez gertatzeko, desaktibatu kokaleku-etiketaren doikuntza.

- **Berrikusi argazkiak:** gailua konfiguratzeko, argazkiak atera ondoren haiek bistaratu ditzan.
- **Abiarazte azkarra:** gailua konfiguratzeko, pizteko tekla bitan azkar-azkar sakatuta kamera abiaraz dezan.




Baliteke funtzio hori erabilgarri ez egotea, zure herrialdearen edo zerbitzu-hornitzailearen arabera.

- **Biltegiratze kokapena:** argazkiak memoriako zein kokapenetan gordeko diren aukeratzeko. Funtzio hau bistaritzen da memoria-txartel bat txertatzen denean.
- **Ahots kontrola:** gailua konfiguratzeko, ahots-komandoak erabiliz argazkiak ateratzeko edo bideoak grabatzeko. "Patata", "Capturar", "Sonrisa" edo "Disparar" esan dezakezu, argazkia ateratzeko. Bideo bat grabatu nahi baduzu, esan "Grabar vídeo".
- **Kamera botoi mugikorra:** kameraren botoia eransteko, zuk pantailaren edozein tokitan jarri ahal izateko.
- **Eutsi kamera botoiari hauetarako:** kameraren botoia luze sakatuta zer ekintza egitea nahi duzun hautatzeko.
- **Bol. Igotzeko teklaren ekintzak:** gailua konfiguratzeko, bolumen-tekla erabili ahal izan dadin obturadorea edo zooma kontrolatzeko.
- **Konfigurazioa berrezarri:** kameraren doikuntzak berrezartzeko.
- **Jarri gurekin harremanetan:** galderak edin ditzakezu, edo sarrien egiten diren erantzunak ikusi. Informazio gehiago nahi baduzu, ikusi [Samsung Members](#) atala.

Galeria

Sarrera


Zure gailuan gordetako argazki eta bideoak ikus ditzakezu. Horrez gain, argazki eta bideoak kudeatu ditzakezu bildumen arabera, edo istorioak sortu.



Irudiak ikustea


1 Ireki Galeria aplikazioa, eta sakatu IRUDIAK.

2 Hautatu irudi bat.



Filmak, GIF animatuak edo collageak sor ditzakezu zenbait argazkirekin. Zerrendan, sakatu → **Sortu berria** → **Bideoa, GIF** edo **Collagea** eta, ondoren, hautatu argazkiak.

Irudiak bilatzea

Ireki **Galeria** aplikazioa, eta sakatu  argazkiak kategoriaka ordenatuta ikusteko (adibidez, moten, kokapenen edo dokumentuen arabera).

Argazkiak gako-hitzen bidez bilatzeko, sakatu bilaketa-eremua.

Argazkien atzealdea fokuratze dinamikoarekin editatzea (Galaxy S9+ modeloetan bakarrik)

Fokuratze dinamikoa funtzioarekin ateratako argazki baten atzealdearen desfokuratze-maila editatu dezakezu. Fokuratze dinamikoko argazkietako atzeko argia puntu desfokuratuetan agertzen denean, atzealdea desfokuratzeko modua alda dezakezu.

Ireki **Galeria**, hautatu fokuratze dinamikoa funtzioarekin ateratako argazki bat, eta sakatu **DOITU ATZEALDEAREN LAUSOTZEA** atzealdearen desfokuratze-maila editatzeko edo desfokuratze-forma aldatzeko.


Kaptura bikoitzarekin ateratako argazkiak ikustea (Galaxy S9+ modeloetan bakarrik)

Ikusi lehen planoko argazkia eta atzealde panoramikoarena, kaptura bikoitzaren funtzioarekin ateratakoak biak.

Ireki **Galeria**, hautatu kaptura bikoitza funtzioarekin ateratako argazki bat, eta, ondoren, sakatu **ANGELU ZABALA** edo **LEHEN PLANOA**.

Bideoak ikustea

- 1 Ireki Galeria aplikazioa, eta sakatu **IRUDIAK**.
- 2 Hautatu erreproduzitu nahi duzun bideoa. Bideo-fitxategiek ▶ ikonoa dute miniaturako aurrebistan.
- 3 Sakatu ▶ bideoak erreproduzitzeko.



Distira doitzeko, irristatu hatza gorantz edo beherantz, erreprodukzio-pantailaren ezkerrean; edo bolumena doitzeko, eskuineko aldean.

Aurrera edo atzera bizkor joateko, erreprodukzio-pantailan arrastatu hatza ezkerrean edo eskuinean.

Bideoa hobetzeko funtzioa erabiltzea

Zure bideoen irudi-kalitatea hobetzen du, kolore biziagoak izateko. Ireki **Ezarpenak** aplikazioa, sakatu Eginbide aurreratuak eta, ondoren, sakatu **Bideo hobetzailea** etengailua.




- Funtzio hau aplikazio batzuetan bakarrik dago eskuragarri.
- Funtzio hau erabiltzean bateria gehiago kontsumitzen da.

Argazkien eta bideoen xehetasunak ikustea

Fitxategiaren xehetasunak ikus ditzakezu (hala nola, pertsonak, kokapena eta oinarritzko informazioa). Automatikoki sortutako edukia baldin badago (historia bat edo GIF bat), eduki hori ere bistaratuko da.

Argazkia bistaratzean edo bideoaren aurrebistaren pantailan zaudenean, irristatu gora pantailan, eta fitxategiaren xehetasunak bistaratuko dira.

Pantailako informazioa sakatuta ere ikus dezakezu edukia.



Albumak ikustea

Argazkiak eta bideoak karpetaan edo bildumatan ordenatuta bistara ditzakezu. Sortutako animazioak, GIF animatuak edo collageak ere beren karpetaan ordenatuko dira, albumen zerrendan.


Ireki Galeria aplikazioa, sakatu ALBUMAK eta, ondoren, hautatu bilduma bat.


Bildumak ezkutatzea

Albumak ezkuta ditzakezu.



Ezin dituzu ezabatu lehenespenez sortuta dauden bildumak, hala nola **Kamera** eta **Pantaila kapturak** bildumak.

- 1 Ireki **Galeria** eta sakatu **BILDUMAK**.
- 2 Sakatu  → **Eskutatu/Erakutsi albumak**.
- 3 Hautatu ezkutatu nahi dituzun bildumak, eta sakatu **APLIK..**

Bildumak berriro bistaratzeko, sakatu  → **Eskutatu/Erakutsi albumak**, ezeztatu bistaratu nahi dituzun bildumen hautaketa, eta, ondoren, sakatu **APLIK..**


Istorioak ikustea

Irudiak eta bideoak egiten edo gordetzen badituzu, gailuak haien kokapen-etiketak eta data irakurriko ditu, irudiak eta bideoak ordenatuko ditu, eta istorioak sortuko. Istorioak automatikoki sortzeko, zenbait irudi eta bideo hartu edo gorde behar dituzu.

Ireki **Galeria** aplikazioa, sakatu **ISTORIOAK** eta, ondoren, hautatu historia.

Istorioak sortzea



Hainbat gaitako istorioak sor ditzakezu.

- 1 Ireki Galeria eta sakatu **ISTORIOAK**.
- 2 Sakatu  → **Sortu istorioa**

3 Markatu istorioan sartzea nahi duzun irudiak edo bideoak, eta sakatu **EGINDA**.

4 Idatzi istorioaren izenburua, eta sakatu **SORTU**.

Irudiak edo bideoak gehitzeko, hautatu istorio bat eta sakatu **GEHITU**.

Ezabatzeko, hautatu historia bat, sakatu  → Editatu, markatu kendu nahi dituzun irudiak edo bideoak, eta sakatu  → Kendu istoriotik.


Istorioak ezabatzea

1 Ireki Galeria eta sakatu **ISTORIOA**.

2 Luze sakatu ezabatu nahi duzun istorioa, eta sakatu **EZABATU**.

Irudiak eta bideoak sinkronizatzea Samsung Cloud-ekin

Galerian gordetako irudiak eta bideoak Samsung Cloud-ekin sinkroniza ditzakezu, eta beste gailu batzuetatik atzitu. Samsung account-en erregistratu eta saioa hasi behar duzu Samsung Cloud erabili ahal izateko. Informazio gehiago nahi baduzu, ikusi [Samsung account](#) atala.

Ireki **Galeria** aplikazioa eta sakatu  → **Ezarpenak**, eta, ondoren, irristatu **Samsung Cloud** etengailua, aktibatzeko. Gailuarekin egindako irudiak eta bideoak Samsung Cloud-en gordeko dira automatikoki.

Argazkiak edo bideoak ezabatzea

Argazki bat edo bideo bat ezabatzea

Hautatu argazki bat edo bideo bat, eta sakatu  pantailaren behealdean.

Irudi edo bideo bat baino gehiago ezabatzea

1 Galeria pantailan, luze sakatu argazki edo bideo bat hura ezabatzeko.

2 Hautatu ezabatu nahi dituzun argazkiak edo bideoak.

3 Sakatu **EZABATU**.

Always On Display

Une oro ikusi ahal izango duzu informazioa —hala nola erlojua eta egutegia— edo musika-erreprodukzioa pantailan kontrolatu pantaila itzalita dagoela.


Horrez gainera, mezu berrien edo dei galduen jakinarazpenak kontsultatu ahal izango dituzu.



- Always On Display pantailaren distira aldatu egin daiteke automatikoki argi-kondizioen arabera.
- Gailuaren goiko aleko sentsorea denbora jakin batean estaliz gero, Always On Display pantaila itzali egingo da.

Always On Display pantailan jakinarazpenak irekitzea

Mezuak, dei galduak edo aplikazioen jakinarazpenak jasotzen dituzunean, Always On Display pantailan jakinarazpen-ikonoak bistaratuko dira. Sakatu bi aldiz jakinarazpen-ikono bat, haren edukia ikusteko.



Pantaila blokeatuta badago, desblokeatu egin beharko duzu jakinarazpenak ikusteko.

Musika-erreprodukzioa Always On Display pantailan kontrolatzea

Musika-erreprodukzioa Always On Display pantailan kontrola dezakezu pantaila piztu beharrik gabe.

- 1 Ireki **Ezarpenak**, sakatu **Pan. blokeo eta segurtas.** → **Erlojua eta FaceWidget-ak** → **FaceWidgets** eta, gero, sakatu **Musika kontrolagailua** etengailua, aktibatzeke.
- 2 Musika-erreprodukzioa Always On Display pantailan kontrolatzeko, sakatu bi aldiz erlojua.
- 3 Irristatu hatza ezkerrera edo eskuinera erlojuan, musika-kontrolagailua mugitzeko.
- 4 Sakatu ikonoak, erreprodukzioa kontrolatzeko.

Always On Display pantailan argazkiak bistaratzea

Always On Display pantailan argazkiak bistara ditzakezu. GIF animatuak ere bistara ditzakezu.

- 1 Ireki **Ezarpenak** aplikazioa → **Pan. blokeo eta segurtas.** → **Erlojua eta FaceWidget-ak** → **Erloju estiloa**.
- 2 Irristatu moten zerrenda ezkerrera, eta hautatu irudi baten ikonoa.
- 3 Sakatu **+** eta hautatu irudi bat.
GIF animatu bat eransteko, sakatu **Gehitu GIFa** eta hautatu fitxategi bat.
- 4 Sakatu **APLIK..**

Always on Display funtzioaren programazioa aldatzea

Ireki **Ezarpenak**, sakatu **Pan. Blokeo eta segurtas.** → **Always On Display** → **Ezarri agenda** eta konfiguratu hasierako eta amaierako ordua.

Always On Display pantaila beti bistaratzeko, sakatu Erakutsi beti etengailua, aktibatzeke.

Always On Display funtzioa desaktibatzea


Ireki Ezarpenak aplikazioa, sakatu Pan. Blokeo eta segurtas. eta, gero, sakatu Always On Display etengailua, desaktibatzeke.

Edge pantaila

Sarrera

Zure aplikazioetara, funtzioetara eta gogoko kontaktuetara erraz sar zaitezke zenbait Edge paneletatik.

Edge panelak erabiltzea




Irristatu Edge panelaren fitxa pantailaren erdialdera. Ondoren, irristatu hatza ezkererantz edo eskuinerantz, Edge panel batetik bestera pasatzeko. Bestela, sakatu  eta hautatu nahi duzun panela.

Edge panelaren kontrolagailua ezin bada ikusi, ireki **Ezarpenak** aplikazioa, sakatu **→ Edge panelak**, eta, ondoren, irristatu **Edge panelak** etengailua, aktibatzeke.





Edge panelak editatzea

Hautatu Edge pantailan bistaratzeko edo editatzeko panelak.

- 1 Irristatu Edge panelaren fitxa pantailaren erdialdera.
- 2 Sakatu  Edge panelaren doikuntza-pantaila irekitzeko.
- 3 Hautatu bistaratu nahi dituzun Edge panelak.
Panel bat editatzeko, sakatu **EDITATU**.
Panel gehiago deskargatzeko, sakatu **DESKARGATU**.
Panelak berrantolatzeko, sakatu  → **Ordenatu** eta eraman  beste kokaleku batera.


Edge panelaren kontrolagailua konfiguratzeko

Kontrolagailuaren kokapena, tamaina, gardentasuna edo dardara alda ditzakezu.


Irristatu Edge panelaren fitxa pantailaren erdialdera. Ondoren, sakatu  /  **Edukien kontrolagailua**.

Edge aplikazioak

Ireki bizkor sarrien erabiltzen dituzun aplikazioak.

- 1 Irristatu Edge panelaren fitxa pantailaren erdialdera.
- 2 Joan ezkerrera edo eskuinera, Apps edge panela irekitzeko. Hau ere erabil dezakezu:  → **Apps edge**.
- 3 Hautatu aplikazio bat, irekitzeko.

Tasks edge panela editatzea


- Aplikazio bat gehitzeko, sakatu lehenbizi  panelean, eta, gero, sakatu zerrendako aplikazio bat.
- Panelean karpeta bat sortzeko, sakatu (...) panelean, luze sakatu zerrendako aplikazio bat, eta, ondoren, mugitu beste aplikazio batera Apps edge panelean. Askatu aplikazioa, inguruan karpeta-marko bat azaltzen denean.
- Aplikazio bat ezabatzeko, luze sakatu ezabatu nahi duzun aplikazioa panelean, eta eraman panelaren goiko aldean dagoen **Ezabatu** aukerara.
- Aplikazioen ordena aldatzeko, luze sakatu aplikazio bat, eta eraman beste kokaleku batera.



Bestela, sakatu **EDITATU** Apps edge panela editatzeko.

People edge

Gehitu zure gogoko kontaktuak People edge panelera, haiekin bizkor jartzeko harremanetan eta haien jakinarazpenak bizkor ikusteko.

- 1 Irriatu Edge panelaren fitxa pantailaren erdialdera.
- 2 Joan ezkerrera edo eskuinera, People edge panela irekitzeko. Hau ere erabil dezakezu:  → **People edge**.

People edge panelean kontaktuak gehitzea

Gehitu sarri erabiltzen dituzun kontaktuak People edge panelera, eta ezarri kontaktu lehenetsi gisa.

Sakatu  eta hautatu gogokoen zerrendako kontaktu bat edo sakatu **HAUTATU KONTAKTUAK**, hautatu nahi dituzun kontaktuak, eta, gero, sakatu **AMAITUTA**.



Kontaktuak zerrendan gordetako kontaktuak bakarrik erants daitezke People edge panelera.

People edge panela editatzea


- Kontaktu bat ezabatzeko, luze sakatu kontaktuaren ikonoa, eta eraman **Ezabatu** aukeraraino (pantailaren goialdean dago).
- Kontaktuen ordena aldatzeko, luze sakatu kontaktu bat, eta eraman beste kokaleku batera.



Bestela, sakatu **EDITATU** People edge panela editatzeko.

People edge paneletik pertsonekin harremanetan jartzea


Ireki People edge panela, eta sakatu kontaktu bat. Komunikazio-botoiak azalduko dira pantailan. Sakatu nahi duzun botoia, kontaktuari deitzeko edo mezu bat bidaltzeko.



Smart Select

Hautatu eremu bat, irudi edo GIF animazio gisa hartzeko. Irudi bat ainguratu ere egin dezakezu, beti zere-
rendaren goialdean ager dadin.

Irudiak kapturatzea

- 1 Irriatu Edge panelaren fitxa pantailaren erdialdera.
- 2 Irriatu hatza ezkerrera edo eskuinera, Smart select panela irekitzeko. Hau ere erabil dezakezu:  → **Smart select**.
- 3 Hautatu nahi duzun formako ikono bat panelean.
- 4 Eraman markoa hautatu nahi duzun edukira.
Markoaren tamaina aldatzeko, mugitu markoaren izkina bat.
- 5 Sakatu **AMAITUTA**.
Hautatutako eremuan testua baldin badago, sakatu **Atera testua**, hautatutako eremuko testua ezagutzeko eta erauzteko.
- 6 Hautatu zer aukera erabili nahi duzun hautatutako eremuan.
 - **Bixby Vision**: edukia ezagutzen du Bixby Vision-en bidez, eta informazio garrantzitsua bilatzen.
 - **Marraztu**: hautatutako eremuan idazteko edo marrazteko aukera ematen du.
 - **Partekatu**: hautatutako eremua partekatzeko balio du.
 - **Ezarri gisa**: pantaila itzalita dagoenean zer eremu agertuko den hautatzeko.
 - **Gorde**: hautatutako eremua **Galerian** gordetzeko.

Eremu bat bideo batean ateratzea

Bideo bat erreproduzitzen duzun bitartean, hautatu area bat eta kapturatu GIF animazio gisa.


- 1 Bideoa erreproduzitzen ari zaren bitartean atera nahi duzun edukiren bat badago, irriatu Edge panelaren kontrolagailua pantailaren erdialdera.

2 Irristatu hatza ezkerrera edo eskuinera, Smart select panela irekitzeko. Hau ere erabil dezakezu: (...) → **Smart select**.

3 Panelean, sakatu **Animazioa**.

4 Egokitu atera nahi duzun eremuaren posizioa eta neurria.

Posizioa doitzekoa



Markoaren izkina bat irristatuta haren tamaina aldatzeko

Kalitatea aukeratzeko.

5 Sakatu **GRABATU**, kapturatzeko hasteko.



- Bideo bat kapturatu aurretik, ziurtatu erreproduzitzen ari dela.
- Pantailan agertuko da gehienez zenbat denboraz kapturatu dezakezun bideoaren eremu bat.
- Bideo bateko eremu bat kapturatzeko duzuenean, soinua ez da grabatzen.

6 Sakatu **GELDITU** kaptura eteteko.

7 Hautatu zer aukera erabili nahi duzun hautatutako eremuan.

- **Marraztu**: hautatutako eremuan idazteko edo marrazteko aukera ematen du. Sakatu **Aurreikuspen** fitxategia gorde aurretik emaitza ikusteko.
- **Partekatu**: hautatutako eremua partekatzeko balio du.
- **Gorde**: hautatutako eremua **Galerian** gordetzeko.

Edge pantailaren argiztapena

Gailua konfiguratu dezakezu pantailaren ertzak argitu daitezela eta leiho gainerakor bat bistara dezan jakinarazpen bat jasotzen duzunean (adibidez, mezu berri bat).

Gailuaren pantaila beheara begira egon arren, pantailaren hertzak argitu egingo dira dei bat edo jakinarazpen berri bat duzula jakinarazteko. Aplikazio bat erabiltzen ari zarenean leiho gainerakor bat agertzen bada, irristatu leihoa beheara edukia bizkor ikusteko eta aukeran dituzun ekintzak egiteko.

Jakinarazpenak kudeatzea Edge pantailaren argiekin bistartzeko

- 1 Ireki **Ezarpenak**, sakatu **Pantaila** → **Ertzeko pantaila** → **Edge argiak**.
- 2 Sakatu **Kudeatu jakinarazpenak** eta sakatu Edge pantailaren argien bidez jakinarazpenak jaso nahi dituzun aplikazioen ondoan dauden etengailuak.




Baliteke jakinarazpen batzuk ez bistartzeko; izan ere, ertzeko argiztapena jakinarazpen-motaren araberakoa da.

Erantzun azkarra

Sarrerako deiei uko egin diezaiekezu, uko egiteko mezu pertsonalizatuaren bidez. Gailuaren pantaila beheara begira dagoela, mantendu hatza bihotz-taupaden maiztasunaren sentsorearen gainean bi segundoz, deiei uko egiteko.

Deiari uko egiteko mezua editatzeko, ireki **Ezarpenak**, sakatu **Pantaila** → **Ertzeko pantaila** → **Edge argiak** → **ERANTZUN AZKARRAREN MEZUA** aukeran agertzen den mezua testua.



Multiwindow

Sarrera


Multiwindow-rekin, bi aplikazio batera exekuta daitezke pantaila berean. Halaber, hainbat aplikazio batera exekuta ditzakezu pantaila gainerakorraren ikuspegian.



Litekeena da aplikazio batzuk funtzio horrekin bateragarriak ez izatea.





Pantaila zatituaren ikuspegia



Pantaila gainerakorraren ikuspegia

Pantaila zatituaren ikuspegia

- 1 Sakatu Azkena erabilitako aplikazioen tekla, azkena erabilitako aplikazioen zerrenda irekitzeko.
- 2 Irristatu hatza gorantz edo beherantz, eta sakatu  azkena erabilitako aplikazio baten leihoan. Hautatutako aplikazioa goiko leihoan hasieratuko da.




- 3 Beheko leihoan, irristatu hatza gorantz edo beherantz abiarazi nahi duzun beste aplikazio bat hautatzeko.

Azkena erabilitako aplikazioen zerrendan ez dauden aplikazioak irekitzeko, sakatu **ZERRENDA** eta hautatu aplikazio bat.

Aukera osagarriak erabiltzea

Sakatu aplikazioen leihoen arteko barra, aukera gehigarrietara sartzeko:





Leihoaren tamaina doitzea


Leihoen tamaina doitzeko, eraman aplikazio-leihoen artean dagoen barra gora edo behera.

Pantailaren goiko edo beheko ertzerera eramandakoan barra, leihoa maximizatu egingo da.

Pantaila zaituaren ikuspegia ikonotzea


Sakatu hasierako botoia, pantaila zaituaren ikuspegia ikonotzeko.  ikonoa agertuko da egoera-barran. Beheko leihoan aplikazioa itxi egingo da, eta goiko leihoa aktibo mantenduko pantaila zaituaren ikuspegi ikonotuan.



Pantaila zaitu minimizatuaren aurrebista ixteko, sakatu .


Leiho mugikorra

Eremu bat hauta dezakezu, pantailaren goialdean ainguratu, eta beste aplikazio batzuk erabili beheko leihoan.


- 1 Sakatu Azkena erabilitako aplikazioen tekla, azkena erabilitako aplikazioen zerrenda irekitzeko.
- 2 Sakatu  eta eraman markoa ainguratu nahi duzun lekura. Markoaren tamaina doitzeko, eraman gorantz edo beherantz.
- 3 Sakatu **AMAITUTA**.
Hautatutako aplikazioaren leihoa pantailaren goiko aldean ainguratuko da. Leihoari ainguraketa kentzeko, mugitu aplikazioen leihoen arteko barra.
- 4 Beheko leihoan, irristatu hatza gorantz edo beherantz abiarazi nahi duzun beste aplikazio bat hautatzeko.

Aplikazio-pareak eranstea pantaila nagusian

Pantaila nagusian aplikazio-pareak eranstean dituzunean, bi aplikazioak ireki ahal izango dituzu pantaila zatituaren ikuspegian ukitu bakar batekin.

Sakatu aplikazioen leihoen artean dagoen barra, eta sakatu .


Uneko aplikazio-pareak pantaila nagusian erantsiko dira.



Pantaila gainerakorraren ikuspegia

- 1 Sakatu Azkena erabilitako aplikazioen tekla, azkena erabilitako aplikazioen zerrenda irekitzeko.
- 2 Irristatu hatza gora edo behera, luze sakatu aplikazio baten leiho bat, eta, ondoren, mugitu **Utzi hemen ikuspegi gainerakorra izateko** aukerara.

Aplikazioen pantaila pantaila gainerakorrean agertuko da.




Leiho gainerakorrek lekuz aldatzea

Leiho gainerakor bat mugitzeko, sakatu leihoaren tresna-barra, eta mugitu beste toki batera.

Jakinarazpenak leiho gainerakorreen kontsultatzea

Edge pantailaren argi-jakinarazpen bat jasotzen duzunean, haren edukia bizkor ikus dezakezu, eta leiho gainerakorra irekitzean aukeran dauden ekintzak egin. Adibidez, bideo bat ikusten ari zarela edo jokatzeko ari zarela mezu bat jasotzen baduzu, mezua irakurri eta erantzun diezaiokezu, pantailaz aldatu gabe.

Aplikazio bat erabiltzen ari zaren bitartean Edge pantailaren argi bidezko jakinarazpen bat jasotzen duzunean, irristatu jakinarazpena beheara.




Funtzio hori hauekin bakarrik erabil daiteke: Multiwindow funtzioarekin eta Edge pantailaren argi-funtzioarekin bateragarriak diren aplikazioekin. Zer aplikazio diren bateragarriak ikusteko, ireki **Ezarpenak** aplikazioa, sakatu **Pantaila** → **Ertzeko pantaila** → **Edge argiak** → **Kudeatu jakinarazpenak**.

Samsung Pay

Sarrera

Erregistratu gehien erabiltzen dituzun txartelak Samsung Payn, mugikorraren bidez ordaintzeko Samsungen zerbitzuan, ordainketak bizkor eta modu seguruan egin ditzazun. Samsung Payk eremu hurbileko komunikazioa (NFC) onartzen du transmisio magnetiko seguru baten bidez (MST), ordainketak kreditu-txartel estandarren irakurgailuekin egiteko.

Funtzio hori onartzen duten txartelei buruzko informazio gehiago duzu gune honetan: www.samsung.com/samsungpay. Halaber, **Samsung Pay** aplikazioa ireki dezakezu, eta sakatu  → **Laguntza**.



- Funtzio hau erabiltzeko „hasi saioa Samsung account-en, eta erregistratu zure datu biometrikoak. Informazio gehiago eskuratzeko, ikusi [Samsung account](#), [Hatz-markak ezagutzea](#) eta [Irisa ezagutzea](#).
- Samsung Payrekin ordaintzeko, baliteke gailuak sare mugikor baterako edo WiFi-rako konexioa behar izatea, eskualdearen arabera.
- Lurraldearen edo zerbitzu-hornitzailearen arabera, desberdinak izan daitezke aplikazio honen erabilgarritasuna eta funtzio bateragarriak.
- Hasierako konfigurazioko prozedura eta txartelaren erregistroa desberdinak izan litezke eskualdearen edo zerbitzu-hornitzailearen arabera.

Samsung Pay konfiguratzea

Aplikazio hau lehen aldiz edo fabrikako balioak berrezarri ondoren exekutatzeko duzunean, jarraitu pantailako argibideei, gailua konfiguratzeko.

- 1 Ireki **Samsung Pay** aplikazioa.
- 2 Hasi saioa zure Samsung account-en.
- 3 Irakurri eta onartu terminoak eta baldintzak.
- 4 Erregistratu zure hatz-marka digitalak edo irisa, ordainketak egitean erabiltzeko.
- 5 Sortu PIN bat, ordainketak egiteko garaian erabil dezazun.



PIN hori Samsung Payko ekintzak egiaztatzeko (adibidez, ordainketak egiteko eta aplikazioa desblokeatzeko) erabiliko da.

Txartelak erregistratzea

Txartelak erraz erregistra ditzakezu, kamerarekin haien argazkia aterata.




Samsung Payren webgunean (www.samsung.com/samsungpay) ikus dezakezu zer txartelek onartzen duten funtzio hau.


Ireki Samsung Pay aplikazioa, sakatu **Gehitu**, eta segi pantailako jarraibideei, txartelaren erregistroa osatzeko.

Ordainketak egitea

- 1 Luze sakatu txartelaren irudia pantailaren beheko aldean, eta irrista ezazu gora.
Samsung Pay aplikazioa ere ireki dezakezu.



- 2 Txartelen zerrendan, irristatu hatza ezkerrera edo eskuinera, eta hautatu erabili nahi duzun txartela.



3 Eskaneatu zure hatz-marka digitalak edo zure irisa.

Bestela, idatzi Samsung Pay konfiguratu zenuenean ezarri zenuen PIN kodea.

4 Jarri gailuaren atzealdea etiketa-irakurgailuaren gainean.

Txartel-irakurgailuak txarteleko informazioa ezagutzen duenean prozesatuko da ordainketa.




- Baliteke ordainketa batzuk ez prozesatzea, sare-konexioaren arabera.
- Ordainketak egiaztatzeko metodoa desberdina izan daiteke txartel-irakurgailuen arabera.

Ordainketak bertan behera uztea

Ordainketak bertan behera utz ditzakezu, ordainketa egindako gunera joanda.

Txartelen zerrendan, irristatu hatza ezkerrera edo eskuinera, eta hautatu erabili zenuen txartela. Segitu pantailan agertuko diren jarraibideei ordainketa bertan behera uzteko.

Samsung Payren doikuntzak aldatzea

Samsung Payren pantailan, sakatu  → **Ezarpenak**. Hautatu Samsung Pay aktibatzeke txartelaren irudia zer pantailatan agertuko den: pantaila nagusian edo blokeo pantailan, edo, bestela, pantaila itzaltzen duenean agertuko den.

Samsung Gear

Gear wearable gailua kudeatzeko aplikazioa da Samsung Gear. Zure gailua Gear-era konektatzen duzunean, Gear-en konfigurazioa eta aplikazioa pertsonalizatu ahal izango dituzu.


Ireki **Samsung** karpeta, eta abiarazi **Samsung Gear** aplikazioa.

Sakatu **HASI BIDAIA** zure gailua Gear-era konektatzeko. Segitu pantailan agertuko diren jarraibideei konfigurazioa osatzeko. Ikusi Gear-en erabiltzaile-eskuliburua, Gear zure gailura konektatzeari eta hura erabiltzeari buruz informazio gehiago jasotzeko.

Samsung Members

Samsung Membersek laguntza teknikoko zerbitzuak ematen dizkie bezeroei —besteak beste, gailuen arazoak diagnostikatzea—, eta erabiltzaileei aukera ematen die galderak eta errore-txostenak bidaltzeko. Galaxyren erabiltzaile-komunitateko beste pertsona batzuekin ere partekatu ahalko duzu informazioa edo Galaxy gailuei buruzko azken albistea eta aholkuak ikusi. Samsung Membersek gailua erabiltzen duzun bitartean izan ditzakezun arazoak konpontzen lagundu diezazuke.

Aukera gehigarriak ikusteko



Iruzkinak bidaltzeko







- Lurraldearen edo zerbitzu-hornitzailearen arabera, desberdinak izan daitezke aplikazio honen erabilgarritasuna eta funtzio bateragarriak.
- Iritziak bidaltzeko edo iruzkinak argitaratzeko, Samsung account-en erregistratuta egon beharko duzu, eta saioa hasi. Informazio gehiago nahi baduzu, ikusi [Samsung account](#) atala.

Samsung Oharrak

Sortu oharrak testua teklatu bidez idatziz, eskuz idatziz edo pantailan marraztuz. Irudiak edo ahots-grabazioak ere txerta ditzakezu oharretan.


Oharrak sortzea

- 1 Ireki Samsung Oharrak aplikazioa, eta sakatu **GUZTIAK** → .
- 2 Hautatu idazteko metodo bat pantailaren goiko aldean dagoen tresna-barran, eta ohar bat sortu.
Sakatu  → **Irudia**, irudi bat txertatzeko, **Galerian** hautatuz edo argazki bat eginez.
Sakatu  → **Ahotsa**, ahots-grabazio bat egiteko eta oharrean txertatzeko. Berehala hasten da ahotsa grabatzen.



- 3 Oharra sortzen bukatzen duzunean, sakatu **GORDE**.



Oharrak ezabatzea

- 1 Ireki **Samsung Oharrak** aplikazioa, sakatu **GUZTIAK** edo **BILDUMAK** eta, gero, hautatu kategorია bat.
- 2 Luze sakatu ohar bat, ezabatzeko. Zenbait ohar batera ezabatzeko, markatu ohar gehiago.
- 3 Sakatu .


Egutegia

Kudeatu zure agenda, egutegian gertaerak eta zereginak sartuta.

Gertaerak sortzea


- 1 Ireki **Egutegia** aplikazioa, eta sakatu  edo sakatu bi aldiz data bat.
Egun horretan gertaera edo zereginen bat gordeta badago, sakatu eguna, eta, gero, .

- 2 Gertaeraren xehetasunak idazteko.





- 3 Gertaera gordetzeko, sakatu **GORDE**.

Zereginak sortzea

- 1 Ireki Egutegia aplikazioa eta sakatu **IKUSI** → **Atazak**.
- 2 Sakatu  eta, gero, sartu zereginaren xehetasunak.
- 3 Sakatu **GORDE** zeregina gordetzeko.

Gertaerak eta zereginak zure kontuekin sinkronizatzeko

- 1 Ireki **Ezarpenak** aplikazioa, sakatu **Hodeia eta kontuak** → **Kontuak**, eta hautatu sinkronizatu nahi duzun kontua.
- 2 Sakatu **Sinkronizatu kontua** eta sakatu **Sinkronizatu Egutegia** etengailua, aktibatzeke.
Samsung account-entzat, sakatu  → **Sinkronizazio ezarpenak**, eta sakatu **Egutegia** etengailua, hura aktibatzeke.

Sinkronizatu nahi dituzun kontuak gehitzeko, ireki Egutegia aplikazioa eta sakatu  → **Egutegiak kudeatu** → **Gehitu kontua**. Gero, aukeratu sinkronizatu nahi duzu kontu bat, eta hasi saioa. Kontua gehituta, zerrendan agertuko da.

Samsung Health

Sarrera

Samsung Healthek ongizatea eta sasoiak kudeatzen lagunduko dizu. Jarri helburuak zeure buruari, kontrolatu egindako aurrerapenak, eta egin ongizatearen eta sasoiaren segimendua.


Samsung Health erabiltzea


Samsung Healthen erregistro eta menuetan, zure ongizatearen eta sasoiaren informazio gakoa ikus dezakezu. Halaber, pauso-kontaktako erregistroak Samsung Healthen beste erabiltzaile batzuekin konparatu ditzakezu, lagunekin lehiatu eta osasunari buruzko aholkuak ikusi.

Ireki Samsung karpeta, eta abiarazi Samsung Health aplikazioa. Aplikazio hau lehen aldiz edo fabrikako datuak berrezarri ondoren exekutatzan duzunean, jarraitu pantailako argibideei, gailua konfiguratzeko.



Baliteke funtzio batzuk erabilgarri ez egotea eskualdearen arabera.



Samsung Healthen pantailara elementuak eransteko, sakatu  → **Kudeatu elementuak** eta, gero, hautatu elementuak.

- **HELBURUAK:** ezarri zure eguneroko helburuak eta ikusi egindako aurrerapena.
- **PROGRAMAK:** erabili ariketa-programa pertsonalizagarriak.
- **JARRAIPEN TRESNA OROKORRAK:** aztertu zure jarduerak, hartutako elikagaiak eta gorputz-neurriak.
- **ARIKETEN JARRAIPEN TRESNAK:** erantsi ariketen erregistroak eta kontrolatu zure jarduerak.

Helburuak

Zure pisua kontrolatzeko edo bizitza orekatuago bat izateko helburuak definitu ditzakezu. Zure helburuak definitu ondoren, zure aurrerapenak kontrolatu ditzakezu, eta gomendioak ikusi Samsung Health pantailan.

Sakatu **EZARRI HELBURUAK** Samsung Health-en pantailan. Hau ere erabil dezakezu:  → **Kudeatu elementuak** eta hautatu **Pisuaren kudeaketa** edo **Bizimodu orekatua**.

ERRONKAK

Aplikazio honen bidez, pauso-kontaktako helburuak konfiguratu ditzakezu eta lagunekin lehiatu zaitzake. Lagunak oinez ibiltzera gonbidatu ditzakezu, pauso-kontaktako helburuak ezarri, erronketan lehiatu eta zure sailkapena ikusi **Pausoen panela** aukeran.

Funtzio honetara sartzeko, sakatu **Erronkak** Samsung Healthen pantailan.

Pausoak

Egin dituzun pausoak kontatuko ditu gailuak, eta egindako distantzia neurtuko du. Samsung Healthen pantailan, sakatu pauso-kontagailua.



- Baliteke atzerapen apur bat izatea pauso-kontagailuak zure pausoak kontrolatu eta pauso-kontaketa bistaratu bitartean. Halaber, baliteke atzerapen apur bat izatea leiho gainerakorrak zure helburura iritsi zarela adierazi aurretik.
- Autoan edo trenean zoazela pauso-kontagailua erabiltzen baduzu, baliteke bibrazioak pauso-kontaketaren guztizkoan eragitea.

Bihotz-taupaden maiztasuna

Neurtu eta erregistratu zure bihotz-taupaden maiztasuna.




Bihotz-taupaden maiztasunaren erregistroa ongizatea mantentzeko eta kontsultatzeko diseinatuta dago, eta ez da erabili behar gaixotasunak edo beste asalduraren bat diagnostikatzeko, ezta gaixotasunak sendatzeko, arintzeko, tratatzeko edo prebenitzeko ere.


Kontuan izan baldintza hauek zure bihotz-maiztasuna neurtu aurretik:

- Hartu atseden 5 minutuz neurketak egiten hasi aurretik.
- Bihotz-maiztasunaren balioa espero zenuenaren oso bestelakoa bada, hartu atseden 30 minutuz, eta neurtu berriro.
- Neguan, edo tenperatura baxuak egiten dituenean, eduki tenperatura atsegina zure bihotz-maiztasuna neurtzean.
- Neurtu aurretik erre egiten baduzu edo edari alkoholdunak hartzen badituzu, baliteke zure bihotz-maiztasuna ez izatea normalean izaten duzuna.
- Saia zaitetz ez hitz egiten, aharrausi ez egiten edo arnasa sakon ez hartzen bihotz-maiztasuna neurtzen ari zaren bitartean. Bestela, baliteke gailuak okerreko emaitzak jasotzea.
- Litekeena da bihotz-maiztasunaren emaitzak aldatzea neurketa-metodoaren eta neurketa egin den ingurunearen arabera.
- Bihotz-maiztasunaren sentsoreak ez badu funtzionatzen, egiaztatu ezerk ez diola oztoporik egiten. Baldin eta bihotz-taupaden maiztasunaren sentsoreak arazo berarekin jarraitzen badu, zoaz Samsungen Arreta Teknikoko Zerbitzuko (ATZ) zentro batera.

- 1 Samsung Health-en pantailan, sakatu bihotz-maiztasunaren erregistroa, eta, ondoren, sakatu **NEURTU**, zure bihotz-maiztasuna neurtzen hasteko.
- 2 Jarri hatz bat bihotz-maiztasunaren sentsorearen gainean —gailuaren atzealdean dago—.



- 3 Denbora-tarte labur baten ondoren, zure bihotz-maiztasuna agertuko da pantailan. Orduan, kendu hatza sentsoretik.



Informazio osagarria

- Samsung Health sasoia eta ongizatea mantentzeko soilik diseinatuta dago, eta ez da erabili behar gaixotasunak edo beste asalduraren bat diagnostikatzeko, ezta gaixotasunak sendatzeko, arintzeko, tratatzeko edo prebenitzeko ere.
- Samsung Health-erako erabilgarri dauden funtzioak, ezaugarriak eta aplikazioak desberdinak izan daitezke herrialde batetik bestera, tokian tokiko lege eta arauengatik. Erabili aurretik, egiaztatu zer funtzio eta aplikazio dituen zure eskualdean.
- Samsung Health-en aplikazioak eta zerbitzua aldeztu aurretik jakinarazi beharrik gabe aldatu edo eten daitezke.
- Erabiltzaileak eskatutako zerbitzua emateko biltzen dira datuak; besteak beste, ongizate-maila hobetzeko informazioa, sinkronizazio-datuak, zerbitzu hobeak garatzeko eta emateko datu-analisiak eta estatistikak. Edonola ere, Samsung Health-en Samsung account-en saioa hasten baduzu, baliteke zure datuak zerbitzarian gordeta geratzea, datuen segurtasun-kopia egiteko. Helburu horiek bete arte gera daitezke gordeta datu pertsonalak. Samsung Health-en gordetako datu pertsonalak ezaba ditzakezu Ezarpenak menuko Berrezarri datuak aukera erabiliz. Sare sozialetan partekatu duzun edo biltegi-gailuetara bideratu duzun datuen bat ezabatzeko, bereiz egin behar duzu.
- Zure datuak Samsungen zerbitzu osagarriekin partekatu edo sinkroniza ditzake, edo zuk hautatutako hirugarren zerbitzu bateragarriekin, baita konektatuta dituzun zure beste edozein gailurekin ere. Samsung Health-en informazioa beste zerbitzu osagarri edo gailu horien bidez atzitzeko, zure berriazko baimena behar da.
- Sare sozialetan partekatzen dituzun edo beste pertsona batzuei transmititzen dizkiezun datuen erabilera desegokiagatik erantzule bakarra zeu zara. Kontuz ibili zure datuak beste pertsona batzuekin partekatzean.
- Gailua neurketa-gailuekin konektatuta badago, begiratu komunikazio-protokoloa, ondo dabilela ziurtatzeko. Haririk gabeko konexio bat erabiltzen baduzu (adibidez, bluetootha), baliteke gailuak beste gailu batzuen interferentzia elektronikoa jasotzea. Saiatu ez erabiltzen irrati-uhinak igortzen dituzten beste gailu batzuetatik hurbil.
- Samsung Health erabiltzen hasi aurretik, irakurri adi haren baldintzak eta pribatutasun-politika.

Ahots-grabagailua

Sarrera

Grabatzeko modu desberdinak erabili egoera bakoitzean. Gailuak testu bihur dezake zure ahotsa, eta soinu-iturriak bereizi.


Ahots-grabazioak egitea

1 Ireki Samsung karpeta, eta abiarazi Ahots-grabagailua aplikazioa.

2 Sakatu 🗨️, grabatzen hasteko. Mikrofonotik hurbil hitz egin.

Sakatu ⏸️ gelditzeko.

Ahots-grabazio bat egitean, sakatu LASTER-MARKA, markagailu bat txertatzeko.



3 Sakatu ■ grabazioa amaitzeko.

4 Sartu izen bat fitxategiarentzat eta sakatu **GORDE**.

Grabazio modua aldatzea

Ireki Samsung karpeta, eta abiarazi Ahots-grabagailua aplikazioa. Hautatu modu bat ahots-grabagailua-ren pantailaren goiko aldean.


- **ESTANDARRA:** grabatzeko modu arrunta da.
- **ELKARRIZKETA:** mikrofonoa bi norabidetatik datozen soinuekiko sentikorra da. Modu honetan, antzeko soinu-mailak erregistratzen dira gailuaren goiko aldetik eta beheko aldetik.
- **AHOTS MEMORANDUMA:** gailuak ahotsa grabatzen du, eta, aldi berean, testu bihurtzen du pantailan. Emaitza hobek lortzeko, joan toki lasai batera, eutsi gailuari ahotik hurbil, eta hitz egin garbi eta ozen.



Ahots-oharren sistemaren hizkuntza ez beste batean hitz egiten baduzu, gailuak ez du zure ahotsa ezagutuko. Funtzio hori erabili aurretik, sakatu uneko hizkuntza, ahots-oharren sistemaren hizkuntza konfiguratzeko.

Ahots-grabazio hautatuak erreproduzitzea

Elkarrizketen grabazioak berrikustean, hots-iturri jakin batzuk gaitu edo desgaitu daitezke grabazioan.

- 1 Ireki **Samsung** karpeta, eta abiarazi **Ahots-grabagailua** aplikazioa.
- 2 Sakatu **ZERRENDA**, eta hautatu **Elkarrizketa** moduan grabatutako ahots-grabazio bat.
- 3 Hots-iturri jakinak desgaitzeko, sakatu  zer norabidetako hotsa desgaitu nahi duzun adierazteko.

Ikonoa  bihurtuko da, eta hotsa isildu.



Nire fitxategiak

Kudeatu eta atzitu gailuan edo beste kokapen batzuetan (adibidez, hodeiko biltegitratze-zerbitzuetan) gordetako fitxategiak.

Ireki **Samsung** karpeta, eta abiarazi **Nire fitxategiak** aplikazioa.

Bistaratu kokaleku bakoitzean gordetako fitxategiak.

Gailuan tokia egiteko, sakatu  → **Lortu toki gehiago**.

Fitxategiak edo karpetak bilatzeko, sakatu .

Erlojua


Sarrera

Alarmak konfiguratzeko, munduko hirietako ordua ikusteko, gertaera bat kronometratzeko edo iraupen jakin bat ezartzeko.

ALARMA

Ireki Ordularia aplikazioa eta sakatu ALARMA.

Alarmak konfiguratzea

Sakatu  alarma-zerrendan, konfiguratu alarma-ordua, aukeratu zein egunetan errepikatuko den, konfiguratu beste aukera batzuk, eta sakatu **GORDE**.

Teklatua ireki eta alarma-ordua idazteko, sakatu ordua idazteko eremua.

Alarmak aktibatze edo desaktibatze, irristatu zerrendan alarmaren alboan dagoen etengailua.

Alarmak gelditzea

Sakatu **EZEZTATU**, alarma bat geratzeko. Errepikatze aukera aktibatuta dagoela **ERREPIKATU** sakatzen baduzu, alarmak berriro joko du minutu batzuk igarotakoan.


Alarmak ezabatzea

Luze sakatu alarma bat, markatu ezabatu nahi dituzun alarmak, eta, ondoren, sakatu **EZABATU**.

MUNDUKO ERLOJUA

Ireki Ordularia aplikazioa eta sakatu **MUNDUKO ERLOJ**.

Erlojuak sortzea

Sakatu  idatzi hiri baten izena edo hautatu munduko hiri bat, eta, ondoren, sakatu **GEHITU**.

Erlojuak ezabatzea

Luze sakatu erloju bat, markatu ezabatu nahi dituzun erlojuak, eta, ondoren, sakatu **EZABATU**.

KRONOMETROA

- 1 Ireki **Ordularia** aplikazioa eta sakatu **KRONOMETROA**.
- 2 Sakatu **ABIARAZI**, gertaera baten iraupena kronometratzeko.
Kronometratzean itzulien denborak erregistratzeko, sakatu **BIRA**.
- 3 Denbora neurtzeari uzteko, sakatu **GELDI**.
Kronometroa berrabiarazteko, sakatu **BERRABIAZAZI**.
Erregistratutako denborak ezabatzeko, sakatu **BERREZARRI**.


ATZERAKO KONTAKETA

- 1 Ireki Ordularia aplikazioa eta sakatu **TENPORIZADOREA**.
- 2 Definitu iraupena, eta, gero, sakatu **ABIARAZI**.
Teklatua ireki eta iraupena idazteko, sakatu iraupena idazteko eremua.
- 3 Tenporizadorearen alarma desaktibatzean, sakatu **EZEZTATU**.

Kalkulagailua

Kalkulu errazak nahiz konplexuak egiteko.

Ireki **Kalkulagailua** aplikazioa.

Biratu gailua, ikuspegi horizontala izateko eta kalkulagailu zientifikoa bistaratzeko. **Giro auto** aukera desgaituta badago, sakatu  kalkulagailu zientifikoa agertzeko.

Kalkuluen historia ikusteko, sakatu **HISTORIA**. Kalkuluen historiaren panela ixteko, sakatu **TEKLATUA**.


Historia ezabatzeko, sakatu **HISTORIA** → **GARBITU HISTORIA**.

Unitateak bihurtzeko tresna erabiltzeko, sakatu . Zenbait balio —eremua, luzera edo tenperatura, adibidez— beste unitate batzuetara bihurtu dezakezu.

Game Launcher

Sarrera

Game Launcher-ek Play Store eta Galaxy Apps-etik deskargatutako jokoak toki bakar batean jasotzen ditu erraz atzitzeko. Konfiguratu gailua Jokoak moduan, jokoetan errazago aritzeko.



Game Launcher erabiltzea

- 1 Ireki Ezarpenak aplikazioa, sakatu Eginbide aurreratuak → Jokoak eta, ondoren, sakatu Game Launcher etengailua, aktibatzeke.

Game Launcher pantaila nagusian eta aplikazioen pantailan agertzen da.



Funtzioa desaktibatzen duzunean, Game Launcher desagertu egiten da pantaila nagusitik eta aplikazioen pantailatik.

- 2 Ireki Game Launcher aplikazioa.

- 3 Sakatu zerrendako joko bat.

Joko gehiago bilatzeko, irristatu pantaila gorantz.



Play Store eta Galaxy Apps dendetatik deskargatutako jokoak automatikoki bistaratuko dira Game Launcher pantailan. Ezin badituzu jokoak ikusi, sakatu (...) → **Gehitu jokoak.**

Jokoak Game Launcher-etik ezabatzea

Luze sakatu joko bat eta, gero, sakatu Kendu.

Errendimendu modua aldatzea

Jokoen errendimendu modua aldatzeko aukera duzu.


Ireki Game Launcher aplikazioa, sakatu Errendimendu normala eta, gero, sakatu botoia zenbait aldiz, nahi duzun modua hautatzeko.


- **Errendimendu normala:** ez da erabiltzen ez energia aurrezteko modua, ez errendimendu handiaren modua.
- **Aurreztu bateria:** bateria-kontsumoa murrizten du, baina sistemaren errendimendua txikitzen du.
- **Hobetu errendimen.:** sistemaren errendimendua hobetzen du, baina bateria-kontsumoa handitzen du.




Bateriaren kargaren eraginkortasuna desberdina izan daiteke jokoaren arabera.

Game Tools erabiltzea

Zenbait aukera erabil ditzakezu Game Tools panelean, jokatzen ari zaren bitartean. Game Tools panela irekitzeko, sakatu  nabigazio-barran. Nabigazio-barra ezkutatuta badago, irristatu hatza gorantz pantailaren beheko aldetik, bistaratzeko.



Jokoetan jakinarazpenak blokeatzea

Sakatu  eta irristatu Alertarik ez jokoetan etengailua, aktibatzeko. Gailuak jakinarazpen-soinuak isilaraziko ditu, eta sarrerako deien jakinarazpenak eta larrialdi-alertak bakarrik bistaratuko ditu, lasai jolastu zaitez inork molestatu gabe. Dei bat jasotzen baduzu, jakinarazpen txiki bat bistaratuko da pantailaren goiko aldean.

SmartThings

Sarrera

Konekta zaitetz bizkor eta erraz hurbileko gailuetara (adibidez, bluetooth entzungailuetara edo beste smartphoneetara). Horrez gain, telebistak, etxetresna elektrikoak eta gauzen Interneteko produktuak (IoT) kontrolatu eta kudeatu ahal izango dituzu zure smartphonearekin.

- **Hurbileko gailuetara konektatzea:** gertuko gailuetara (Bluetooth entzungailuak edo gailu wearableak) bizkor eta erraz konektatzeko.
- **Etxetresna elektrikoak, telebistak eta IoT produktuak erregistratzea eta kontrolatzea:** erregistratu hozkailu adimendunak, garbigailuak, aire egokituaren aparatuak, aire-garbigailuak, telebistak eta gauzen Interneteko produktuak (IoT) zure smartphonean, eta kontsultatu haien egoera, edo kontrolatu itzazu smartphonearen pantailatik.
- **Jaso jakinarazpenak:** zure smartphonean konektatuta dituzun gailuen jakinarazpenak jaso ditzakezu. Adibidez, jakinarazpen bat jaso dezakezu smartphonean, ilara amaitu denean.

Ireki **Samsung** karpeta, eta abiarazi **SmartThings** aplikazioa. Kontrol-panela agertuko da.





- SmartThings erabili ahal izateko, zure smartphoneak eta gainerako gailuek Wi-Fi sare batera edo sare mugikor batera konektatuta egon behar dute.
- SmartThings erabili ahal izateko, Samsung account-en erregistratuta egon behar duzu, eta saioa hasi.
- Konekta daitezkeen gailuak desberdinak izan daitezke eskualdearen edo zerbitzu-hornitzailearen arabera. Konekta ditzakezun gailuen zerrenda ikusteko, ireki **Samsung** karpeta, abiarazi **SmartThings** aplikazioa, eta, ondoren, hautatu **GAILU BATEGARRIAK**.
- Baliteke funtzio desberdinak egotea eskura, konektatutako gailuaren arabera.
- Samsungen bermeak ez ditu estaltzen konektatutako gailuen akatsak eta okerrak. Konektatutako gailuek akatsak edo okerrak badituzte, jarri harremanetan gailuaren fabrikatzailearekin.

Hurbileko gailuetara konektatzea

Konekta zaitez bizkor eta erraz hurbileko gailuetara (adibidez, bluetooth entzungailuetara).



Konektatzeko bitartekoak aldatu egin litezke konektatzen diren gailu-moten edo partekatzen diren edukien arabera.

- 1 Ireki **Samsung** karpeta, eta abiarazi **SmartThings** aplikazioa.
- 2 Sakatu **Gehitu gailua** kontrol-panelean.
- 3 Hautatu zerrendako gailu bat, eta konektatu harekin, pantailako argibideei jarraituz.

Etxetresna elektrikoak, telebistak eta IoT produktuak erabili

Kontsultatu zure etxetresna elektriko adimendunen, telebisten eta IoT produktuen egoera smartphoneko pantailatik. Gailuak kokapenaren arabera multzokatu ditzakezu, eta arauak gehitu ditzakezu gailuak modu erraz eta erosoan kontrolatzeko.

Gailuak konektatu

1 Ireki **Samsung** karpeta, eta abiarazi **SmartThings** aplikazioa.

2 Sakatu **Gehitu gailua** kontrol-panelean.

3 Hautatu gailu bat zerrendatik.

Zerrendan gailurik ez baldin badago, sakatu  **GEHITU GAILUA ESKUZ** aukeraren azpian, eta hautatu gailu-mota bat. Bestela, sakatu **Bilatu** eta idatzi gailuaren izena edo eredu.

4 Jarraitu pantailan agertzen diren argibideei gailuak erregistratzeko.

Konektatutako gailuak ikusi eta kontrolatzea

Gailuak ikusi eta kontrolatu ditzakezu. Adibidez, hozkailuan dituzun elikagaiak ikus ditzakezu, edo telebistaren bolumena aldatu.

1 Ireki **Samsung** karpeta, abiarazi **SmartThings** aplikazioa, eta, ondoren, sakatu **Gailuak**.

Konektatutako gailuen zerrenda agertuko da.

2 Ikusi zerrendako gailuen egoera.

Gailuak kontrolatzeko, hautatu bat. Hautatutako gailuarekin batera datorren gailuaren kontrolagailua deskargatzen denean, kontrolatu ahal izan izango duzu.

Gailuak eta eszenak kokapenaren arabera gehitzea

Gehitu gailuak kokapenaren arabera, ikusi kokapen berean dauden gailuen zerrenda, eta kontrolatu itzazu. Eszena bat ere gehi diezaiokizu kokapen bati, aldi berean gailu bat baino gehiago kontrolatzeko.

Kokapenak gehitzea

- 1 Ireki **Samsung** karpeta, abiarazi **SmartThings** aplikazioa, eta, ondoren, sakatu **Gailuak** → **Gailu guztiak** → **Gehitu kokapena**.
- 2 Idatzi kokapenaren izena.
Konfiguratzeko, sakatu **Geokokapena**, hautatu kokapen bat mapan, eta sakatu **EGINDA**.
- 3 Sakatu **GORDE**.
Zure kokapena gehituko da.
Kokapenaren gailuak eransteko, sakatu **GEHITU**, eta bete pantailako jarraibideak, gailuak erregistratzeko.
Gailuak kokapenari gehituko zaizkio.

Eszenak eranstea

Gehitu eszena bat eta erregistratu zure gailuak modu horretan, zenbait gailu aldi berean kontrolatzeko, botoi bakarra sakatuta edo ahots-komandoa erabilia.

Ireki **Samsung** karpeta, abiarazi **SmartThings** aplikazioa, hautatu kokapena, sakatu (...) → **Gehitu eszena** eta, ondoren, konfiguratuta eszenaren aukerak. Eszenaren izena, ikonoa eta gailuak konfigura ditzakezu.

Automatizazioak eranstea



Automatizazioak konfigura ditzakezu, ezarritako orduaren arabera edo gailuaren egoeraren arabera automatikoki ekintzak egin ditzan.

Adibidez, gehitu automatizazio bat, egunero goizeko 7:00etan irratia automatikoki pizteko.

- 1 Ireki **Samsung** karpeta, abiarazi **SmartThings** aplikazioa, eta, ondoren, sakatu **Automatizazioak** → **GEHITU AUTOMATIZAZIOA**.
- 2 Sakatu **Noiz erabili nahi duzu automatizazioa?** baldintzak ezartzeko, eta, ondoren, sakatu **EGINDA**.
- 3 Sakatu **Zer nahi duzu automatizazio honek egitea?** gailuak eta egin nahi dituzun ekintzak ezartzeko, eta, ondoren, sakatu **EGINDA**.
Automatizazio bat exekutatzeko denbela jakinarazpen bat jasotzeko, sakatu **Jakinarazi**, eta idatzi mezua.

Jakinarazpenak jasotzea

Konektatuta dituzun gailuen jakinarazpenak jaso ditzakezu zure smartphonean konektatuta. Adibidez, ilara amaitutakoan, jakinarazpen bat jaso dezakezu smartphonean.


Jakinarazpenak zer gailutatik jaso nahi dituzun konfiguratzeko, ireki **Samsung** karpeta, abiarazi **SmartThings** aplikazioa, sakatu  → **Jakinarazpenak** →  → **Jakinarazpen ezarpenak** eta, ondoren, sakatu nahi dituzun gailuen ondoko etengailuak.


Edukiak partekatzea

Edukia parteka dezakezu erabilera partekatuko zenbait aukera erabilita. Irudiak partekatzearen adibide batzuk dira ekintza hauek.



Sare mugikorraren bidez fitxategiak partekatzen dituzunean, baliteke kargu gehigarriak sortzea.

- 1 Ireki **Galeria** aplikazioa, eta hautatu irudi bat.
- 2 Sakatu  eta hautatu erabilera partekatuko modu bat: adibidez, mezu bat edo posta elektronikoko bat.



Erabilera partekatuaren edo komunikazioen historia baldin baduzu, zurekin harremanetan egon diren pertsonak erabilera partekatuko aukeren panelean agertuko dira. Nahi duzun aplikazioarekin edukia zuzenean haiekin partekatzeko, hautatu pertsona horren ikonoa. Funtzio hau aktibatuta ez baldin badago, ireki Ezarpenak aplikazioa, sakatu Eginbide aurreratuak eta, ondoren, irristatu Partekatze zuzenean etengailua, aktibatzeko.

Funtzio osagarriak erabiltzea

- **Estekak partekatzea:** fitxategi handiak partekatzeko. Kargatu fitxategiak Samsungen biltegiatze-zerbitzarian, eta partekatu beste pertsona batzuekin, web-esteka baten edo kode baten bidez. Funtzio hau erabiltzeko, haren telefono-zenbakia egiaztatu beharko duzu.
- **Partekatu gailua:** edukia partekatzeko gertu dauden gailuekin Wi-Fi Direct edo Bluetooth erabilia, edo SmartThings-ekin bateragarriak diren gailuekin. Halaber zure gailuko edukia bistaratu ahal izango duzu pantaila handian, gailua Smart View duen monitore edo telebista batera konektatuta.

Argazkia hartzaileen gailuetara bidaltzen denean, jakinarazpen bat agertuko da haien gailuetan. Sakatu jakinarazpena, irudia ikusteko edo deskargatzeko.

Samsung DeX

Sarrera


Samsung DeX zerbitzuarekin, smartphoena ordenagailu gisa erabil dezakezu, smartphoena kanpoko pantaila batera, hala nola telebista edo monitore batera, konektatuz. Zure smartphoeko funtzioak pantaila handi batean erabil ditzakezu erosotasun osoz.



- DeX Pad gailua erabiltzen ikasteko informazio gehiago lortzeko, kontsultatu DeX Pad-en erabiltzailearen eskuliburua.
- Osagarri guztiak, baita DeX Pad gailua ere, bereiz saltzen dira.



DeX Pad gailuaren diseinua



Gailuak konektatu

1 Konektatu kargagailua DeX Pad gailuaren kargagailuaren atakara (C motako USBa).




Samsungek onartutako kargagailuak bakarrik erabili, bizkor kargatzeko funtzioarekin bateragarriak direnak.


2 Konektatu HDMI kablearen mutur bat DeX Pad gailuaren HDMI atakara, eta konektatu kablearen beste muturra telebista edo monitore baten HDMI atakara.



DeX Pad-ekin datorren HDMI kablea bakarrik erabili. Bestela, baliteke DeX Pad-ek ez ondo funtzionatzea.



3 Konektatu smartphonearen funtzio anitzeko larakoa DeX Pad-en konektorerara (USB-C).



- Egiaztatu smartphone-a konektorearekiko horizontalean dagoela. Bestela, bai DeX Pad bai smartphone-a hondatu egin daitezke.




- Zorroa jarrita duen smartphone bat konektatzen baduzu, baliteke ondo konektatu ezin izatea DeX Station gailura edo ezin exekutatu ahal izatea Samsung DeX. Kendu zorroa erabili aurretik.

4 Smartphonearen pantailan, hautatu erabili nahi duzun pantaila-modua. Samsung DeX modua edo Screen Mirroring modua hauta dezakezu.

- **SAMSUNG DeX ABIARAZTEA:** zure smartphonearen pantaila ukipen-panel bihurtuko aldatuko da, eta konektatutako telebistan edo monitorean agertuko da Samsung DeX moduan.
- **SCREEN MIRRORING-ERA ALDATZEA:** smartphonearen pantaila bera konektatutako telebistan edo monitorean agertuko da.



Samsung DeX modua



Screen Mirroring modua



Hautatzen duzun lehenengo pantaila-modua ondorengo konexioei aplikatuko zaie. Kontsultatu [Pantaila-modua aldatzea](#) informazio gehiago lortzeko.

Samsung DeX pantaila kontrolatzea

Pantaila smartphonetik kontrolatzea

Smartphonea erabil dezakezu ukipen-panel bat balitz bezala.



- Ukipen-panela bakarrik erabil dezakezu Samsung DeX modua erabiltzen duzunean.
- Smartphone-aren zorroak aurreko estalkia baldin badu, ireki ezazu smartphonea ukipen-panel gisa erabiltzeko; izan ere, estalkia itxita baldin badago, litekeena da ukipen-panelak behar bezala ez funtzionatzea.




Pantaila kontrolatzea

- Sakatuta: aplikazio bat irekitzeko edo botoi bat hautatzeko.
- Bi hatzekin sakatuta: aplikazio gehigarriak bistaratzeko.
- Bi hatz irristatuta: pantaila irristatzeko, edozein norabidetan.
- Bi hatzak bereizita edo elkartuta: gerturatzeko edo urruntzeko.
- Luze sakatuta: pantailako elementu bat hautatzeko.
- Irriatuta: elementua mugitzeko edo testua hautatzeko.


Smartphonearen pantaila orientatzea

Smartphonea ukipen-panel gisa erabiltzen duzunean, horizontalean edo bertikalean erabil dezakezu.


- 1 DeX Pad eta smartphonea konektatuta daudenean, altxatu gainazalarekiko perpendikularrean **1**
Ondoren, jarri smartphonea nahi duzun orientazioan, bertikalean edo horizontalean **2**.



2 Mugitu DeX Pad eta smartphonea poliki gora edo behera.



Ukipen-panela behar bezala orientatuta badago,  ikonoa bistaratuko da eskuineko aldean.




Kanpoko teklatu batekin eta sagu batekin kontrolatzea

Teklatu bat eta sagu bat erabiltzeko, konektatu DeX Pad gailuaren USB ataketara.



- Sagu bat konektatzen baduzu, ukipen-panela ez da agertuko smartphonean.
- Kanpoko teklatu bat eta sagu bat erabil ditzakezu, Screen Mirroring moduan.



Haririk gabeko sagua edo teklatua edo Bluetooth ere erabil dezakezu. Konsultatu gailuaren erabiltzaileen eskuliburua informazio gehiago lortzeko.

Pantailako teklatura erabiltzea

Ireki teklatura smartphoneran konektatutako telebistako edo monitoreko pantailan.

Sakatu  lasterbideen tresna-barran.


Pantailako teklatura bistaratuko da.

Jokoez pantaila handian gozatzea

Zure smartphoneko jokoak pantaila handian erreproduzitu ditzakezu. Konektatutako telebistan edo monitorean, ireki **Game Launcher** aplikazioan.



Deiei erantzutea


Samsung DeX erabiltzen ari zaren bitartean, konektatutako monitorean edo telebistan erantzun diezaiekezu smartphoneko deiei, bi horietako edozeinetan deiei erantzuteko aukerak hautatuta. Deietan, smartphoneko bozgorailua erabiliko da.

 Bozgorailurik erabili nahi ez baduzu, konektatu entzungailu batzuk edo kendu smartphone-a DeX Pad gailutik.

Pantailaren modua aldatzea

Konektatutako telebistan edo monitorean, pantailaren modua alda dezakezu.


1 Egoera-barran, sakatu  eta, ondoren, sakatu  **Samsung DeX** aukeraren ondoan.



2 Sakatu **▼ Samsung DeX erabili** aukeraren gainean, eta, ondoren, sakatu **SCREEN MIRRORING**.

Samsung DeX modua amaitu egingo da, eta smartphonearen pantaila bera konektatutako telebistan edo monitorean agertuko da.

Smartphonean modua aldatu nahi baduzu, ireki jakinarazpenen panela, sakatu **Samsung DeX** aukeraren ondoan, eta, ondoren, sakatu **SAMSUNG DEX**.



Smartphonearen bateria kargatzea

Smartphonearen bateria kargatu dezakezu DeX Pad-ekin.

1 Egoera-barran, sakatu **🔌** eta, ondoren, sakatu **▼ Samsung DeX** aukeraren ondoan.

2 Sakatu **▼ Samsung DeX erabili** aukeraren gainean, eta, ondoren, sakatu **BIZKOR KARGATZEA**.

Konektatutako telebista edo monitorea itzali egingo dira, eta smartphonea bizkor kargatzen hasiko da.

Konexioa amaitzea

Smartphonea konektatutako monitoretik deskonektatzeko, kendu smartphonea DeX Pad gailutik.

! Deskonektatu smartphonea horizontalean. Gehiegi altxatzen baduzu, gogor tira egiten badiozu edo astindu egiten baduzu, litekeena da gailu mugikorraren konektorea hondatzea (USB-C).

Kanpoko pantaila batera konektatzea


Konekta dezakezu smartphonea kanpoko pantaila batera, hala nola telebista edo monitore batera, eta konektatutako pantailan ikusi aurkezpenak edo filmak. Konektatu smartphonea kanpoko pantaila batera HDMI kable bat eta HDMI egokigailu bat erabiliz (USB-Ctik HDMIra). Smartphoneko edukia konektatutako pantailan ikus dezakezu.



- HDMI kableak eta egokigailuak (USB-Ctik HDMIra) bereiz saltzen dira.
- Samsungek onartutako HDMI egokigailuak bakarrik erabili (USB-Ctik HDMIra). Bermeak ez ditu estaltzen onartu gabeko osagarriak erabiltzeagatik eragindako errendimendu-arazoak eta funtzionamendu-akatsak.

- 1 Konektatu HDMI egokigailu bat (USB-Ctik HDMIra) smartphonerara.
- 2 Konektatu HDMI kable bat HDMI egokigailura (USB-Ctik HDMIra) eta telebista edo monitore baten HDMI atakara.

Gailuaren pantaila agertuko da telebistaren pantailan.



Google Apps

Googlek entretenimenduko, negozioetako eta sare sozialetako aplikazioak eskaintzen ditu. Baliteke Googleko kontu bat behar izatea aplikazio batzuetara sartzeko.

Aplikazioei buruzko informazio gehiago behar izanez gero, joan aplikazio bakoitzaren laguntza-menura.



Baliteke aplikazio batzuk erabilgarri ez egotea edo beste izen bat edukitzea, herrialdearen edo zerbitzu-hornitzailearen arabera.

Chrome

Bilatu informazioa, eta nabigatu webguneetan.

Gmail

Bidali edo jaso mezu elektronikoak Google Mail zerbitzuaren bidez.

Maps

Bilatu zure kokapena mapan, bilatu munduko mapa, eta ikusi zure inguruko zenbait lekuri buruzko kokapen-datuak.

Play Music

Bilatu, entzun eta partekatu musika gailutik. Gailuan gordetako musika-bildumak hodeian karga ditzakezu, eta aurrerago sartu horietara.

Play Movies

Bideoak (adibidez, filmak edo telebistako saioak) erosi edo aloka ditzakezu, Play Storen.

Drive

Biltegiratu zure edukiak hodeian, sartu haietara edozein lekutatik, eta partekatu beste pertsona batzuekin.

YouTube

Ikusi edo sortu bideoak, eta partekatu beste pertsona batzuekin.

Argazkiak

Bilatu, kudeatu eta editatu jatorri desberdineko argazki eta bideo guztiak leku bakar batean.

Google

Bilatu azkar elementuak Interneten edo gailuan.

Duo


Bideo-dei bat egin erraz-erraz.

Ezarpenak

Sarrera

Gailuko ezarpenak pertsonalizatu ditzakezu. Are gehiago pertsonaliza dezakezu zure gailua, zenbait aukera konfiguratuta.

Ireki Ezarpenak aplikazioa.

Doikuntzak gako-hitzak erabiliz bilatzeko, sakatu **Bilatu** edo .

Konexioak

Aukerak

Aldatu konexioen doikuntzak, hala nola WiFi funtzioarenak eta bluetooth-konexioarenak. Doikuntzen pantailan, sakatu Konexioak.

- **Wi-Fi:** WiFi funtzioa aktibatzen du, WiFi sare batera konektatzeko eta Internetera nahiz sareko beste gailu batzuetara sartzeko. Informazio gehiago eskuratzeko, ikusi [WiFi-a](#).
- **Bluetooth:** bluetooth funtzioa erabiltzen du bluetootha erabiltzeko gaitutako beste gailu batzuekin datuak edo multimedia-fitxategiak partekatzeko. Informazio gehiago eskuratzeko, ikusi [Bluetootha](#).
- **Gailuaren ikusgaitasuna:** beste gailu batzuek zure gailua bila dezaten uzten du, edukia zurekin partekatzeko. Funtzio hori aktibatuta dagoenean, beste gailu batzuek zurea bilatu dezakete, Transferitu fitx. Gailura aukera erabilita gailuak bilatzen hasten direnean.
- **Datuen erabilera:** Kontrolatu datuen erabilera eta pertsonalizatu erabilera-mugak. Konfiguratu gailua datu-konexioa automatikoki desaktibatu dezan erabilitako datu mugikorren kantitatea muga jakin batera iritsitakoan.

Halaber, datuak aurrezteko funtzioa aktibatu dezakezu, bigarren mailan exekututzen diren aplikazio batzuek datuak bidal edo jaso ez ditzaten. Informazio gehiago behar baduzu, kontsultatu [Datuak aurreztea](#).

- **Hegaldi modua:** gailua konfiguratzeko gailuan haririk gabeko funtzio guztiak desaktibatzen. Sarerik gabeko zerbitzuak soilik erabili ahal izango dituzu.



Egin kasu hegazkin-konpainien arauari eta hegazkineko langileen jarraibideei. Gailua erabiltzeko aukera ematen dutenean, erabili beti hegazkin moduan.

- **NFC eta ordainketa:** gailua konfiguratzeko gailuak hurbileko komunikazio-etiketak (NFC), produktuei buruzko informazioa dakartenak, irakurri ahal izateko. Halaber, funtzio hori erabil dezakezu ordainketak egiteko eta garraio-txartelak eta ikuskizunetako sarrerak erosteko, deskargatu beharreko aplikazioak deskargatuz gero. Informazio gehiago eskuratzeko, ikusi [NFC eta ordainketa](#) atala.
- **Partekatutako konexioa eta Modema:** erabili gailua konexio partekatze, sareko konexio erabilgarririk ez dagoenean beste gailu batzuekin datu mugikorren konexioa partekatze. WiFi, USB edo bluetooth funtzioen bidez ezarri ahal izango dituzu konexioak. Informazio gehiago eskuratzeko, ikusi [Konexio partekatua eta Modema](#) atala.
- **Sare mugikorrak:** zure sare mugikorraren doikuntzak konfiguratzeko.
- **SIM txartel kudeatzailea (bi SIMeko modelook):** zure SIM edo USIM txartelak aktibatze eta SIM txartelaren doikuntzak pertsonalizatzeko. Ikus [SIM txartelen administratzailea \(bi SIMeko modelook\)](#) informazio gehiago eskuratzeko.
- **Kokalekua:** kokapen-informazioaren baimenen doikuntzak aldatzeko.
- **Konexio ezarpen gehiago:** beste funtzio batzuk kontrolatzeko doikuntzak pertsonalizatzeko. Informazio gehiago eskuratzeko, ikusi [Konexio-doikuntza gehiago](#).

WiFi-a

Aktibatu WiFi funtzioa, WiFi sare batera konektatzeko eta Internetera nahiz sareko beste gailu batzuetara sartzeko.



Erabili behar ez baduzu, desaktibatu WiFi funtzioa, bateria aurrezteko.

WiFi sare batera konektatzea

1 Doikuntzen pantailan, sakatu **Konexioak** → **Wi-Fi**, eta, gero, irristatu etengailua, aktibatzeke.

2 Aukeratu sare bat WiFi sareen zerrendan.

Pasahitza eskatzen duten sareek giltzarrapo-formako ikono bat dute. Idatzi pasahitza, eta sakatu **KONEKTATU**.



- Gailua WiFi sare bati lotzen zaionean, automatikoki konektatuko da sare horretara eskuragarri dagoen guztietan, pasahitza eskatu gabe. Gailua sarera automatikoki konekta ez dadin, aukeratu sare-zerrendan, eta sakatu EZEZTATU.
- WiFi sare batera ezin bazara behar bezala konektatu, berrabiarazi gailuaren WiFi funtzioa edo haririk gabeko bideratzailea.

Wi-Fi Direct

Wi-Fi Direct funtzioak gailuak zuzenean konektatzen ditu WiFi sare baten bidez, sarbide-puntu baten beharrik gabe.

1 Doikuntzen pantailan, sakatu **Konexioak** → **Wi-Fi**, eta, gero, irristatu etengailua, aktibatzeke.

2 Sakatu **Wi-Fi Direct**.

Detektatu diren gailu guztien zerrenda azalduko da.


Zure gailuarekin konektatu nahi duzun gailua ez badago zerrendan, eskatu hari bere Wi-Fi Direct funtzioa aktibatzeke.

3 Hautatu konektatzeko gailu bat.

Beste gailuak Wi-Fi Direct funtzioaren konexio-eskaera onartutakoan konektatuko dira gailuak.

Datuak bidaltzea eta jasotzea

Datuak, hala nola kontaktuak edo multimedia-fitxategiak, beste gailu batzuekin parteka ditzakezu. Ekin-tza hauek erakusten dute nola bidaltzen den irudi bat beste gailu batera:

- 1 Ireki **Galeria** aplikazioa, eta hautatu irudi bat.
- 2 Sakatu  -> **Wi-Fi Direct**, eta hautatu gailu bat, hari irudia transferitzeko.
- 3 Onartu Wi-Fi Direct-en konexio-eskaera beste gailuan.

Gailuak jada konektatuta badaude, konexio-eskaeraren prozedurarik gabe bidaliko da irudia beste gailura.

Gailuaren konexioa amaitzea

- 1 Doikuntza-pantailan, sakatu **Konexioak** → **Wi-Fi**.
- 2 Sakatu **Wi-Fi Direct**.
Konektatutako gailuak bistaratuko ditu gailuak zerrendan.
- 3 Sakatu gailuaren izena, gailuak deskonektatzeko.

Bluetootha

Erabili bluetooth funtzioa beste gailu batzuekin datuak edo multimedia-fitxategiak partekatzeko.



- Samsungek ez du bere gain hartzen bluetooth bidez bidalitako edo jasotako datuak galtzearen, bidean atzematearen edo modu desegokian erabiltzearen ardura.
- Egiazta ezazu beti segurtasun egokia duten gailu fidagarriekin partekatzen dituzula datuak. Gailuen artean oztopoak badaude, baliteke distantzia operatiboa murriztea.
- Gerta liteke gailu batzuk (Bluetooth SIG-ek probatu edo baimendu gabekoak batez ere) gailuarekin bateragarriak ez izatea.
- Ez erabili bluetootha legez kanpoko helburuetarako, hala nola, fitxategien kopiak pirateatzeko edo helburu komertzialetarako elkarrizketak legez kanpo grabatzeko.

Samsungek ez du bere gain hartzen bluetootha legez kanpo erabiltzeak ekar litzakeen ondorioen erantzukizunik.

Bluetootha darabilten beste gailu batzuetara konektatzea

1 Doikuntzen pantailan, sakatu **Konexioak** → **Bluetooth**, eta, gero, irristatu etengailua, aktibatzeko. Detektatu diren gailu guztien zerrenda azalduko da.

2 Hautatu konektatzeko gailu bat.

Zure gailuarekin konektatu nahi duzun gailua ez badago zerrendan, konfiguratu ezazu bluetooth bidez lotzeko. Kontsultatu beste gailuaren erabiltzailearen eskuliburua.




Zure gailua beste gailuentzat ikusgai dago bluetootharen konfigurazio-pantaila irekita dagoen bitartean.

3 Onartu bluetooth bidezko konexio-eskaera zure gailuan, berresteko.

Beste gailuak bluetooth bidezko konexio-eskaera onartutakoan konektatuko dira gailuak.

Datuak bidaltzea eta jasotzea

Aplikazio askok bluetooth bidez datuak transferitzeko aukera ematen dute. Datuak, hala nola kontaktuak edo multimedia-fitxategiak, beste bluetooth gailu batzuekin parteka ditzakezu. Ekintza hauek erakusten dute nola bidaltzen den irudi bat beste gailu batera:


- 1 Ireki Galeria aplikazioa, eta hautatu irudi bat.
- 2 Sakatu  → **Bluetooth**, eta, gero, aukeratu gailu bat, irudia hara transferitzeko.
Gailua aurrez beste gailuarekin lotu bada, sakatu gailuaren izena, automatikoki sortutako pasahitza berretsi gabe.
Lotu nahi duzun gailua ez badago zerrendan, eskatu gailuak ikusgaitasun-aukera aktiba dezan.
- 3 Onartu bluetootharen baimen-eskaera beste gailuan.


Audio duala

Bluetootha darabilten bi audio-gailu ere konekta ditzakezu zure smartphonera. Konektatu bluetootha darabilten bi bozgorailu edo entzungailu, aldi berean erabiltzeko.




Funtzio hori erabiltzeko, **Audio multimedia** funtzioa onartu behar dute konektatu nahi dituzun eta bluetootha darabilten audio-gailuak.

- 1 Doikuntzen pantailan, sakatu **Konexioak** → **Bluetooth**, eta, gero, irristatu etengailua, aktibatzeko.
Detektatu diren gailu guztien zerrenda azalduko da.
- 2 Sakatu  → **Dual audio**, irristatu etengailua aktibatzeko, eta, gero, sakatu atzera tekla.
- 3 Hautatu konektatzeko gailu bat.
Konektatu nahi dugun gailua zerrendan ageri ez bada, aktibatu ikusgaitasun-aukera edo joan bluetooth elkartzearen modura. Ikus gailuaren erabiltzailearen eskuliburuak, informazio gehiago nahi izanez gero.

- 4 Sakatu  konektatutako gailuaren ondoan, eta irristatu **Audio multimedia** etengailua, aktibatzeko.
- 5 Hautatu beste gailu bat zerrendan, eta aktibatu **Audio multimedia** funtzioa.


Bluetooth gailuak deskonektatzea

- 1 Ezarpenen pantailan, sakatu **Konexioak** → **Bluetooth**.
Gailuak lotutako gailuak bistaratuko ditu zerrendan.
- 2 Sakatu  gailuaren izenaren ondoan, lotura kentzeko.
- 3 Sakatu **Desparekatu**.

Datuak aurreztea

Murriztu datuen erabilera: galarazi bigarren mailan exekututzen diren aplikazioek datuak bidaltzea edo jasotzea.

Doikuntza-pantailan, sakatu Konexioak → Datuen erabilera → Datu aurrezlea eta sakatu etengailua, aktibatzeko.

Datuak aurrezteko funtzioa aktibatuta dagoenean, egoera-barran  ikonoa bistaratuko da.



Datuak aurrezteko funtzioa aktibatuta



Datuak murrizketarik gabe erabiltzeko aplikazioak hautatzeko, sakatu **Baim. Datu aur. aktibo dagoenean** eta hautatu aplikazioak.

NFC eta ordainketak

Gailuak hurbileko komunikazio-etiketak (NFC), produktuei buruzko informazioa dakartenak, irakur ditzake. Halaber, funtzio hori erabil dezakezu ordainketak egiteko eta garraio-txartelak eta ikuskizunetako sarrerak erosteko, deskargatu beharreko aplikazioak deskargatuz gero.




NFC antena integratu bat dauka gailuak. Hura honda ez dadin, kontuz erabili gailua.

NFC etiketetako informazioa irakurtzea

Erabili NFC funtzioa beste gailu batzuetara irudiak edo kontaktuak bidaltzeko eta produktuei buruzko informazioa irakurtzeko NFC etiketak erabiliz.

- 1 Doikuntzen pantailan, sakatu **Konexioak**, eta irristatu **NFC eta ordainketa** etengailua, aktibatzeko.
- 2 Jarri NFC antenaren eremua (gailuaren atzealdean dago) NFC etiketa batetik hurbil.
Etiketaren informazioa bistaratuko da.



Egiaztatu gailuaren pantaila piztuta eta desblokeatuta dagoela. Bestela, gailuak ez ditu irakurriko NFC etiketak, eta ez du daturik jasoko.

Erosketa bat egitea NFC funtzioaren bidez

NFC funtzioa ordainketak egiteko erabili ahal izateko, aldez aurretik ordainketa mugikorretako zerbitzuaren bidez erregistratu beharko duzu. Erregistratzeko edo zerbitzuari buruzko informazio gehiago jasotzeko, galdetu zerbitzu-hornitzaileari.

1 Doikuntzen pantailan, sakatu **Konexioak**, eta irristatu **NFC eta ordainketa** etengailua, aktibatzeke.

2 Jarri NFC antenaren eremua (gailuaren atzealdean dago) NFC txartel-irakurgailuaren gainean.

Ordainketa-aplikazio lehenetsia konfiguratzeko, ireki doikuntza-pantaila, eta sakatu **Konexioak** → **NFC eta ordainketa** → **Ukitu eta ordaindu** → **Ordainketa**; ondoren, hautatu aplikazio bat.



Baliteke erabilgarri dauden ordainketa-aplikazio guztiak ez egotea ordainketa-zerbitzuen zerrendan.

NFC funtzioaren bidez datuak bidaltzea

Zure gailuaren NFC antenak beste gailu baten NFC antena ukitzean datuak trukatzeko.

1 Doikuntzen pantailan, sakatu **Konexioak** → **NFC eta ordainketa**, eta irristatu etengailua, aktibatzeke.


2 Irriatu **Android Beam** etengailua, aktibatzeke.

3 Aukeratu elementu bat, eta jarri beste gailuaren NFC antena zurea gailuaren NFC antenarekin kontaktuan.

4 Pantailan **Sakatu bidaltzeko** bistaratzen denean, sakatu gailuaren pantaila fitxategiak bidaltzeko.



Bi gailuak aldi berean saiatzen badira datuak bidaltzen, fitxategi-transferentziak huts egin lezake.



Konexio partekatua eta modema

Erabili gailua konexio partekatuko eremu baten modura, sareko konexio erabilgarririk ez dagoenean beste gailu batzuekin datu-konexioa partekatzeko. WiFi, USB edo bluetooth funtzioen bidez ezarri ahal izango dituzu konexioak.



Doikuntzen pantailan, sakatu **Konexioak eremua** → **Partekatutako konexioa eta Modema**. Baliteke gastu gehigarriak ordaindu behar izatea funtzio hau erabiltzeagatik.


- **Partekatutako konexioa:** erabili partekatutako konexioa, datu mugikorren konexioa partekatzeko ordenagailuekin edo beste gailu batzuekin.
- **Bluetooth ainguraketa:** modema bluetooth bidez erabiltzeko, gailuaren datu mugikorren konexioa partekatzeko ordenagailuekin edo beste gailu batzuekin, bluetooth bidez.
- **USB ainguraketa:** USB modem bat erabiltzeko, gailuaren datu mugikorren konexioa USB bidez ordenagailu batekin partekatu ahal izateko. Ordenagailu batera konektatzen denean, gailua haririk gabeko modem gisa erabiltzen da.


Konexio partekatua erabiltzea

Erabili gailua Konexio partekatu eramangarri gisa, beste gailu batzuekin datu-konexioa partekatzeko.

1 Doikuntzen pantailan, sakatu **Konexioak** → **Partekatutako konexioa eta Modema** → **Partekatutako konexioa**.

2 Sakatu etengailua, aktibatzeke.

 ikonoa agertuko da egoera-barran. Gainerako gailuek zurea aurkitu ahal izango dute WiFi sareen zerrendan.

Konexio partekaturako pasahitz bat ezartzeko, sakatu  → **Konfiguratu Partekatutako konexioa**, eta hautatu segurtasun-maila. Gero, idatzi pasahitza, eta sakatu **GORDE**.

3 Beste gailuaren pantailan, bilatu eta aukeratu zurea WiFi sareen zerrendan.

4 Gailua konektatuta dagoela, erabili beste gailuaren datu mugikorren konexioa Internetera sartzeko.

SIM txartelen administratzailea (bi SIMeko modelook)

Aktibatu zure SIM edo USIM txartelak, eta pertsonalizatu SIM txartelaren doikuntzak. Ikusi [SIM edo USIM txartelak erabiltzea](#) (bi SIMeko modeloetan) informazio gehiago jasotzeko.

Ezarpenen pantailan, sakatu **Konexioak** → **SIM txartel kudeatzailea**.

- **Ahots-deiak:** ahots-deietarako SIM edo USIM txartel bat hautatzeko.
- **Testu-mezuak:** testu-mezuetarako SIM edo USIM txartel bat hautatzeko.
- **Datu mugikorrak:** datu-zerbitzuetarako SIM edo USIM txartel bat hautatzeko.
- **Berretsi deietarako SIM txartel.:** gailua konfiguratzeko SIM edo USIM txartela hautatzeko leiho gainerakorra bistaratu dezan dei bati erantzutean edo mezu baten bidez dei bati erantzutean. Leiho gainerakorra bistaratuko da baldin eta aurreko deirako edo mezurako erabilitako SIM edo USIM txartela lehenetsitako SIM edo USIM txartela ez bada.
- **Dual SIM beti piztuta:** dei batean, beste SIM edo USIM txarteleko deiak jasotzeko aukera emateko gailuari.



Funtzio hau aktibatzen baduzu, baliteke gastu handiagoak izatea deia desbideratzeagatik, eskualdearen edo zerbitzu-hornitzailearen arabera.

Konexio-doikuntza gehiago

Beste funtzio bat zuk kontrolatzeko doikuntzak pertsonalizatzeko.

Ezarpenen pantailan, sakatu **Konexioak** → **Konexio ezarpen gehiago**.

- **Inguruko gailuak bilatzea:** konektatzen denean gertuko gailuak bilatu ditzan konfiguratzeke gailua.
- **Inprimatu:** konfiguru instalatutako inprimagailuaren pluginen doikuntzak. Eskuragarri dauden inprimagailuak bila ditzakezu edo bat eskuz gehitu, fitxategiak inprimatzeko. Informazio gehiago eskuratzeko, kontsultatu [Inprimatzea](#).
- **MirrorLink:** erabili MirrorLink funtzioa zure gailuko aplikazioak ibilgailu baten kontrol-unitateko pantailatik kontrolatzeko. Informazio gehiago eskuratzeko, kontsultatu [MirrorLink](#).
- **Download booster:** zure gailua konfiguratzeke, 30 MB baino gehiagoko fitxategiak bizkorrago deskargatzeko (WiFi sare baten bidez eta sare mugikor baten bidez aldi berean). Informazio gehiago nahi baduzu, kontsultatu [Download booster](#).
- **VPN:** sare pribatu birtualak (VPN) konfiguratu ditzakezu gailuan, hezkuntza-erakunde baten edo zure enpresaren sare pribatura konektatzeko.
- **Ethernet:** Ethernet egokigailu bat konektatzen duzunean, kable bidezko sare bat erabil dezakezu, eta sare-ezarpenak konfiguru.

Inprimatzea

Konfiguru instalatutako inprimagailuaren pluginen doikuntzak. Konektatu gailua inprimagailu batekin Wi-Fi edo Wi-Fi Direct funtzioa erabiliz, eta inprimatu irudiak edo dokumentuak.



Gerta liteke beste inprimagailu batzuk ez izatea bateragarriak gailu honekin.

Inprimagailuko pluginak

Gehitu inprimagailuko pluginak, gailura konektatu nahi dituzun inprimagailuetarako.


- 1 Ezarpenen pantailan, sakatu **Konexioak** → **Konexio ezarpen gehiago** → **Inprimatzea** → **Deskargatu plugin-a** -> **Gehitu zerbitzua**.
- 2 Bilatu inprimagailu baten osagarria **Play Store**n.
- 3 Aukeratu inprimagailuko plugin bat, eta instalatu.

4 Hautatu inprimagailuaren plugina, eta irristatu etengailua, aktibatzeko.

Gailuak gailua bera konektatuta dagoen WiFi sare berera konektatuta dauden inprimagailuak bilatuko dugu.

5 Hautatu gehitu nahi duzun inprimagailua.



Inprimagailuak eskuz gehitzeko, sakatu  → Gehitu inprimagailua.

Edukiak inprimatzea

Edukiak (argazkiak edo dokumentuak) bistaritzen dituzunean, sartu aukeren zerrendan, eta sakatu **Inprimatzea** → ▼ → **Inprimagailu guztiak...** eta, ondoren, hautatu inprimagailu bat.



Eskura dauden inprimatze-moduak edukiaren arabera alda litezke.

MirrorLink

Gailuaren pantaila ibilgailuko unitate nagusiaren monitorean ikus dezakezu.

Konektatu zure gailua ibilgailu batera MirrorLink aplikazioak haren unitate-kontrolatik kontrolatzeko.

Ezarpenen pantailan, sakatu **Konexioak** → **Konexio ezarpen gehiago** → **MirrorLink**.



MirrorLink-en 1.1 bertsioa edo berriagoa onartzen duten ibilgailuekin bateragarria da zure gailua.

Zure gailua MirrorLink bidez konektatzea ibilgailu batera

Funtzio hau lehenengoz erabiltzean, konektatu gailua WiFi sare batera edo sare mugikor batera.

1 Lotu gailua beste ibilgailuarekin, bluetooth bidez.

Informazio gehiago eskuratzeko, kontsultatu [Bluetootha darabilten beste gailu batzuetara konektatzea](#).

2 Konektatu gailua ibilgailura USB kable baten bidez.

Konektatutakoan, erabili kontrol-unitatearen pantailatik zure gailuaren MirrorLink aplikazioak.

MirrorLink konexioa amaitzea

Deskonektatu zure gailuaren eta ibilgailuaren arteko USB kablea.

Download booster

Zure gailua konfiguratzeko, 30 MB baino gehiagoko fitxategiak bizkorrago deskargatzeko (WiFi sare baten bidez eta sare mugikor baten bidez aldi berean). Zenbat eta WiFi sare indartsuagoa izan, orduan eta abiadura handiagoan egingo dituzu deskargak.

Doikuntzen pantailan, sakatu Konexioak → Konexio ezarpen gehiago → Download booster.



- Baliteke funtzio hau gailu batzuetan erabilgarri ez egotea.
- Baliteke gastu gehigarriak ordaindu behar izatea sare mugikorraren bidez fitxategiak deskargatuz gero.
- Fitxategi handiak deskargatzean, gerta liteke gailua berotzea. Gailuak tenperatura jakin bat gainditzen badu, funtzioa desaktibatu egingo da.
- Sarearen seinaleak ezegonkorak badira, baliteke funtzio honen abiadura eta errendimendua txikiagoak izatea.
- WiFi sareko konexioak eta sare mugikorrekoak datuak transferitzeko oso abiadura desberdinak badituzte, baliteke gailuak konexiorik azkarrena soilik erabiltzea.
- Funtzio honek HTTP 1.1 protokoloa eta HTTPS protokolo segurua onartzen ditu hipertestua transferitzeko. Ezin da erabili beste protokolo batzuekin, hala nola FTPrekin.

Soinuak eta bibrazioa:

Aukerak

Aldatu zure gailuko soinuen doikuntzak. Doikuntza-pantailan, sakatu **Soinuak eta bibrazioa**.

- **Soinu modua:** gailua konfiguratzeko, Soinu modua, Bibrazio modua edo Isilik modua erabil dezan.
- **Bibratu eta jo doinua:** gailua konfiguratzeko, deiak jasotzean bibratu eta melodia bat erreproduzi dezan.
- **Bolumen teklak multim. Edukira.:** gailua konfiguratzeko multimedia-edukiaren bolumena doitzeko bolumen-botoiak sakatuta.
- **Bolumena:** dei-doinu, musika, bideo, sistema-soinu eta jakinarazpenen bolumena doitzeko.
- **Dardara intentsitatea:** jakinarazpenen bibrazio-intentsitatea doitzeko.
- **Dei-doinua (SIM bakarreko modeloak):** dei-doinua aldatzeko.
- **Dei-doinua (2 SIMeko modeloak):** dei-doinua aldatzeko.
- **Dardara modua:** bibrazio-eredu bat aukeratzeko.
- **Jakinarazpen soinuak:** jakinarazpenaren soinua aldatzeko.
- **Ez molestatu:** onartutako salbuespenen kasuan izan ezik, sarrerako deiak, jakinarazpen-soinuak eta multimedia-edukia isilarazteko moduan konfiguratzeko gailua.
- **Ukim. soinuak:** gailua konfiguratzeko, ukipen-pantailan aplikazio bat edo aukera bat hautatzen duzun bakoitzean soinu bat egin dezan.
- **Pantaila blokeo soinuak:** gailua konfiguratzeko, ukipen-pantaila blokeatzen edo desblokeatzen duzunean soinu bat egin dezan.
- **Soinua kargatzen:** gailua konfiguratzeko soinuak egin ditzan kargagailu batera konektatzen denean.
- **Bibrazio erantzuna:** gailua konfiguratzeko nabigazio-barrako botoiak sakatzen eta beste ekintza batzuk (adibidez, elementuak luze sakatzea) egiten direnean bibratzeko.
- **Telef. Teklatuaren tonuak:** gailua konfiguratzeko, teklatuko teklak sakatzean soinua egin dezan.
- **Teklatuaren soinua:** gailua konfiguratzeko, tekla bat sakatzean soinua egin dezan.

- **Teklatuaren bibrazioa:** gailua konfiguratzeko, tekla bat sakatzean bibratu dezan.
- **Soinu kalit. eta efektuak:** soinu-doikuntza osagarriak konfiguratzeko.

Soinu inguratzailearen modua ere aktibatu dezakezu. Ikusi [Dolby Atmos \(soinu inguratzailea\)](#) informazio gehiago izateko.

- **Aplikazioaren aparteko soinua:** gailua konfiguratzeko multimedia-soinua erreproduzitu dezan aplikazio jakin batetik beste aplikazio batzuekiko modu independentean konektatutako Bluetooth bozgorailuan edo entzungailuan. Adibidez, nabigazioa aplikazioa entzun dezakezu gailuaren bozgorailuan, Musika aplikazioko musika entzuten duzun bitartean ibilgailuko Bluetooth bozgorailuaren bidez.

Dolby Atmos (soinu inguratzailea)

Hautatu soinu inguratzailearen modu bat, audio-mota batzuetarako (filmak, musika eta ahotsa) optimizatua. Dolby Atmos aukerarekin inguruko mugimenduen audio-soinuak senti ditzakezu.

Ezarpenen pantailan, sakatu **Soinuak eta bibrazioa** → **Soinu kalit. Eta efektuak** → **Dolby Atmos**, sakatu etengailua aktibatzeko, eta, ondoren, hautatu modu bat.

Jakinarazpenak

Aplikazio bakoitzaren jakinarazpen-doikuntzak aldatu ditzakezu.

Doikuntza-pantailan, sakatu Jakinarazpenak.

Ikonoen bereizgarriak bistaratzeko, sakatu **Aplik. Ikonoaren bereizgarriak** etengailuak, aktibatzeko. Bereizgarriaren estiloa aldatzeko, sakatu **Aplik. Ikonoaren bereizgarriak**.



Zenbakiekin



Zenbakirik gabe

Aplikazio gehiagoren jakinarazpenen ezarpenak pertsonalizatzeko, sakatu **AURRERATU** eta hautatu aplikazio bat.

Pantaila

Aukerak

Pantailaren eta pantaila nagusiaren doikuntzak aldatzeko. Doikuntza-pantailan, sakatu Pantaila.

- **Argitasuna:** pantailaren distira doitzeko.
- **Argitasun automatikoa:** gailua konfiguratzeko, distira-doikuntzen segimendu bat egin dezan eta antzeko argi-kondizioetan automatikoki aplikatu ditzan.
- **Argi urdinaren iragazkia:** argi urdinaren iragazkia aktibatzeko eta iragazki-doikuntzak aldatzeko balio du. Informazio gehiago lortzeko, kontsultatu [Argi urdinaren iragazkia](#) atala.
- **Pant. Zooma eta letra:** pantailaren zoom-doikuntza edo letra-tipoa eta -tamaina aldatzeko.
- **Pantaila modua:** pantaila modua aldatzeko, pantailaren kolorea eta kontrastea doitzeko. Kontsultatu [Pantaila-modua aldatzea edo bistaratze-kolorea doitzea](#) informazio gehiago lortzeko.
- **Pantaila bereizmena:** pantailaren bereizmena aldatzeko. Ikusi [Pantaila-bereizmena](#) atala, informazio gehiago lortzeko.
- **Pantaila Nagusia:** laukiaren tamaina aldatzeko pantaila nagusian elementu gehiago edo gutxiago bistara daitezen, eta aukera gehiago.
- **Pantaila osoko aplikazioak:** pantaila osoko itxurarekin erabiliko diren aplikazioak hautatzeko.
- **Modu erraza:** modu errazera aldatzeko, ikonoak handiago bistara daitezen eta pantaila nagusiaren diseinua oinarritzekoagoa izan dadin.
- **Ikonoen markoak:** ikonoak nabarmentzeko atzeko aldea itzalarekin bistara dadin ezartzeko.
- **Ertzeko pantaila:** Edge pantailaren ezarpenak aldatzeko. Informazio gehiago nahi baduzu, ikusi [Edge pantaila](#) atala.
- **LED adierazlea:** gailua konfiguratzeko LED adierazlea pitz dadin pantaila itzalia duzula ahots-grabazio bat egiten duzunean, bateria kargatzen duzunean edo, jakinarazpenak jasotzen dituzunean.
- **Egoera barra:** doikuntzak pertsonalizatzeko, jakinarazpenak edo adierazleak egoera-barran bistara daitezen.

- **Nabigazio barra:** nabigazio-barraren doikuntzak aldatzeko. Ikusi [Nabigazio-barra \(tekla programagarriak\)](#) atala, informazio gehiago lortzeko.
- **Pantailaren denbora muga:** pantailaren atzeko argiztapena itzali aurretik zenbat denbora igarotzea nahi duzun aukeratzeko.
- **Blokeatu nahi gabeko ukituak:** gailua konfiguratzeko pantailak ez ditzan detektatu ukituak leku ilun batean dagoenean (adibidez, poltsikoan edo poltsan).
- **Pantaila babeslea:** gailua konfiguratzeko, pantaila-babesa bistara dezan kargatzen ari denean. Informazio gehiago eskuratzeko, ikusi [Pantaila-babesa](#).

Argi urdinaren iragazkia

Ikusmen-nekea murriztu dezakezu pantailak igortzen duen argi urdin kantitatea murriztuta.



HDR bideo-zerbitzu eksklusiboetako HDR bideoak bistaratzen dituzunean, litekeena da ez aplikatzea argi urdinaren iragazkia.

- 1 Ezarpenen pantailan, sakatu **Pantaila** → **Argi urdinaren iragazkia**, eta, gero, irristatu **Gaitu orain** aukeraren etengailua, aktibatzeko.
- 2 Irriatu doikuntza-barra, iragazkiaren opakutasuna doitzeko.
- 3 Programatzeko eta pantailari argi urdinaren iragazkia aplikatzeko, irristatu Gaitu programatu gisa etengailua, aktibatzeko, eta hautatu aukera bat.
 - Ilunabarretik egunsentira: gailua konfiguratzeko argi urdinaren iragazkia gauez aplika dezan eta goizez desaktibatu, kokapenaren arabera.
 - Programatu modu pertsonalizatuan: argi urdinaren iragazkirako denbora-tarte jakin bat konfiguratzeko.

Pantaila-modua aldatzea edo bistaratze-kolorea doitzea

Hautatu pantaila-modu egoki bat filmak edo argazkiak ikusteko, edo doitu bistaratze-kolorea, zuk nahi bezala. Adaptive display modua hautatzen baduzu, bistaratzearen kolore-balantzea doitu dezakezu, kolorearen balioaren arabera.

Pantaila-modua aldatzea

Ezarpenak pantailan, sakatu **Pantaila** → **Pantaila modua**, eta hautatu nahi duzun modua.

- **Bistaratzeko moldagarria:** pantailaren kolore-gama, -saturazioa eta -argitasuna optimizatzeko. Halaber, bistaratze-kolorearen balantzea doitu dezakezu, kolorearen balioaren arabera.
- **AMOLED zinema:** bideoak ikusteko aukera egokia da.
- **AMOLED argazkia:** argazkiak ikusteko aukera egokia da.
- **Oinarritzkoa:** lehenetsitako aukera da hauxe, eta erabilera orokorrerako egokia da.



- Bistaratzeko kolorea Adaptive display moduan bakarrik doitu daiteke.
- Baliteke **Adaptive display** modua bateragarria ez izatea hirugarrenen aplikazioekin.
- Ezin duzu pantailaren modua aldatu argi urdinaren iragazkia aplikatzean.

Pantaila osoaren kolore-balantzea optimizatzea

Bistaratzeko kolorea optimizatu dezakezu, kolore-tonuak zuk nahi bezala doitu.

Kolorea doitzeko barra **Hotza** aldera eramanda, urdin-tonua areagotu egingo da. Barra **Beroa** aldea eramaten baduzu, gorri-tonua areagotuko da.

1 Ezarpenen pantailan, sakatu **Pantaila** → **Pantaila modua** → **Adaptive display**.

2 Finkatu koloreen barra **Pantaila osoko koloreen balantzea** aukeran.

Pantaila osoaren kolore-balantzea optimizatuko da.



Pantailaren tonua doitzea, kolore-balioen arabera

Kolore-tonu jakin batzuk handitu edo murriztu, Gorria, Berdea edo Urdina balioak bereizita aldatuta.

- 1 Doikuntzen pantailan, sakatu **Pantaila** → **Pantaila modua** → **Bistaratzeko moldagarria**.
- 2 Markatu **Aukera aurreratuak**.
- 3 Doitu **Gorria**, **Berdea** edo **Urdina** kolore-barrak, zuk nahi bezala. Pantailaren tonua aldatu egingo da.


Pantailaren bereizmena

Pantailaren bereizmena alda dezakezu. Lehenespenez, FHD+ ezarrita dago. Zenbat eta bereizmen handiago izan, orduan eta biziagoa izango da irudia, baina bateria gehiago kontsumituko du gailuak.

- 1 Doikuntzen pantailan, sakatu **Pantaila** → **Pantaila bereizmena**.
- 2 Irristatu doikuntza-barra, pantailaren bereizmena doitzeko, eta, ondoren, sakatu **EZARRI**.
Litekeena da une horretan irekita dauden aplikazio batzuk ixtea bereizmena aldatuz gero.

Pantaila-babesa

Argazkiak pantaila-babes gisa jar ditzakezu, pantaila automatikoki itzaltzen denerako. Pantaila-babesa agertuko da kargatzen ari denean.

- 1 Doikuntzen pantailan, sakatu **Pantaila** → **Pantaila babeslea**, eta irristatu etengailua, aktibatzeko.
- 2 Hautatu aukera bat.
Argazki markoa hautatuz gero, aurkezpen bat abiaraziko da hautatutako argazkiekin. Argazki taula hautatuz gero, hautatutako argazkiak txartel txiki gisa bistaratuko dira, eta elkarren gainean jarriko dira.
- 3 Sakatu  argazkiak bistaratzeko bildumak hautatzeko.
- 4 Amaitutakoan, sakatu Atzera tekla.
Hautatutakoaren aurrebista ikusteko, sakatu **AURREIKUSPEN**.



Pantaila sakatzen duzunean, pantaila-babesa bistaratuko da eta pantaila piztu egingo da.

Pantaila-atzealdeak eta gaiak

Pantaila nagusiko eta blokeo-pantailako pantaila-atzealdearen doikuntzak alda ditzakezu edo zenbait gai aplikatu gailuari.

Doikuntza-pantailan, sakatu Horma-paperak eta gaiak.

- **Horma paperak:** pantaila nagusiaren eta blokeo-pantailaren pantaila-atzealdearen doikuntzak aldatzeko.
- **Gaiak:** gailuaren gaia aldatzeko.
- **Ikonoak:** ikonoen estiloa aldatzeko.
- **AODak:** hautatu irudi bat, Always On Display pantailan bistartzeko.

Funtzio aurreratuak

Aukerak

Funtzio aurreratuak aktibatu ditzakezu eta horiek kontrolatzeko doikuntzak aldatu. Doikuntza-pantailan, sakatu Eginbide aurreratuak.



Gailua gogorregi astinduz edo kolpatuz gero, sentsoreak erabiltzen dituzten funtzio batzuk aktibatu egin daitezke ustekabean.

- **Smart stay:** gailua konfiguratzeko, pantaila ez dadin itzali zu hari begira zauden bitartean.
- **Jokoak:** Game Launcher aktibatzeke. Informazio gehiago nahi baduzu, ikusi [Game Launcher](#).
- **Esku bakarreko eragiketa modua:** esku bakarrarekin erabiltzeko modua aktibatzeke, erosoago erabil dezazun gailua esku bakarrarekin.



Baliteke funtzio hori erabilgarri ez egotea, zure herrialdearen edo zerbitzu-hornitzailearen arabera.

- **Hatz sentsorearen keinuak:** gailua konfiguratzeko jakinarazpen-panela itxi edo ireki dezan hatza gora edo behera irristatzean hatz-markak ezagutzeko sentsorean. Funtzio hori ezin da erabili sentsorea zure hatz-marka detektatzen ari bada.
- **Kameraren Abiarazte azkarra:** gailua konfiguratzeko, pizteko tekla bitan azkar-azkar sakatuta kamera abiaraz dadin.



Baliteke funtzio hori erabilgarri ez egotea, zure herrialdearen edo zerbitzu-hornitzailearen arabera.

- **Gailuaren laguntza aplik.:** hautatu zer laguntza-aplikazio abiaraziko den hasierako botoia luze sakatutakoan. Gailuaren laguntza-aplikazioak gailuaren pantailari buruzko informazioa bilduko du, hari lotutako informazio, aplikazio eta funtzioen berri emango du.
- **Multiwindow:** hautatu Multiwindow exekutatzeko modu bat.
- **Kaptura osoa:** gailua konfiguratzeko, pantaila eta desplazamendu-eremuaren pantaila-argazki bat atera dezan. Ondoren, berehala ebaki eta partekatu ahal izango duzu pantaila-argazkia.
- **Irristatu esku-azpia kapturatzeko:** gailua konfiguratzeko, pantaila-argazki bat egin dezan eskua pantailan zehar ezkerredera nahiz eskuinera mugituta. Hartutako irudiak ikusteko, zoaz Galeria atalera.



Zenbait aplikazio eta funtzio erabiltzen ari zaren bitartean ezin dira hartu pantaila-argazkiak.

- **Direct call:** gailua konfiguratzeko gailua belarrira hurbildu hutsarekin pantailan agertzen diren mezuaren edo kontaktuaren xehetasunen kontaktuari deitzeko.
- **Smart alert:** gailua konfiguratzeko, galduak edo mezu berriak badaude alerta bat egin dezan.



Baliteke funtzio hau erabilgarri ez egotea pantaila piztuta badago edo gailua gainazal lau batean ez badago.

- **Mututzeko aukera erraza:** gailua konfiguratzeko, esku-ahurra mugituz edo pantaila behera begira jarriz sarrerako deien edo alarmen soinua desaktiba dezan.
- **Irris. deit. edo mez. bidaltzeko:** gailua konfiguratu du, hatza kontaktu edo telefono-zenbaki baten gainean ezkerredera edo eskuinera irristatuta dei bat egiteko edo mezu bat bidaltzeko **Telefonoa** edo **Kontaktuak** aplikazioetan.
- **Mezularitza duala:** instalatu bigarren aplikazioa, eta erabili bi kontu mezularitza-aplikazio bererako. Informazio gehiago eskuratzeko, ikusi [Mezularitza duala](#).

- **Bidali SOS mezuak:** gailua konfiguratzeko, pizteko/itzaltzeko botoia hiru aldiz sakatutakoan laguntza-mezuak bidal ditzan. Mezuekin batera soinu-grabazioak bidal diezazkiekezu hartzaileei.
- **Partek. zuzenean:** gailua konfiguratzeko erabilera partekatuko aukeren panelean bistara dezan norekin jarri zaren harremanetan edukia zuzenean partekatzeko.
- **Bideo hobetzailea:** zure bideoen irudi-kalitatea hobetzen du, kolore biziagoak izateko.



Baliteke funtzio hau aplikazio batzuetan erabilgarri ez egotea.

- **Ukipen-sentsibiltatea:** pantailaren ukipen-sentsibiltatea areagotu egiten da, pantaila-babesekin ere erabili ahal izateko.

Mezularitza duala


Instalatu bigarren aplikazioa, eta erabili bi kontu mezularitza-aplikazio bererako.

- 1 Ezarpenen pantailan, sakatu **Eginbide aurreratuak** → **Mezularitza duala**.

Aplikazio bateragarriak bistaratuko dira.

- 2 Sakatu aplikazio baten etengailua, bigarren aplikazioa instalatzeko.

Bigarren aplikazioa instalatuko da. Bigarren aplikazioren ikonoak hau izango du 📧. Bigarren aplikazioaren jakinarazpenak jasotzen dituzunean, jakinarazpenean 📧 agertuko da, lehenengo aplikazioko jakinarazpenetatik bereizteko.



Bigarren aplikazioa



- Baliteke mezularitza bikoitzeko funtzioa ez egotea erabilgarri, aplikazioaren arabera.
- Baliteke funtzio batzuk mugatuta egotea bigarren aplikazioan.

Bigarren aplikazioa desinstalatzea

- 1 Ezarpenen pantailan, sakatu **Eginbide aurreratuak** → **Mezularitza duala**.
- 2 Sakatu desaktibatu nahi duzun aplikazioaren etengailua, eta sakatu **DESAKTIBATU** edo **DESINSTALATU**.


Bigarren aplikazioari lotutako datu guztiak ezabatu egingo dira.



Lehenengo aplikazioa desinstalatzen baduzu, bigarren aplikazioa ere ezabatu egingo da.

Gailuaren mantentze-lanak

Gailuaren mantentze-lanak egiteko funtzioak hauen egoerari buruzko ikuspegi orokorra ematen du: gailuaren bateria, biltegitratzea, memoria eta sistemaren segurtasuna. Bestalde, gailua automatikoki optimizatzen da ukitze hutsarekin.



“Optimizazio bizkorra” funtzioa erabiltzea

Doikuntza-pantailan, sakatu Gailuaren mantentze lanak → KONPONDU edo OPTIMIZATU.

“Optimizazio bizkorra” funtzioak gailuaren errendimendua hobetzen du, honela:

- Biltegitzeko lekua eginda.
- Behar ez diren fitxategiak ezabatuta eta atzeko planoan exekutatzeko ari diren aplikazioak itxita.
- Bateriaren erabilera irregularra kudeatuta.
- Aplikazio blokeatuak eta malwarea bilatuta.

Bateria

Egiaztatu bateriaren karga-maila eta gailuari zenbat denbora geratzen zaion hura agortu aurretik. Bateriak karga gutxi duenean, aurreztu bateria energia aurrezteko funtzioak aktibatuta.

Doikuntzen pantailan, sakatu Gailuaren mantentze lanak → Bateria.





- Geratzen den erabilera-denborak erakusten du zenbat denbora gelditzen den bateria erabat agortu arte. Kargatze-denbora aldatu egin liteke, gailuaren doikuntzen eta funtzionamendu-baldintzen arabera.
- Litekeena da energia aurrezteko modua erabiltzen duten aplikazioen jakinarazpen batzuk ez jasotzea.

Energia aurrezteko modua

- **ERTAINA:** aktibatu energia aurrezteko modua bateriaren erabilera-iraupena luzatzeko.
- **GEHI.:** Energia asko aurrezteko moduan, gailuak bateriaren kontsumoa murrizten du, gai ilun bat aplikatuta eta erabilgarri dauden aplikazio eta funtzioak mugatuta. Sare-konexioak, sare mugikorra salbu, desaktibatu egingo dira.

Bateria kudeatzea

Bateria aurreztu dezakezu, bigarren planoan exekutatzeko diren aplikazio batzuk erabiltzen ez dituzunean haiek bateria erabiltzea saihestuz. Hautatu zerrendako aplikazioak, eta sakatu **AURREZTU**. Halaber, sakatu  → Ezarpen aurreratuak, eta konfiguratu **Aplikazioaren bateria kontrola**.

Gailua konfiguratu dezakezu bateria bizkorrerako kargatu dezan. Sakatu  → **Ezarpen aurreratuak** eta irristatu **Kabledun kargatze azkarra** etengailua, aktibatuzeko.

Errendimendu modua

Aldatu gailuaren errendimendu modua erabileraren arabera —nola jokutzen den edo musika erreproduzitzen den, adibidez— emaitza onenak lortzeko.

Ezarpenen pantailan, sakatu **Gailuaren mantentze lanak** → **Errendimendu modua**.

- **Optimizatua (gomendat.):** orekatu bateria-maila eta pantailaren bereizmena, egunero erabiltzeko.
- **Jokoa:** hobetu zure joko-esperientzia, jokoen fluidotasuna handituz.
- **Musika eta bideoak:** aplikatu kalitate goreneko soinu, irudi eta pantaila-doikuntzak, musikaz eta bideoez askoz gehiago gozatzeko.
- **Errendimendu handia:** aplikatu pantailaren kalitate handieneko doikuntzak.



Bateriaren kargaren kontsumoa moduaren arabera handituko da.

Biltegitratzea

Ikusi zenbat memoria erabil daitekeen eta zenbat dagoen erabilia.

Doikuntzen pantailan, sakatu Gailuaren mantentze lanak → Biltegitratzea.



- Barne-memoriaren gaitasuna zehaztutakoa baino txikiagoa da, sistema eragileak eta lehenetsitako aplikazioek haren zati bat hartzen baitute. Eskuragarri dagoen gaitasuna aldatu egin liteke gailua eguneratu ondoren.
- Gailuaren barne-memoriak zer edukiera duen ikusteko, kontsultatu zure gailuaren zehaztapenen atala, Samsungen webgunean.

Memoria kudeatzea

Fitxategi hondarrak ezabatzeko (adibidez, cache memoria), sakatu **GARBITU**. Fitxategiak ezabatzeko edo erabiltzen ez dituzun aplikazioak desinstalatzeko, hautatu kategoria bat Erabiltzailearen datuak aukeran. Ondoren, markatu hautatu nahi duzun elementua, eta sakatu **EZABATU** edo **DESINSTALATU**.

Memoria

Ezarpenen pantailan, sakatu **Gailuaren mantentze lanak** → **RAM**.

Bigarren mailan exekutatzen diren aplikazioak etendakoan gailuaren funtzionamendua bizkortzeko, markatu aplikazioak aplikazio-zerrendan, eta sakatu **GARBITU**.

Segurtasuna

Ikusi gailuaren segurtasun-egoera. Funtzio honek gailua analizatzen du malware bila.

Ezarpenen pantailan, sakatu **Gailuaren mantentze lanak** → **gailuaren seg.** → **BILATU TELEFONOAN.**

Aplikazioak

Gailuen aplikazioak kudeatzeko eta haien konfigurazioa aldatzeko aukera ematen du. Aplikazioaren erabilerari buruzko informazioa ikus dezakezu, jakinarazpenen do baimenen doikuntzak aldatu edo behar ez dituzun aplikazioak desgaitu.

Doikuntza-pantailan, sakatu **Aplikazioak**.

Blokeo- eta segurtasun-pantaila

Aukerak

Aldatu doikuntzak, gailua babesteko.

Doikuntza-pantailan, sakatu **Pan. blokeo eta segurtas.**



Eskuragarri dauden aukerak aldatu egin litezke, pantaila desblokeatzeko aukeratutako moduaren arabera.

- **Pantaila blokeo mota:** pantaila blokeatzeko modua aldatzeko.
- **Smart Lock:** gailua konfiguratzeko blokeo-pantaila desblokeatzeko konfiantzazko gailuak edo kokapenak detektatzen direnean. Informazio gehiago eskuratzeko, ikusi [Smart Lock](#) atala.
- **Segurtasun blokeoaren ezarpenak:** Hautatutako blokeatze-moduaren pantaila blokeatzeko doikuntzak aldatzeko.
- **Eskaneatze adimenduna:** erregistratu zure aurpegia eta irisa gailuan pantaila erosoago desblokeatzeko. Informazio gehiago eskuratzeko, ikusi [Escaneo inteligente](#).
- **Aurpegi bidezko hautematea:** gailua konfiguratzeko, aurpegia ezagutuz pantaila desblokea dadin. Informazio gehiago eskuratzeko, kontsultatu [Aurpegia ezagutzea](#).
- **Iris eskanerra:** erregistratu zure irisa pantaila desblokeatzeko. Ikusi [Irisa ezagutzea](#) atala, informazio gehiago lortzeko.

- **Hatz markak:** erregistratu zure hatz-markak, pantaila desblokeatzeko. Ikusi [Hatz-markak ezagutzea](#) atala, informazio gehiago lortzeko.
- **Always On Display:** gailua konfiguratzeko informazioa bistaratu dezan pantaila itzalita dagoenean. Informazio gehiago nahi baduzu, ikusi [Always On Play](#) atala.
- **Erlojua eta FaceWidget-ak:** Always On Display pantailan edo blokeo-pantailan bistaratzen diren elementuetako doikuntzak aldatzeko.
- **Jakinarazpenak:** Always On Display pantailan edo pantaila blokeatuta dagoela jakinarazpenen edukia bistaratzea nahi duzun ala ez konfiguratzeko eta zer jakinarazpen nahi duzun bistaratzea aukeratzeko.
- **Blokeo pantailako jakinarazpenak:** blokeatutako pantailan zer aplikazioen lasterbideak bistaratzea nahi duzun hautatzeko.
- **Google Play Protect:** konfiguratu gailua aplikazio edo jokaera kaltegarriak badagoen egiazta dezan, eta elementu kaltegarrien berri eman eta horiek ezaba ditzan.
- **Bilatu nire mugikorra:** gailua aurkitzen lagunduko dizun mugikor-bilatzailearen funtzioa aktibatzeke zein desaktibatzeke. Sartu Find My Mobile (findmymobile.samsung.com) webgunean, galdutako edo lapurtutako gailua arakatu eta kontrolatzeko.

Horrez gain, Googleren kokapen-zerbitzua onar dezakezu, zure gailuaren kokapenari buruzko informazio xehea eman diezazun.

- **Segurtasun-eguneratzea:** eguneratu gailuaren softwarea, Firmware over-the-air (FOTA) zerbitzuaren bidez. Halaber, software-eguneratzeak programatu ditzakezu.
- **Samsung Pass:** egiaztatu zure identitatea modu erraz eta seguru batean, datu biometrikoen bidez. Informazio gehiago nahi baduzu, ikusi [Samsung Pass](#) atala.
- **Karpeta segurua:** karpeta seguru bat sortzeko, zure eduki eta aplikazio pribatuak babestu ditzan. Informazio gehiago nahi baduzu, ikusi [Karpeta segurua](#).
- **Aplikazio baimenen kontrola:** gailua konfiguratzeko jakinarazpenak jaso ditzan, hautatutako baimenak erabiltzen ari ez den aplikazioek erabiltzen dituztenean. Aplikazio bakoitzaren doikuntzak kudeatu ditzakezu, eta baimenen erabilera-historia ikusi.
- **Abiarazte segurua:** gailua babesteko, gailua pizteko sartu beharreko desblokeatze-kode bat konfiguratu. Desblokeatze-kodea sartu behar duzu, gailua pizteko eta mezuak eta jakinarazpenak jasotzeko.
- **Enkriptatu SD txartela:** gailua konfiguratzeko, memoria-txarteleko fitxategiak zifratu ditzan.



Doikuntza hau aktibatuta dagoela balio lehenetsiak jartzen badizkiozu berriro gailuari, gailuak ezin izango ditu irakurri zifratutako fitxategiak. Desaktibatu doikuntza hori gailua leheneratu aurretik.

- **Bestelako segurtasun ezarpenak:** segurtasuneko aukera gehigarriak kontrolatzeko.



Eskaneatze adimenduna erabiltzean hartu behar diren neurriak

Eskaneatze adimenduna erabili aurretik, kontuan izan neurri hauek.

- Ikusmena babesteko, jarri pantaila zure aurpegitik gutxienez 20 cm-ra irisaren errekonozimendua erabili behar duzunean.
- Pantaila-babes bat jartzen baduzu (pribatutasuna babesteko filmak, beira epeleko babesgarriak eta abar), baliteke eskaneatzea behar bezala ez egitea.
- Ez erabili funtzio hau hurrekin. Bestela, kalte egin dakieke haien begiei.
- Zorabioak, atakeak, konorte-galtzeak edo epilepsiari lotutako beste sintoma batzuk dituztenek edo familiar sintoma edo gaitz horiek dituen norbait dutenek medikuarekin hitz egin behar dute funtzio hau erabili aurretik.
- Eskaneatze adimenduna ez da erabili behar prebentzio medikoetarako, xede terapeutikoetarako edo diagnostikoetarako.
- Zure antza duen norbaitek telefonoa desblokea dezake.
- Babestu zure telefonoa eta ez utzi beste inork desblokea dezan.

Aurpegia eta irisa hobeto ezagutzea

Baliteke telefonoak zure irisak edo aurpegia ez ezagutzea, baldin eta:

- zerbaitek ez du uzten zure aurpegia edo begiak ondo identifikatzen (adibidez, betaurrekoak, lentillak, kapelak, betazal erdi itxiak, begiko ebakuntza egin berria, gaixotasunen bat, zikinkeria, kameran kalteak edo gehiegizko mugimendua).

Irisak eta aurpegia erregistratzea

- 1** Ezarpenen pantailan, sakatu **Pan. Blokeo eta segurtas.** → **Eskaneatze adimenduna.**
- 2** Desblokeatu pantaila aurrez finkatutako metodoa erabiliz.
Ez baduzu pantaila blokeatzeko metodorik ezarri, sortu bat.

3 Irakurri pantailako argibideak, eta sakatu **JARRAITU**.

4 Erregistratu zure aurpegia eta irisak.

Informazio gehiago eskuratzeko, ikusi [Aurpegia ezagutzea](#) eta [Irisa ezagutzea](#).

Eskaneatze adimendunaren bidez desblokeatzeko pantaila bat agertzen bada, sakatu **AKTIBATU** pantaila aurpegia edo irisak ezagututa desblokeatzeko.

Erregistratuta dauden aurpegia eta irisa ezabatzea

Erregistratu dituzun aurpegia eta irisa ezabatu ditzakezu.

1 Ezarpenen pantailan, sakatu **Pan. Blokeo eta segurtas.** → **Eskaneatze adimenduna.**

2 Pantaila blokeatzeko aurrez ezarritako modua erabilia desblokeatu pantaila.

3 Sakatu **Kendu aurpegiaren datuak.**

Erregistratutako aurpegia eta irisak ezabatu ondoren, haiei lotutako funtzio guztiak desaktibatuko dira.

Pantaila desblokeatzea eskaneatze adimendunaren bidez

Pantaila aurpegiarekin eta irisekin desblokeatu dezakezu patroiarekin, PINarekin edo pasahitzarekin egin beharrean.

1 Ezarpenen pantailan, sakatu **Pan. Blokeo eta segurtas.** → **Eskaneatze adimenduna.**

2 Desblokeatu pantaila aurrez finkatutako metodoa erabiliz.

3 Sakatu **Eskaneatze adimenduna Desblok.** etengailua, aktibatzeko.

4 Blokeatutako pantailan, begiratu pantailara.

Aurpegia eta irisa ezagutzen dituenean, pantaila desblokeatu ahal izango duzu hura desblokeatzeko beste modurik erabili beharrik gabe. Ezagutzen ez badu, erabili blokeatzeko aurrez ezarritako modua.

Aurpegia ezagutzea

Gailua konfiguratu dezakezu, aurpegia ezagutzeko gero pantaila desblokeatu dezan.



- Zure aurpegia erabiltzen baduzu pantaila blokeatzeko modu gisa, ezingo duzu pantaila desblokeatzeko erabili lehen aldiz gailua piztean. Gailua erabiltzeko, pantaila desblokeatu behar duzu aurpegia erregistratu zenuenean konfiguratu zenuen patroia, PINa edo pasahitza erabilia. Ez ahaztu zurea.
- Pantaila blokeatzeko modu gisa **Mugitu** edo **Batere ez** hautatzen baduzu (aukera horiek ez dira seguruak), datu biometriko guztiak ezabatu egingo dira. Aplikazio edo funtzio batzuetan (adibidez, **Samsung Pass** eta **Samsung Pay**) datu biometrikoak erabili nahi badituzu, berriro erregistratu beharko dituzu zure datu biometrikoak.



Aurpegia ezagutzeko funtzioa erabiltzean hartu behar diren neurriak

Gailua desblokeatzeko aurpegia ezagutzeko aukera erabili aurretik, kontuan hartu neurri hauek:

- Zure antza duen norbaitek edo zerbaitek gailua desblokeatu dezake.
- Aurpegia ezagutzeko funtzioa ez da erdua, PINa eta pasahitza bezain segurua.

Aurpegia hobeto ezagutzeko

Kontuan izan puntu hauek, aurpegia ezagutzeko funtzioa erabiltzen duzunean:

- Erregistroaren baldintzak; adibidez, betaurrekoak, txapela, maskara, bizarra edo makillaje asko zenuen..
- Erregistratzean, ziurtatu argi askoko eremu batean zaudela eta kameraren lentea garbia dagoela.
- Ziurtatu zure irudia ez dela lausoa, bat-etortzearen emaitzak hobetzeko.

Aurpegia erregistratzea


Aurpegia hobeto ezagutzeko, erregistratu aurpegia leku estaliren batean, zuzeneko eguzki-argitik urrun.

1 Ezarpenen pantailan, sakatu **Pan. Blokeo eta segurtas.** → **Aurpegi bidezko hautematea.**

2 Desblokeatu pantaila aurrez finkatutako metodoa erabiliz.

Ez baduzu pantaila blokeatzeko metodorik ezarri, sortu bat.

- 3 Irakurri pantailako argibideak, eta sakatu **JARRAITU**.
- 4 Eutsi gailuari pantaila zuri begira dagoela, eta begiratu iezaiozu.



- 5 Jarri aurpegia pantailako zirkuluaren barruan.
Kamerak zure aurpegia eskaneatuko du.



Aurpegia ezagutuz pantaila desblokeatzeko moduak ondo funtzionatzen ez badu, sakatu **Kendu aurpegiaren datuak** erregistratutako aurpegia ezabatzeko eta berriro erregistratzeko.

Erregistratuta dagoen aurpegia ezabatzea

Erregistratu duzun aurpegia ezabatu dezakezu.

- 1 Ezarpenen pantailan, sakatu **Pan. Blokeo eta segurtas.** → **Aurpegi bidezko hautematea.**
- 2 Desblokeatu pantaila aurrez finkatutako metodoa erabiliz.
- 3 Sakatu **Kendu aurpegiaren datuak.**

Erregistratutako aurpegia ezabatu ondoren, hari lotutako funtzio guztiak desaktibatuko dira.

Pantaila aurpegiaren bidez desblokeatzea

Pantaila aurpegia ezagututa desblokeatu dezakezu patroiarekin, PINarekin edo pasahitzarekin egin beharrean.

- 1 Ezarpenen pantailan, sakatu **Pan. Blokeo eta segurtas.** → **Aurpegi bidezko hautematea.**
- 2 Desblokeatu pantaila aurrez finkatutako metodoa erabiliz.

3 Irristatu **Aurpegi bidezko desblokeoa** etengailua, aktibatzeke.



Aurpegiak argazkietan eta bideoetan ezagutzeko aukera murrizteko, sakatu **Hautemate bizkorragoa** etengailua funtzio hori desaktibatzeke. Hori egitean, aurpegiak ezagutzeko aukerak denbora gehiago behar du.

4 Blokeatutako pantailan, begiratu pantailara.

Aurpegia ezagutzen duenean, pantaila desblokeatu ahal izango duzu beste modurik erabili beharrik gabe. Ezagutzen ez badu, erabili blokeatzeko aurrez ezarritako modua.

Irisa ezagutzea

Irisa ezagutzeko funtzioak iriseko ezaugarri bereziak erabiltzen ditu (adibidez, forma eta eredu), gailuaren segurtasuna hobetzeko. Iriseko datuak zenbait autentifikazio-helburutarako erabil daitezke. Erregistratu ondoren, gailua konfiguratu dezakezu ondorengo funtzioetan irisa ezagutzeko aukera erabiltzeko:

- Samsung Pass (Samsung account-en egiaztapena eta saioen hasiera webguneetan)
- Samsung Pay
- Pantaila blokeatzea
- Karpeta segurua



- Baliteke funtzio hori erabilgarri ez egotea, zure herrialdearen edo zerbitzu-hornitzailearen arabera.
- Zure irisak erabiltzen badituzu pantaila blokeatzeko modu gisa, ezingo dituzu pantaila desblokeatzeko erabili lehen aldiz gailua piztean. Gailua erabiltzeko, pantaila desblokeatu behar duzu irisa erregistratu zenuenean konfiguratu zenuen patroia, PINa edo pasahitza erabilia. Ez ahaztu zurea.
- Zure irisak ez baditu ezagutzen, desblokeatu gailua irisak erregistratzean ezarri zenuen patroia, PINa edo pasahitza erabilia, eta, gero, berriro erregistratu irisa. Patroia, PINa edo pasahitza ahazten bazaizu, ezingo duzu gailua erabili, baldin eta berrezartzen ez baduzu. Samsungek ez du bere gain hartzen ez datuen galera ez desblokeatze-kodeak ahaztu izanagatik sortutako eragozpenak.
- Pantaila blokeatzeko modu gisa **Mugitu** edo **Batere ez** hautatzen baduzu (aukera horiek ez dira seguruak), datu biometriko guztiak ezabatu egingo dira. Aplikazio edo funtzio batzuetan (adibidez, **Samsung Pass** eta **Samsung Pay**) datu biometrikoak erabili nahi badituzu, berriro erregistratu beharko dituzu zure datu biometrikoak.



Irisa ezagutzeko funtzioa erabiltzean hartu behar diren neurriak


irisa ezagutzeko funtzioa erabili aurretik, kontuan izan neurri hauek:

- Ikusmena babesteko, jarri pantaila zure aurpegitik gutxienez 20 cm-ra irisaren errekonozimendua erabili behar duzunean.
- Pantaila-babes bat jartzen baduzu (pribatutasuna babesteko filmak, beira epeleko babesgarriak eta abar), baliteke eskaneatzea behar bezala ez egitea.
- Ez erabili irisa ezagutzeko funtzioa hurrekin. Bestela, kalte egin dakieke haien begiei.
- Zorabioak, atakeak, konorte-galtzeak edo epilepsiari lotutako beste sintoma batzuk dituztenek edo familiar sintoma edo gaitz horiek dituen norbait dutenek medikuarekin hitz egin behar dute irisa ezagutzeko funtzioa erabili aurretik.
- Iris-eskanerrak bildu eta maila lokalean gordetzen dituen datu biometrikoak ez dira erabili behar diagnostiko-xedeetarako, xede terapeutikoetarako edo prebentzio medikorako.

Gailuak hobeto errekonoziti ditzan zure irisak

Baliteke telefonoak irisak ez ezagutzea, baldin eta:

- zerbaitek eragozten badu kamerak zure irisen ikuspegi ona izatea (adibidez, betaurrekoak, betazal erdi itxiak, begiko ebakuntza egin berria, kameran kalteak, zikinkeria edo gehiegizko mugimendua).
- argiztapena zure irisak erregistratu zenituenekoaren oso bestelakoa bada (adibidez, zuzeneko eguzki-argiarekin). Eutsi gailuari zure aurpegitik gutxi gorabehera 25-35 cm-ra, pantaila zuri begira dagoela.




Irisak erregistratu



Gailuak pertsona baten irisei buruzko datuak bakarrik gorde ditzake. Ezin ditu erregistratu bi iris baino gehiago.

- 1 Ezarpenen pantailan, sakatu **Pan. Blokeo eta segurtas.** → **Iris eskanerra.**
- 2 Pantaila blokeatzeko aurrez ezarritako modua erabilia desblokeatu pantaila. Ez baduzu pantaila blokeatzeko metodorik ezarri, sortu bat.
- 3 Jarraitu pantailako argibideei eta sakatu **JARRAITU**. Iris bat bakarrik erregistratzeko, sakatu **Erregistratu iris bakarra**.
- 4 Eutsi gailuari pantaila zuri begira dagoela, eta begiratu iezaiozu.



5 Jarri begiak pantailako zirkuluen barruan, eta ireki itzazu ondo.

Irisa ezagutzeko kamerak zure irisak eskaneatuko ditu.

Iris bidez desblokeatzeko pantaila bat agertzen bada, sakatu **AKTIBATU** pantaila irisa ezagututa desblokeatzeko.



Erregistratuta dauden irisak ezabatzea

Erregistratu dituzun irisak ezaba ditzakezu.

1 Ezarpenen pantailan, sakatu **Pan. Blokeo eta segurtas** → **Iris eskanerra**.

2 Desblokeatu pantaila aurrez finkatutako metodoa erabiliz.

3 Sakatu **Kendu irisen datuak**.

Erregistratutako irisak ezabatu ondoren, haiei lotutako funtzio guztiak desaktibatuko dira.

Samsung Pass erabiltzea

Zure irisak Samsung Pass-en erregistratzen dituzunean, horiek erabil ditzakezu zure identitatea erraz egiaztatzeko edo webgune batean saio bat abiarazteko. Informazio gehiago nahi baduzu, ikusi [Samsung Pass](#) atala.

Samsung Pay-rekin irisak erabiltzea

Samsung Pay-rekin irisak erabil ditzakezu ordainketa bizkor eta seguru egiteko. Informazio gehiago nahi baduzu, ikusi [Samsung Pay](#) atala.





Baliteke Samsung Pay erabilgarri ez egotea, herrialdearen edo zerbitzu-hornitzailearen arabera.

Pantaila desblokeatzea irisen bidez

Pantaila irisekin desblokeatu dezakezu patroiarekin, PINarekin edo pasahitzarekin egin beharrean.

- 1 Ezarpenen pantailan, sakatu **Pan. Blokeo eta segurtas.** → **Iris eskanerra.**
- 2 Pantaila blokeatzeko aurrez ezarritako modua erabiltuta desblokeatu pantaila.
- 3 Irristatu **Iris bidez desblokeatzea** etengailua, aktibatzeko.
- 4 Pantaila blokeatuan, irristatu hatza edozein norabidetan, eta jarri begia zure irisak eskaneatzeko zirkuluaren barruan.



Irisa ezagutzeko funtzioa erabiliz desblokeatzeko pantaila, pantaila blokeatuan hatza irristatu beharrik gabe, sakatu **Iris desbl. Pant. Piztuta** etengailua, aktibatzeko.

Hatz-markak ezagutzea

Hatz-markak ezagutzeko aukerak funtziona dezan, hatz-marken informazioa gailuan erregistratu eta biltegitatu behar da. Erregistratu ondoren, gailua konfiguratu dezakezu ondorengo funtzioetan hatz-markak ezagutzeko aukera erabiltzeko:

- Samsung Pass (Samsung account-en egiaztapena eta saioen hasiera webguneetan)
- Samsung Pay
- Pantaila blokeatzea
- Karpeta segurua



- Baliteke funtzio hori erabilgarri ez egotea, zure herrialdearen edo zerbitzu-hornitzailearen arabera.
- Hatz-markak ezagutzeko aukerak hatz-marka bakoitzaren bereizgarriak erabiltzen ditu gailuaren segurtasuna hobetzeko. Oso baxua da hatz-marken sentsoareak bi hatz-marka desberdin nahasteko probabilitatea. Baina, hatz-markak oso antzekoak baldin badira (oso zaila da hori), gerta daiteke sentsoareak berdintzat jotzea.
- Zure hatz-marka erabiltzen baduzu pantaila blokeatzeko modu gisa, ezingo duzu pantaila desblokeatzeko erabili lehen aldiz gailua piztean. Gailua erabiltzeko, pantaila desblokeatu behar duzu hatz-marka erregistratu zenuenean konfiguratu zenuen patroia, PINa edo pasahitza erabilia. Ez ahaztu zurea.
- Zure hatz-markak ez baditu ezagutzen, desblokeatu gailua hatz-marka erregistratzean ezarri zenuen patroia, PINa edo pasahitza erabilia, eta, gero, berriro erregistratu hatz-markak. Patroia, PINa edo pasahitza ahazten bazaizu, ezingo duzu gailua erabili, baldin eta berrezartzen ez baduzu. Samsungek ez ditu bere gain hartzen ez datuen galerak ez desblokeatze-kodeak ahaztu izanagatik sortutako eragozpenak.
- Pantaila blokeatzeko modu gisa **Mugitu** edo **Batere ez** hautatzen baduzu (aukera horiek ez dira seguruak), datu biometriko guztiak ezabatu egingo dira. Aplikazio edo funtzio batzuetan (adibidez, **Samsung Pass** eta **Samsung Pay**) datu biometrikoak erabili nahi badituzu, berriro erregistratu beharko dituzu zure datu biometrikoak.

Gailuak zure hatz-markak hobeto ezagutzeko

Hatzak gailuaren gainean jartzen dituzunean, kontuan izan funtzioaren errendimenduari eragin diezaioketen egoera hauek:

- Hatz-markak ezagutzeko sentsoreak, hatz-markak ezagutzen ditu. Kontuz ibili, sentsore hori ez dadin marratu edo kaltetu metalezko objektuekin, hala nola txanponak, giltzak edo lepokoak.
- Hatz-markak ezagutzeko sentsorea babes-geruza, itsasgarri edo beste zerbaitekin batekin estaliz gero, baliteke sentsoreak ez ondo funtzionatzea. Eremu hori babes-geruza batez estalia baldin baduzu, ken ezazu sentsorea erabili aurretik.
- Ziurtatu hatz-markak ezagutzeko sentsorea eta zure hatzak garbi eta lehor daudela.
- Baliteke gailuak hatz-markak ez ezagutzea, zimurrak edo orbainak badituzte.
- Baliteke gailuak ez ezagutzea hatz txiki edo finen markak.
- Hatza tolesten baduzu edo hatz baten punta erabiltzen baduzu, baliteke gailuak ez ezagutzea zure hatz-markak. Ziurtatu hatz-markak ezagutzeko sentsorea erabat estali duzula hatzarekin.
- Hobeto ezagutzeko, erregistratu gailuko lanak egiteko sarrien erabiltzen duzun eskuko hatz-markak.
- Inguru lehorretan, baliteke elektrizitate estatikoa pilotzea gailuan. Ahal dela, ez erabili funtzio hau horrelako lekuetan. Bestela, funtzioa erabili aurretik, deskargatu elektrizitate estatikoa metalezko objektu bat ukituz.

Hatz-markak erregistratzea

- 1 Doikuntzen pantailan, sakatu Pan. Blokeo eta segurtas. → Hatz markak.
- 2 Desblokeatu pantaila aurrez finkatutako metodoa erabiliz.
Ez baduzu pantaila blokeatzeko metodorik ezarri, sortu bat.

Samsung Pay-rekin hatz-marka erabiltzea

Samsung Pay-rekin hatz-markak erabil ditzakezu ordainketa bizkor eta seguru egiteko. Informazio gehiago nahi baduzu, ikusi [Samsung Pay](#) atala.



Baliteke Samsung Pay erabilgarri ez egotea, herrialdearen edo zerbitzu-hornitzailearen arabera.

Pantaila hatz-marken bidez desblokeatzea

Pantaila hatz-markarekin desblokeatu dezakezu patroiarekin, PINarekin edo pasahitzarekin egin beharrean.

- 1 Doikuntzen pantailan, sakatu Pan. Blokeo eta segurtas. → Hatz markak.
- 2 Desblokeatu pantaila aurrez finkatutako metodoa erabiliz.
- 3 Sakatu **Hatz aztarnen desblokeoa** etengailua, aktibatzeko.
- 4 Pantaila blokeatuta dagoela, jarri hatza hatz-markak ezagutzeko sentsorean, zure hatz-marka eskaneatzeko.

Samsung Pass

Samsung Pass-ekin errazago eta seguruago has dezakezu saioa Samsung account-en, web-orrietan edo aplikazioetan zure datu biometrikoen bidez (adibidez, hatz-markak edo irisa), saioa hasteko datuak sartu beharrean.

Erregistratu zure datu biometrikoak Samsung Pass-en, eta konfiguratu web-orrietan edo aplikazio bateragarrietan datuak Samsung Pass bidez erabiliz hasteko saioa.



- Funtzio hori erabiltzeko, gailuak WiFi sare batera edo sare mugikor batera konektatuta egon behar du.
- Halaber, Samsung account-en izena eman eta saioa hasi behar duzu. Informazio gehiago eskuratzeko, ikusi [Samsung account](#).
- Internet aplikazioaren bidez sartzen zaren webguneetan bakarrik dago saioa hasteko funtzioa. Litekeena da webgune batzuk funtzio horrekin bateragarriak ez izatea.


Samsung Pass-en erregistratzea

Samsung Pass erabili aurretik, erregistratu zure datu biometrikoak:

- 1 Doikuntzen pantailan, sakatu **Pan. Blokeo eta segurtas.** → **Samsung Pass.**
- 2 Irakurri pantailako jarraibideak, eta sakatu **HASI SAIOA.**
- 3 Sartu zure Samsung account-eko IDa eta pasahitza, eta sakatu **HASI SAIOA.**
- 4 Irakurri eta onartu baldintzak, eta sakatu **HURRENGOA.**
- 5 Sakatu **HATZ AZTARNAK** edo **IRIS**, eta erregistratu zure hatz-marka digitalak edo irisa.
Ikusi [Hatz-markak ezagutzea](#) edo [Irisa ezagutzea](#) atala, informazio gehiago lortzeko.
- 6 Eskaneatu zure hatz-marka digitala edo zure irisa, eta sakatu **HURRENGOA** Samsung Pass-eko erregistroa bukatzeko.
Gehitu Samsung Pass Pantaila n... aukera markatuta baldin badago, Samsung Pass-en ikonoa pantaila nagusian bistaratuko da.

Samsung account-eko pasahitza egiaztatzea

Samsung Pass erabil dezakezu, Samsung account-eko pasahitza egiaztatzeko. Zure datu biometrikoak erabil ditzakezu pasahitza idatzi ordez, adibidez Galaxy Apps-eko edukiak erostean.

- 1 Doikuntzen pantailan, sakatu **Pan. Blokeo eta segurtas.** → **Samsung Pass.**
- 2 Desblokeatu pantaila aurrez finkatutako metodoa erabiliz.
- 3 Sakatu  → **Ezarpenak** → **Samsung account** eta, ondoren, sakatu **Erabili Samsung Pass aplikazioa..** etengailua, hura aktibatzeko.

Samsung Pass erabiltzea webguneetan saioa hasteko

Samsung Pass erabili dezakezu IDa eta pasahitza automatikoki gordetzeko aukera ematen duten webguneetan saioa erraz-erraz hasteko.

- 1 Ireki saioa hasteko erabili nahi duzun webgunea.
- 2 Idatzi zure erabiltzaile-izena eta pasahitza, eta, ondoren, sakatu saioa hasteko botoia.
- 3 Saioaren hasierari buruzko informazioa gorde nahi duzun galdetzen duen leiho bat bistaratzen zaizunean, markatu **Iniciar sesión con datos biométricos mediante Samsung Pass** aukera, eta sakatu **GOGORATU**.

Orain, Samsung Pass-en erregistratutako datu biometrikoak erabili ahal izango dituzu saioa webgunean hasteko.

Samsung Pass erabiltzea aplikazioetan saioa hasteko


Samsung Pass erabili dezakezu IDa eta pasahitza automatikoki gordetzeko aukera ematen duten aplikazioetan saioa erraz-erraz hasteko.

- 1 Ireki saioa hasteko erabili nahi duzun aplikazio bat.
- 2 Idatzi zure erabiltzaile-izena eta pasahitza, eta, ondoren, sakatu aplikazioan saioa hasteko botoia.
- 3 Saioaren hasierari buruzko informazioa gordetzea nahi duzun galdetzen duen leihoa bistaratzen denean, sakatu **GORDE**.

Orain, Samsung Pass-en erregistratutako datu biometrikoak erabili ahal izango dituzu aplikazio horretan saioa hasteko.

Saio hasteko informazioa kudeatzea

- 1 Begiratu Samsung Pass erabiltzeko webgune eta aplikazio hautatuen zerrenda, eta kudeatu saioa hasteko informazioa.
- 2 Doikuntzen pantailan, sakatu **Pan. Blokeo eta segurtas.** → **Samsung Pass**. Pantaila blokeatzeko aurrez ezarritako modua erabilia desblokeatu pantaila.

- 3 Hautatu webgune bat edo aplikazio bat zerrendan.
- 4 Sakatu  → **Editatu**, eta aldatu zure IDa, pasahitza eta webgunearen edo aplikazioaren izena. Webgunea edo aplikazioa ezabatzeko, sakatu (...) → **Ezabatu**.

Samsung Pass webguneekin eta aplikazioekin erabiltzea

Samsung Pass-ekin saioa erraz hasi ahalko duzu erabiltzen dituzun aplikazio edo webgune bateragarrietan.


Samsung Pass-ekin bateragarriak diren webgune eta aplikazioen zerrenda ikusteko, ireki ezarpenen pantaila, sakatu **Pan. blokeo eta segurtas.** → **Samsung Pass** eta, ondoren, hautatu webgunearen edo aplikazioaren fitxa. Samsung Pass-ekin bateragarria den aplikaziorik edo webgunerik ez badago, ez da agertuko gunearen edo aplikazioaren fitxa.



- Lurraldearen edo zerbitzu-hornitzailearen arabera, webgune eta aplikazio desberdinak egon daitezke erabilgarri.
- Samsungek ez du bere gain hartzen Samsung Pass bidez webguneetan edo zenbait aplikaziotan saioa hasteak ekar litzakeen galera edo eragozpenen ardurarik.

Samsung Pass-eko datuak ezabatzea

Aukera duzu zure datu biometrikoak, webgunean saioa hasteko informazioa eta Samsung Pass-en erregistratutako aplikazioen datuak ezabatzeko. Horretarako, sakatu Ezabatu datuak aukera. Baldintzen onarpena eta Samsung account aktibo mantenduko dira.

- 1 Ezarpenen pantailan, sakatu **Pan. Blokeo eta segurtas.** → **Samsung Pass**.
- 2 Desblokeatu pantaila aurrez finkatutako metodoa erabiliz.
- 3 Sakatu  → **Ezarpenak** → **Ezabatu datuak**.
- 4 Sartu berriz zure Samsung -eko pasahitza berriro, eta sakatu **BAIEZTATU**. Samsung Pass-eko zure datuak ezabatu egingo dira.

Karpeta segurua

Karpeta seguruak zure aplikazioak eta eduki pribatuak babesten ditu, hala nola argazkiak eta kontaktuak, beste inork haiek atzitzea galarazteko. Zure aplikazioak eta eduki pribatuak gailua desblokeatuta dagoela ere babestu ditzakezu.



Karpeta segurua biltegi-eremu seguru eta independente bat da. Karpeta seguruko datuak ezin dira beste gailuetara transferitu baimendu gabeko erabilera partekatuko metodoen bidez, adibidez, USB edo Wi-Fi Direct bidez. Sistema eragilea pertsonalizatzen edo softwarea aldatzen saiatuz gero, karpeta segurua blokeatu egingo da, eta eskura egoteari utziko dio, automatikoki. Datuak karpeta seguruan gorde aurretik, ziurtatu datuen segur-kopia bat egin duzula beste leku seguru batean.

Karpeta segurua konfiguratzea


1 Ireki Karpeta segurua aplikazioa.

Aukera hau ere baduzu: ireki Ezarpenak aplikazioa, eta sakatu Pan. Blokeo eta segurtas. → Karpeta segurua.

2 Sakatu **ABIARAZI**.

3 Sakatu **HASI SAIOA**, eta hasi saioa zure Samsung account-en.

4 Hautatu zer blokeo-mota erabili nahi duzun karpeta seguruan, eta segi pantailako jarraibideei, konfiguratzeko.


Karpeta seguruaren izena edo ikonoaren kolorea aldatzeko, sakatu  → **Pertsonalizatu ikonoa**.



- Karpeta segurua aplikazioa irekitzen duzunean, aplikazioa desblokeatu beharko duzu, aurrez ezarritako metodoa erabiliz.
- Karpeta segurua desblokeatzeko kodea ahaztu bazaizu, zure Samsung account kontua erabiliz berrezar dezakezu. Sakatu berrezartze-botoia (blokeatutako pantailaren beheko aldean dago) eta idatzi Samsung accounten pasahitza.

Blokeo automatikoa ezartzea karpeta seguruan

Konfiguratu gailua, karpeta segurua automatikoki blokeatu dezan erabiltzen ari ez denean.

1 Ireki **Karpeta segurua** aplikazioa, eta sakatu  → Ezarpenak → Blokeatu Karpeta segurua auto.

2 Hautatu blokeo-aukera bat.



Karpeta segurua eskuz blokeatzeko, sakatu **Babestu**.

Edukia Karpeta segurura eramatea

Eraman edukia, hala nola argazkiak eta kontaktuak, karpeta segurura. Hona hemen adibide batzuk ikus-teko nola eramán daitekeen biltegi lehenetsiko irudi bat karpeta segurura.

1 Ireki Karpeta segurua aplikazioa, eta sakatu **Gehitu fitxategiak**.

2 Sakatu Irudiak, markatu lekuz aldatu nahi dituzun irudiak, eta, ondoren, sakatu EGINDA.

3 Sakatu MUGITU.


Hautatutako elementuak ezabatu egingo dira jatorrizko karpetatik, eta karpeta segurura eramango dira. Elementuak kopiatzeko, sakatu KOPIATU.



Edukia mugitzeko metodoa desberdina izan liteke eduki-motaren arabera.

Karpeta seguruko edukia lekuz aldatzea

Karpeta seguruko edukia biltegi lehenetsian dagokion aplikaziora eraman dezakezu. Hona hemen adibide batzuk ikusteko nola eraman daitekeen karpeta seguruko irudi bat biltegi lehenetsira.

- 1 Ireki **Karpeta segurua** aplikazioa, eta sakatu **Galeria**.
- 2 Hautatu irudi bat eta sakatu  → **Karpeta segurutik kanpora mugitu**.
Hautatutako elementuak Galeria atalera eramango dira (biltegi lehenetsia).

Aplikazioak gehitzea

Gehitu karpeta seguruan erabili nahi duzun aplikazioa.


- 1 Ireki **Karpeta segurua** aplikazioa, eta sakatu **GEHITU**.
- 2 Markatu gailuan instalatutako aplikazio bat edo gehiago, eta sakatu **GEHITU**.
Play Store-ko edo **Galaxy Apps**-eko aplikazioak instalatzeko, sakatu **DESKARGATU PLAY STORE-TIK** edo **DESKARGATU GALAXY APPS-ETIK**.

Karpeta seguruko aplikazioak ezabatzea

Sakatu **Aplikazioak editatu**, markatu aplikazioak, eta, ondoren, sakatu **Desinstalatu**.

Kontuak gehitzea

Gehitu zure Samsung account-eko kontua, Googleko kontua edo beste kontu batzuk, karpeta seguruko aplikazioekin sinkronizatzeko.

- 1 Ireki **Karpeta segurua** aplikazioa, eta sakatu  → **Ezarpenak** → **Kontuak** → **Gehitu kontua**.
- 2 Hautatu kontuaren zerbitzua.
- 3 Jarraitu pantailan agertuko diren jarraibideei kontuaren konfigurazioa osatzeko.

Karpeta segurua ezkutatzea

Karpeta seguruaren lasterbidea ezkuta dezakezu aplikazioen pantailan.


Ireki Karpeta segurua aplikazioa, sakatu  → **Ezarpenak**, eta, ondoren, **Erakutsi Karpeta segurua** etengailua, desaktibatzeke.

Bestela, irristatu egoera-barra beherantz, jakinarazpen-panela irekitzeko. Ondoren, irristatu hatza jakinarazpen-panelean behera, eta sakatu Karpeta segurua, funtzioa desaktibatzeke.


Karpeta seguruaren segurtasun-kopia egitea eta leheneratzea

Egin karpeta seguruaren edukiaren eta aplikazioen segurtasun-kopia bat Samsung Cloud-en, zure Samsung account kontua erabiliz, eta leheneratu geroago.

Datuen segurtasun-kopiak egitea


- 1 Ireki **Karpeta segurua** aplikazioa, eta sakatu  → **Ezarpenak** → **Babesk. Eta berrezartzea**.
- 2 Sakatu **Gehitu kontua**, eta erregistratu eta hasi saioa zure Samsung account kontuan.
- 3 Sakatu Egin karpeta segurua datu babes-kopia.
- 4 Markatu zer elementuren segurtasun-kopia egin nahi duzun, eta sakatu **BABESKOPIA ORAIN**. Samsung Cloud-en datuen segurtasun-kopia egingo da.

Datuak berrezartzea:

- 1 Ireki **Karpeta segurua** aplikazioa, eta sakatu  → **Ezarpenak** → **Babesk. Eta berrezartzea**.
- 2 Sakatu **Leheneratu hasi**.
- 3 Hautatu zer datu eta datu-mota leheneratu nahi dituzun, eta sakatu **BERREZARRI**. Segurtasun-kopia egin zaien datuak gailuan leheneratuko dira.

Karpeta segurua desinstalatzea

Karpeta segurua desinstala dezakezu, haren edukiak eta aplikazioak barne.

Ireki Karpeta segurua aplikazioa, eta sakatu  → Ezarpenak → Ezarpen gehiago → Desinstalatu.

Karpeta segurua desinstalatu aurretik edukiaren segurtasun-kopia bat egiteko markatu **Multimediafitx. karpeta segurutik kanpora mugitu**, eta sakatu **DESINSTALATU**. Karpeta segurutik segurtasun-kopia egin zaien datuetara sartzeko, ireki Samsung karpeta, ireki Nire fitxategiak aplikazioa, eta, ondoren, sakatu Memoria → Secure Folder.



Ez da egingo **Samsung Notes**-en gordetako oharren segurtasun-kopiarik.

Hodeia eta kontuak

Aukerak

Sinkronizatu, berrezarri edo egin zure gailuko datuen segurtasun-kopia bat Samsung Cloud erabiliz. Kontuak erregistra eta kudeatu ditzakezu, hala nola zure Samsung account edo Googleko kontua, edo datuak beste gailu batzuetara edo batzuetatik transferitu Smart Switch erabiliz.

Doikuntza-pantailan, sakatu Hodeia eta kontuak.



Datuen segurtasun-kopia bat egin aldizka leku seguru batean, esaterako Samsung Cloud-en edo ordenagailuan, berrezarri ahal izateko baldin eta datuak hondatzen badira edo galtzen badira nahi gabe fabrikako datuak berrezarri direlako.

- **Samsung Cloud:** modu seguruan gorde nahi duzun edukia kudeatzeko. Begiratu Samsung Cloud-en biltegitzearen erabilera-egoera, eta sinkronizatu, leheneratu edo egin zure datuen segurtasun-kopia bat. Informazio gehiago nahi baduzu, ikusi [Samsung Cloud](#) atala.
- **Kontuak:** zure Samsung account kontua, Googleko kontua edo beste kontu batzuk gehitzeko, sinkroniza daitezten.
- **Babeskopia eta leheneratu:** gailuan dituzun datu pertsonalak, zure aplikazioen datuak eta doikuntzak babesteko. Datu konfidentzialen segurtasun-kopia bat egin dezakezu, eta haiek beste une batean eskuratu. Googleko edo Samsung account kontu batean erregistratu behar duzu datuen segurtasun-kopia egiteko edo haiek berrezartzeko.
- **Smart Switch:** abiarazi Smart Switch, lehengo gailutik datuak transferitzeko. Informazio gehiago eskuratzeko, ikusi [Smart Switch](#) atala.

Samsung Cloud

Datuen segurtasun-kopia bat egin lehengo gailutik Samsung Clouden, eta berrezarri datuak gailu berrian. Samsung account-en erregistratu eta saioa hasi behar duzu Samsung Cloud erabili ahal izateko. Informazio gehiago nahi baduzu, ikusi [Samsung account](#) atala.



Datuen segurtasun-kopiak egitea

- 1 Lehengo gailuan, hasi saioa zure Samsung accounten.
- 2 Ireki Ezarpenak aplikazioa, hautatu segurtasun-kopiaren aukera, eta egin datuen segurtasun-kopia.




- Zure gailuak Samsung Cloud onartzen badu, ireki **Ezarpenak** aplikazioa, sakatu **Hodeia eta kontuak** → **Samsung Cloud**, hautatu zuren gailuan **EGIN BABESKOPIA ETA LEHENERATU**, sakatu **Babeskopia** eta, ondoren, egin datuen segurtasun-kopia.
- Datuen segurtasun-kopiak egiteko modua aldatu egin daiteke telefonoaren modeloaren arabera.
- Ez da egingo datu batzuen segurtasun-kopia. Zer datuen segurtasun-kopia egingo den egiaztatu nahi baduzu, ireki **Ezarpenak**, sakatu **Hodeia eta kontuak** → **Samsung Cloud**, hautatu zure gailua **EGIN BABESKOPIA ETA LEHENERATU** aukeran, eta, ondoren, sakatu **Babeskopia**.

Datuak berrezartzea:

- 1 Gailu berrian, ireki **Ezarpenak** aplikazioa, eta sakatu **Hodeia eta kontuak** → **Samsung Cloud**.
- 2 Hautatu aurreko gailua **BABESKOPIA ETA LEHENERATU** aukeran, eta sakatu **Berreskuratu datuak**.
- 3 Markatu berrezarri nahi dituzun datu-motak, eta sakatu **Berrezarri**.

Datuak sinkronizatzea

Gailuan gordetako datuak Samsung Cloud-ekin sinkroniza ditzakezu, eta beste gailu batzuetatik atzitu.

- 1 Gailu berrian, ireki **Ezarpenak** aplikazioa, eta sakatu **Hodeia eta kontuak** → **Samsung Cloud**.
- 2 Sakatu  → **Ezarpenak** → **Ajustes de sincronización**.
- 3 Sakatu sinkronizatu nahi dituzun elementuen ondoko etengailuak.

Datuak egiaztatzea

gordeta dituzun elementuak eta Samsung Clouden erabiltzen ari zaren biltegiatze-lekua egiazta ditzakezu. Ireki **Ezarpenak** aplikazioa, eta sakatu **Hodeia eta kontuak** → **Samsung Cloud**.

- Berehala egiaztatu ahal izango duzu zenbat biltegian zenbat leku erabiltzen ari zaren eta zer elementu dituzun gordeta (adibidez, **GALERIA**, **SAMSUNG NOTES** eta **SAMSUNG CLOUD DRIVE**). Sakatu txartel bakoitza, eta sartu hurrengo orrian. Ezarpenak egiazta ditzakezu edo gordeta dituzun datuak kontsultatu.
- Samsung accounten gordeta duzun segurtasun-kopiako datuak kontsultatu ditzakezu **BABESKOPIA ETA LEHENERATU** aukera erabilia. Hautatu zure gailua, eta sakatu **Berreskuratu datuak**.

Smart Switch


Gailu mugikor batetik bestera datuak transferitu ditzakezu Smart Switch erabilita. Ezarpenen pantailan, sakatu **Hodeia eta kontuak** → **Smart Switch**.

Datuak C motako USB konektore bidez transferitzea

Lehengo gailua uneko gailura konektatu dezakezu C Motako USB konektore baten eta USB kable baten bidez, datuak bizkor eta erraz transferitzeko.



- 1 Konektatu C Motako USB konektorea zure gailuko funtzio ugariko larakora.
- 2 Konektatu gailua lehengo gailura gailu horren USB kable baten bidez.



3 Aplikazioak hautatzeko leiho gainerakorra agertzen denean, sakatu **Smart Switch** → **HASI**.

4 Lehengo gailuan, sakatu **BAIMENDU**.

Aplikazioa ez baldin baduzu, Galaxy Apps-etik edo Play Store-tik deskargatu dezakezu.

Zure gailuak lehengo gailua ezagutuko du, eta transferi ditzakezun datuen zerrenda bistaratuko du.

5 Jarraitu pantailako argibideei datuak zure lehengo gailutik berrira transferitzeko.



Ez deskonektatu USB kablea eta C Motako USB konektorea gailutik, fitxategiak transferitzen ari diren bitartean. Hala eginenez gero, baliteke datuak galtzea edo gailuak kalteak izatea.



Datuak transferitzean gailuak bateria gehiago kontsumitzen du. Datuak transferitu aurretik, ziurta ezazu bateriak nahiko karga duela. Bateria-maila baxua baldin bada, baliteke datu-transferentzia etetea.

Datuak haririk gabe transferitzea Wi-Fi Direct erabilita

Datuak transferitu ditzakezu lehengo gailutik gailu berrira Wi-Fi Direct erabilita.



1 Lehengo gailuan, abiarazi Smart Switch.

Aplikazioa ez baldin baduzu, Galaxy Apps-etik edo Play Store-tik deskargatu dezakezu.

2 Zure gailuan, zoaz **Ezarpenak** aukerara, eta sakatu **Hodeia eta kontuak** → **Smart Switch**.

3 Hurbildu gailuak.

- 4 Lehengo gailuan, sakatu **HARI GABE** → **BIDALI** → **KONEKTATU**.
- 5 Gailu berrian, sakatu **HARI GABE** → **JASO** eta hautatu lehengo gailu-mota.
- 6 Jarraitu pantailako argibideei datuak zure lehengo gailutik berrira transferitzeko.

Datuak transferitzea kanpo-biltegiragailua bat erabilita

Datuak transferi ditzakezu kanpo-biltegiragailu bat erabilita (adibidez, microSD txartel bat).

- 1 Datuak transferi ditzakezu lehengo gailutik kanpo-biltegiragailu batera.
- 2 Sartu kanpo-biltegiragailua zure gailuan, edo konektatuta hartara.
- 3 Zure gailuan, zoaz **Ezarpenak** aukerara, eta sakatu **Hodeia eta kontuak** → **Smart** → **KANPO-BILTEGIRAGAILUA** → **BERREZARRI**.
- 4 Jarraitu pantailako argibideei datuak kanpo-biltegiragailutik transferitzeko.

Segurtasun-kopiako datuak ordenagailu batetik transferitzea

Transferitu datuak telefonoaren eta ordenagailuaren artean. Ordenagailuan Smart Switch aplikazioa deskargatu behar duzu hemendik: www.samsung.com/smarts witch. Lehengo gailuko datuen Segurtasun-kopia bat egin ordenagailuan, eta inportatu datuak zure gailura.



1 Ordenagailuan, joan www.samsung.com/smartswitch helbidera, Smart Switch deskargatzeko.

2 Ordenagailuan, jarri martxan Smart Switch.



Gailu zaharra Samsung gailu bat ez bada, egin datuen segurtasun-kopia bat ordenagailuan, gailuaren fabrikatzaileak emandako programa baten bidez. Ondoren, egin bosgarren urratsa.

3 Konektatu lehengo gailua ordenagailura telefonoaren USB kablearen bidez.

4 Ordenagailuan, jarraitu pantailako argibideei gailutik datuen segurtasun-kopiak egiteko. Ondoren, deskonektatu gailu zaharra ordenagailutik.

5 Konektatu gailua ordenagailura USB kable baten bidez.

6 Ordenagailuan, jarraitu pantailako argibideei datuak zure gailura transferitzeko.

Inportatutako datuak ikustea

Inportatutako datuak ikus ditzakezu aurreko gailuko aplikazio berean.

Gailu berriak aplikazio berak ez baldin baditu inportatutako datuak ikusteko edo erreproduzitzeko, datuak antzeko aplikazio batean geratuko dira. Adibidez, ohar bat inportatzen baduzu eta zure gailuak **Notak** aplikazioa ez baldin badu, ohar hori **Samsung Oharrak** aplikazioan ikusi ahal izango duzu.

Google

Konfiguratu Googleren funtzioetako batzuen doikuntzak.

Doikuntzen pantailan, sakatu Google.

Irisgarritasuna

Konfiguratu doikuntza batzuk, gailuaren irisgarritasuna hobetu ahal izateko. Informazio gehiago eskuratzeko, kontsultatu [Irisgarritasuna](#).

Doikuntza-pantailan, sakatu **Erabilgarritasuna**.

Kudeaketa orokorra

Gailuaren sistemaren doikuntzak pertsonalizatu ditzakezu, edo jatorrizkoak berrezarri. Doikuntza-pantailan, sakatu Kudeaketa orokorra.

- **Hizkuntza eta idazketa:** hautatu gailuaren hizkuntza, eta aldatu doikuntzak, hala nola teklatuak eta ahotsa sartzeko moduak. Baliteke aukera batzuk erabilgarri ez egotea, hautatutako hizkuntzaren arabera. Informazio gehiago nahi baduzu, ikusi [Gailuaren hizkuntzak gehitzea](#) atala.
- **Data eta ordua:** doikuntza hauetara sartu, eta aldatu egin ditzakezu, zure gailuan eguna eta ordua agertzeko modua kontrolatzeko.




Bateria guztiz deskargatuta badago, eguna eta ordua berrabiarazi egingo dira.

- **Jarri gurekin harremanetan:** galderak edin ditzakezu, edo sarrien egiten diren erantzunak ikusi. Informazio gehiago nahi baduzu, ikusi [Samsung Members](#) atala.
- **Salatu diagnostiko infor.:** gailua konfiguratzeko, diagnostikoen eta gailuaren erabileraren informazioa automatikoki bidal dezan Samsungera.
- **Marketin informazioa:** Samsungen marketineko informazioa jaso nahi duzun ala ez aukeratzeko (eskaintza bereziak, kideentzako abantailak eta albiste-buletinak).
- **Berrezarri:** gailuaren doikuntzak berrezartzeko edo fabrikako datuak berrezartzeko. Doikuntza guztiak eta sareko doikuntzak berrezar ditzakezu. Halaber, gailua optimizatzeko, aurrez ezarritako un batean berrabiaraz dadin konfiguratu dezakezu.

Gailuaren hizkuntzak gehitzea

Gailuan erabili nahi dituzun hizkuntzak gehi ditzakezu.


1 Doikuntzen pantailan, sakatu **Kudeaketa orokorra** → **Hizkuntza eta Idazketa** → **Hizkuntza** → **Gehitu hizkuntza**.

Gehi daitezkeen hizkuntza guztiak ikusteko, sakatu  → **Hizkuntza guztiak**.

2 Hautatu gehitu nahi duzun hizkuntza.

3 Hautatutako hizkuntza lehenetsi gisa konfiguratzeko, sakatu **LEHENETSI**. Uneko hizkuntzaren doikuntzari eusteko, sakatu **MANTENDU UNEKOA**.

Hautatutako hizkuntza hizkuntza-zerrendara gehituko da. Hizkuntza lehenetsia aldatu baduzu, zerrendaren goiko aldean gehituko da hautatutako hizkuntza.

Hizkuntza-zerrendako hizkuntza lehenetsia aldatzeko, mugitu  hizkuntza baten ondora, eta jarri zerrendaren goiko aldean. Ondoren, sakatu **EZARRI**. Aplikazio batek hizkuntza lehenetsia onartzen ez badu, zerrendako hurrengo hizkuntza bateragarria erabiliko du.

Softwarea eguneratzea

Eguneratu gailuaren softwarea, Firmware over-the-air (FOTA) zerbitzuaren bidez. Halaber, software-eguneratzeak programatu ditzakezu.

Doikuntzen pantailan, sakatu **Software eguneratzea**.



Software-eguneratzeren bat premiazkoa bada zure gailuaren segurtasunerako eta segurtasun-mehatxu berriak blokeatzeko, automatikoki instalatuko dira, zure baimenik gabe.

- **Deskargatu eguneraketak eskuz:** eguneraketak eskuz bilatzeko eta instalatzeko.
- **Deskargatu eguneraketak auto.:** gailua konfiguratzeko eguneraketak automatikoki deskargatu ditzan, WiFi-sare batera konektatuta dagoenean.
- **Software eguneraketa program.:** gailua konfiguratzeko eguneraketak une jakin batean instalatu ditzan.
- **Azken eguneraketaren informazioa:** softwarearen azken eguneraketari buruzko informazioa bistaratzen du.

Segurtasun-eguneraketei buruzko informazioa

Zure gailuaren segurtasuna hobetzeko eta zure informazio pertsonala babesteko egiten dira segurtasun-eguneraketak. Zure modeloaren segurtasun-eguneraketei buruzko informazioa lortzeko, ikusi security.samsungmobile.com.



Webgune horrek hizkuntza batzuk soilik onartzen ditu.

Erabiltzailearen eskuliburua

Ikusi gailua eta aplikazioak erabiltzeko edo doikuntza garrantzitsuak konfiguratzeko ikasteko informazioa.

Doikuntza-pantailan, sakatu **Erabiltzailearen eskuliburua**.

Telefonoari buruz

Zure gailuari buruzko informazioa ikus dezakezu.

Doikuntza-pantailan, sakatu Gailuari buruz.

Gailuaren izena aldatu nahi baduzu, sakatu **EDITATU**.

- **Egoera:** gailuari buruzko zenbait informazio ematen du: SIM txartelaren egoera, WiFi konexioaren MAC helbidea eta serie-zenbakia.
- **Lege-informazioa:** gailuari buruzko lege-informazioa bistaratzen du, hala nola segurtasun-informazioa eta kode irekiaren lizentzia.
- **Softwarearen informazioa:** gailuaren softwareari buruzko informazioa bistaratzen du, hala nola, sistema-eragilearen bertsioa eta firmwarearen bertsioa.
- **Bateriaren informazioa:** gailuko bateriari buruzko informazioa eta egoera bistaratzen du.

Eranskina

Irisgarritasuna

Irisgarritasun-funtzioei buruz

Ikusmen- edo entzumen-arazoak edo eskuak erabiltzeko zailtasunak dituzten erabiltzaileei mugikorra erabiltzeko erraztasunak ematen dizkiete.

Ireki **Ezarpenak** aplikazioa, eta sakatu **Erabilgarritasuna**.

Voice Assistant (hitzezko erantzuna)

Voice Assistant aukera aktibatzea edo desaktibatzea

Voice Assistant aktibatzen duzunean, gailuak hitzezko erantzuna abiaraziko du. Hautatutako funtzioa behin sakatzen baduzu, gailuak pantailako testua irakurriko du ozen. Bi aldiz sakatuz gero, aktibatu egingo da.

Ireki **Ezarpenak** aplikazioa, sakatu **Erabilgarritasuna** → **Ikusmena** → **Voice Assistant**, eta, ondoren, irristatu etengailua, aktibatzeko.

Voice Assistant desaktibatzeko, irristatu etengailua, eta, ondoren, sakatu pantailaren edozein atal bi aldiz, azkar-azkar.

Voice Assistant lehen aldiz aktibatzen duzunean, tutoriala bistaratuko da. Berrito erreproduzitu dezakezu **Voice Assistant** laguntza sakatuta.



Voice Assistant erabiltzen duzunean, funtzio batzuk ez dira erabilgarri egongo.

Pantaila hatzekin erabiltzea

Hatzaz ukituta erabili ahal izango duzu pantaila, Voice Assistant erabiltzean.

Hatz batez erabiltzea

- Sakatuta: ozen irakurri sakatutako elementua. Pantaila arakatzeko, jarri hatz bat pantailaren gainean, eta mugi ezazu gainetik.
- Bi aldiz ukituta: hautatutako elementua irekitzen du. • Kendu hatza hautatutako elementutik ozen irakurtzen duenean. Ondoren, sakatu pantailako edozein toki bi aldiz, azkar-azkar.
- Bitan sakatuta, pantailatik hatza kendu gabe: elementua mugitzeko edo aukeran dagoen aukera batera joateko.
- Hatza ezkerrera irristatuta: aurreko elementura mugitzeko.
- Hatza eskuinera irristatuta: hurrengo elementura mugitzeko.
- Hatz gora edo behera irristatuta: azkena erabilitako laster-menuko konfigurazioa erabiltzeko.
- Mugimendu bakarrean hatza lehenengo ezkerrera eta gero eskuinera mugituta: pantailan gora mugitzeko.
- Mugimendu bakarrean hatza lehenengo eskuinera eta gero ezkerrera mugituta: pantailan behera mugitzeko.
- Mugimendu bakarrean hatza lehenengo gora eta gero behera mugituta: pantailako lehenengo elementura mugitzeko.
- Mugimendu bakarrean hatza lehenengo behera eta gero gora mugituta: pantailako azken elementura mugitzeko.

Bi hatzez mugitzea

- Bitan sakatuta: ekintza hasteko, eteteko edo uneko ekintza berrabiarazteko.
- Hirutan sakatuta: uneko ordua, geratzen den bateria eta beste hainbat aukera begiratzeko. Ozen irakurtzen diren elementuak aldatzeko, ireki **Ezarpenak** pantaila, eta sakatu **Erabilgarritasuna** → **Ikusmena** → **Voice Assistant** → **Ezarpenak** → **Egoera barraren informazioa**.
- Lautan sakatuta: ahots bidezko erantzuna aktibatze edo desaktibatze.
- Hatza ezkerrera irristatuta: hurrengo orrira mugitzeko.
- Hatza eskuinera irristatuta: aurreko orrira mugitzeko.
- Hatza gora irristatuta: zerrendan behera mugitzeko.
- Hatza behera irristatuta: zerrendan gora mugitzeko.

- Hatzak gora edo behera irristatuta pantaila nagusian: aplikazioen pantaila irekitzeko.
- Hatzak gora edo behera irristatuta aplikazioen pantailan: pantaila nagusira itzultzeko.
- Blokeatutako pantailan hatza edozein norabidetan irristatuta: pantaila desblokeatzeko.
- Pantailaren goiko aldetik hatza behera irristatuta: jakinarazpen-panela irekitzeko.

Hiru hatzez mugitzea

- Sakatuta: elementuak ozen irakurtzen hasten da goiko aldetik.
- Bitan sakatuta: hurrengo elementua irakurtzen hasten da.
- Hirutan sakatuta: hautatutako azken testua irakurtzen du, eta arbelean kopiatzen du.
- Hatza ezkerrera edo eskuinera irristatuta: laster-menua irekitzeko eta aukeretatik mugitzeko.
- Hatza gora edo behera irristatuta: testua irakurtzeko modua aldatzeko eta xehetasun-gaitasuna hautatzeko.
- Mugimendu bakarrean hatzak gora eta ondoren behera irristatuta: aurreko pantailara itzultzeko.
- Mugimendu bakarrean hatzak behera eta ondoren gora irristatuta: pantaila nagusira itzultzeko.

Lau hatzez mugitzea

- Sakatuta: aurreko pantailara itzultzeko.
- Bi aldiz sakatuta: pantaila nagusira itzultzeko.
- Hiru aldiz sakatuta: azkena erabilia aplikazioen zerrenda irekitzeko.

Laster-menua erabiltzea

Voice Assistant erabiltzen duzun bitartean, irristatu ezkerrera edo eskuinera hiru hatzekin. Laster-menua bistaratzen da, eta gailuak ozen irakurtzen ditu aukerak. Irristatu pantaila ezkerrera edo eskuinera hiru hatzekin, aukera batetik bestera joateko. Nahi duzun aukera entzuten duzunean, irristatu pantaila gora edo behera aukera hori erabiltzeko edo aukeraren konfigurazioa doitzeko. Adibidez, **Ahots-bolumena** entzuten denean, bolumena doitu dezakezu hatza gora edo behera irristatuta.

Irudi-etiketak eranstea eta administratzea

Pantailako irudiei etiketak jartzeko aukera duzu. Gailuak etiketak ozen irakurriko ditu irudiak hautatzen dituzunean. Etiketarik gabeko irudiei etiketak erantsi, hiru hatzekin pantaila bitan ukituta, eta hatzak kendu gabe.

Etiketak kudeatzeko, ireki **Ezarpenak** aplikazioa, eta sakatu **Erabilgarritasuna** → **Ikusmena** → **Voice Assistant** → **Ezarpenak** → **Kudeatu etiketa pertsonalizatuak**.

Voice Assistant aukeraren doikuntzak konfiguratzeko

Konfiguratu Voice Assistant aukeraren doikuntzak zure lehentasunetara egokitzeko.

Ireki **Ezarpenak** aplikazioa, eta sakatu **Erabilgarritasuna** → **Ikusmena** → **Voice Assistant** → **Ezarpenak**.

- **Hizketaren bolumena:** ahots bidezko erantzunen bolumena hautatzeko.
- **Testurik hizketara:** Voice Assistant erabiltzen denean testua ahots bihurtzeko erabiltzen diren funtzioen doikuntzak alda ditzakezu (adibidez, hizkuntza, abiadura eta beste hainbat).
- **Modulatu aldak.:** gailua konfiguratzeko testua ozen irakur dezan, tonua aldatuta, teklatura erabiltzen ari zarenean.
- **Irakurri ozen teklaturan idatzitakoa:** gailua konfiguratzeko ozen irakur dezan hatzaren azpian duzun elementua teklatura erabiltzen duzun bitartean.
- **Esan pantaila itzalita dagoela:** gailua konfiguratzeko, pantaila itzalita dagoela ozen irakur ditzan jakinarazpenak.
- **Isilarazi hurb. sentsorearekin:** gailua konfiguratzeko, ahots bidezko erantzunak gelditu egin daitezten eskua sentsorearen gainean jartzen duzunean, gailuaren goiko aldean.
- **Astindu etengabe irakurtzeko:** gailua konfiguratzeko, mugikorra astintzen duzunean pantailako testua ozen irakur dezan. Mugimenduaren intentsitate-maila hautatu dezakezu.
- **Irakurri ozen deitzailearen identit...:** gailua konfiguratzeko, dei bat jasotzen duzunean deitzen duen pertsonaren izena ozen irakur dezan.
- **Alfabeto fonetikoa:** gailua konfiguratzeko teklaturan luze sakatutako hitzarekin hasten den hitz bat esan dezan.

- **Erabilera aholkuak:** gailua konfiguratzeko iradokizunak ozen esan ditzan elementu bat irristatuz hautatzen duzunean.
- **Bibrazio erantzuna:** gailua konfiguratzeko pantaila erabiltzen duzunean (adibidez, elementu bat hautatzen duzunean) bibra dezan.
- **Soinu erantzuna:** gailua konfiguratzeko pantaila erabiltzen duzunean (adibidez, elementu bat hautatzen duzunean) soinu bat egin dezan.
- **Jarri arreta hizketaren audioa:** elementu bat ozen irakurtzean multimediararen bolumena jaitsi dadin konfiguratzeko.
- **Soinu erantzunaren bolumena:** soinuaren bolumena doitzeko, hura kontrolatzeko pantaila ukituz gero. **Soinu erantzuna** aktibatzen denean erabil daiteke funtzio hau.
- **Kurtsore handia:** gailua konfiguratzeko elementu bat bistaratzen denean agertzen den kurtsore karratuaren ertza zabaldu dezan.
- **Kurtsorearen kolorea:** elementuak sakatzean bistaratzen den kurtsore karratuaren kolorea aldatzeko.
- **Menu azkarra:** hiru hatz ezkerrera edo eskuinera irristatzen direnean bistaratuko den laster-menuko aukerak hautatzeko.
- **Kudeatu etiketa pertsonalizatuak:** gehitutako etiketak bistaratzeko.
- **Teklatu lasterbideak:** kanpoko teklatua erabiltzen denerako teklaturako lasterbideak konfiguratzeko.
- **Egoera barraren informazioa:** pantaila bi hatzekin hiru aldiz sakatutakoan ozen irakurriko diren elementuak hautatzeko.
- **Garatzailearen aukerak:** aplikazioak garatzeko aukerak konfiguratzeko.

Pantaila itzalita dagoela gailua erabiltzea

Pribatutasun-arrazoiak direla-eta, gailua konfiguratu dezakezu normal funtziona dezan pantaila itzalita dagoela. Pantaila ez da piztuko hura sakatzean edo teklak sakatzean. Une horretan aktibatuta dauden funtzioak ez dira itzaliko pantaila itzaltzen denean.

Ireki **Ezarpenak** aplikazioa, sakatu **Erabilgarritasuna** → Ikusmena eta, ondoren, sakatu **Pantaila iluna** etengailua, aktibatzeko. Funtzio hau aktibatu eta desaktibatu dezakezu bizkor pizteko/itzaltzeko botoia bitan sakatuta.

Teklatua erabiliz testua sartzea

Teklatua bistartzeko, sakatu testua idazteko eremua, eta, ondoren, sakatu bi aldiz bizkor pantailaren edozein toki.

Testua bizkor idazteko funtzioa aktibatzeke, aplikazioen pantailan, sakatu **Ezarpenak**, sakatu **Erabilgarritasuna** → **Ikusmena**, eta, ondoren, sakatu **Tekla azkarraren sarrera** etengailua, aktibatzeke.

Teklatua sakatzean, gailuak ozen irakurriko ditu sakatuta dauden karaktereak. Nahi duzun karakterea entzuten duzunean, kendu hatza pantailatik, hura hautatzeko. Karakterea idatzi egingo da, eta gailuak testua ozen irakurriko du.

Tekla azkarraren sarrera aktibatu ez baduzu, kendu hatza nahi duzun karakteretik, eta, ondoren, sakatu pantailako edozein toki, azkar-azkar, bi aldiz.

Karaktere bereziak idaztea

Teklatuko tekla bat luze sakatu tekla horretan aukeran dauden gainerako karaktereak bistartzeko. Leiho gainerakor bat bistaratuko da teklatuaren gainean, aukeran dauden karaktereak bistaratuko dituena. Karaktere bat hautatzeko, arrastatu hatza leiho gainerakorrean, nahi duzun karakterea entzun arte, eta, ondoren, kendu hatza pantailatik.


Ikuspegia

Ahots-etiketei ahots-grabazioak eranstea

Ahots-etiketak erabili, antzeko forma duten objektuei etiketak jarriz objektu horiek bereizteko. NFC teknologiarekin bateragarria den ahots-etiketa baterako ahots-grabazio bat grabatu, eta hari eslei diezaiokezu. Gailua etiketatik hurbil jartzean erreproduzitzen da ahots-grabazioa.



Funtzio hau erabili aurretik, aktibatu NFC funtzioa.

- 1 Ireki **Ezarpenak** aplikazioa, eta sakatu **Erabilgarritasuna** → **Ikusmena** → **Ahots etiketa**.
Ahots-grabagailua abiarazten da.
- 2 Sakatu  grabatzen hasteko. Mikrofonotik hurbil hitz egin.
- 3 Grabatzen bukatzen duzunean, sakatu **EGINDA**.
- 4 Eutsi gailuaren atzeko alde a ahots-etiketaren gainean. Ahots-grabazioaren informazioa ahots-etiketan idatziko da.

Pantailako zooma eta letra-tipoa aldatzea

Pantailaren zoom-doikuntza eta letra-tipoa eta -tamaina alda ditzakezu.

Ireki **Ezarpenak** aplikazioa, eta sakatu **Erabilgarritasuna** → **Ikusmena** → **Pant. Zooma eta letra**.

Kontraste handiko letra erabiltzea

Doitu letren kolorea eta ertza, testuaren eta atzearen arteko kontrastea areagotzeko.

Ireki **Ezarpenak** pantaila, sakatu **Erabilgarritasuna** → **Ikusmena**, eta, ondoren, sakatu **Kontraste handiko letrak**, aktibatzeko.

Kontraste handiko teklata erabiltzea

Samsung teklatuaren tamaina handitu dezakezu, eta teklen koloreak aldatu, testuaren eta atzearen arteko kontrastea handitzeko.

Ireki **Ezarpenak** pantaila, sakatu **Erabilgarritasuna** → Ikusmena, eta, ondoren, sakatu **Kontraste handiko teklak**, aktibatzeke.

Botoien itzalak bistaratzea

Botoien itzalak marko eta guzti bistaratu ditzakezu, botoiak nabarmentzeko.

Ireki **Ezarpenak** aplikazioa, sakatu **Erabilgarritasuna** → Ikusmena, eta, ondoren, sakatu **Erakutsi botoien formak** etengailua, aktibatzeke.

Lupa erabiltzea

Aktibatu lupa bat, pantailan zooma egiteko eta edukiak formatu handiago batean ikusteko.



Ireki **Ezarpenak** aplikazioa, sakatu **Erabilgarritasuna** → Ikusmena eta, ondoren, sakatu **Lupa** etengailua, aktibatzeke. Lupa pantailan bistaratuko da.

Irristatu kontrolagailua (luparen behealdean dago), pantaila handitu nahi duzun tokiraino eramateko.

Pantaila handitzea


Pantaila handitzeko eta area jakin batean zooma egiteko.

Ireki **Ezarpenak** aplikazioa, eta sakatu **Erabilgarritasuna** → **Ikusmena** → **Lupa**.

- **Ukitu hiru aldiz lupa erabiltzeko:** zooma aplikatu dezan pantaila hiru aldiz sakatzeko. Ikuspegi arruntera itzultzeko, sakatu berriro pantaila hiru aldiz.
- **Ukitu botoia lupa erabiltzeko:** zooma aplikatu dezan  sakatuta nabigazio-barran, eta, ondoren, sakatu pantaila handitu nahi duzun gunea. Ikuspegi panoramikorera itzultzeko, sakatu .

Pantaila arakatzeko, erabili bi hatz edo gehiago, pantaila handituan mugitzeko.

Zoomaren ehunekoa ezartzeko, atximur egin bi hatzekin edo gehiagorekin pantaila handituan edo bereizi itzazu.

Bestela, ireki pantaila aldi baterako, hiru aldiz sakatuta. Bestela,  luze sakatuta, arakatu pantaila hatza gainean irristatuta. Askatu hatza ikuspegi arruntera itzultzeko.



- Pantailako teklatuak ezin dira handitu.
- Funtzio hori aktibatzean, baliteke aplikazio jakin batzuen errendimenduari eragitea.

Saguaren erakuslea edo ukipen-panela handitzea

Handitu erakusle bat kanpoko sagu bat edo ukipen-pantaila bat erabiltzen dituzunean.

Ireki **Ezarpenak** aplikazioa, sakatu **Erabilgarritasuna** → **Ikusmena**, eta, ondoren, sakatu **Sagu/ukipen panel erakusle han...** etengailua, aktibatzeko.

Pantailaren koloreak alderantzikatzea

Pantailaren ikusgaitasuna hobetzeko eta erabiltzaileek testua hobetu ikusten laguntzeko.

Ireki **Ezarpenak** aplikazioa, sakatu **Erabilgarritasuna** → **Ikusmena**, eta, ondoren, sakatu **Kolore negatiboak** etengailua, aktibatzeko.

Kolorea doitzea

Pantailako koloreak doitu ditzakezu, koloreak bereiztea kostatzen bada. Gailuak koloreak aldatuko ditu, errazago bereizteko.

Ireki **Ezarpenak** aplikazioa, sakatu **Erabilgarritasuna** → **Ikusmena** → **Kolore egokitzea**, eta, ondoren, sakatu etengailua, aktibatzeko. Hautatu aukera bat.

Kolorearen intentsitatea ezartzeko, irristatu **INTENTSITATEA** aukeraren ezarpen-barra.

Kolore pertsonalizatua hautatuta, pantailaren kolorea pertsonalizatu dezakezu. Jarraitu pantailan agertuko diren jarraibideei kolorea doitzeko prozedura osatzeko.

Kolore-iragazkiak

Testua irakurtzeko arazoak badituzu, ezarri pantailako koloreak.

Ireki **Ezarpenak** aplikazioa, sakatu **Erabilgarritasuna** → **Ikusmena** → **Koloretako lenteak**, eta, ondoren, sakatu etengailua, aktibatzeko. Aukeratu nahi duzun kolorea.

Gardentasun-maila ezartzeko, irristatu **OPAKOTASUNA** aukeraren ezarpen-barra.

Entzumena

Soinu-detektagailuak

Konfiguratu gailua, ateko txirrinaren hotsarekin edo haur batek negar egitean bibratzeko.



Ahotsa ezagutzeko funtzioak ez du funtzionatuko funtzio hori aktibatuta dagoenean.

Haurraren negarraren detektorea

Ireki **Ezarpenak** aplikazioa, sakatu **Erabilgarritasuna** → **Entzumena** → **Soinu detektagailuak**, eta, ondoren, sakatu **Haur negar detektagailua** etengailua, aktibatzeko. Gailuak bibratu egingo du hotsa hautematean, eta alerta erregistro gisa gordeko du.

Txirrin-detektagailua

- 1 Ireki **Ezarpenak** aplikazioa, sakatu Erabilgarritasuna → **Entzumena** → **Soinu detektagailuak**, eta, ondoren, irristatu **Ateko txirrinaren detektagailua** etengailua, aktibatzeko.
- 2 Sakatu ● ateko txirrinaren hotsa grabatzeko.
Gailuak ateko txirrina hauteman eta grabatu egingo du.
- 3 Sakatu ●, eta jo ateko txirrina, ondo grabatu den ikusteko. Gailuak txirrinaren hotsa hautematean, sakatu **OK**.
Ateko txirrinaren hotsa aldatzeko, sakatu **Aldatu ateko txirrinaren soinua**.
Gailuak bibratu egingo du hotsa hautematean, eta alerta erregistro gisa gordeko du.

Argi-jakinarazpena konfiguratzeari

Konfiguratu ezazu gailua flashak edo pantailak keinu egin dezan alarma bat edo jakinarazpen bat duzunean (adibidez, sarrerako deiak edo mezu berriak).

Ireki ezarpenen aplikazioa; sakatu **Erabilgarritasuna** → **Entzumena** → **Flash jakinarazpena** eta, ondoren, sakatu aktibatu nahi dituzun aukeren ondoan dauden etengailuak.

Soinu guztiak desaktibatzea

Konfiguratu gailua soinu guztiak desaktibatzeko, hala nola multimedia-soinuak eta deietako solaskidearen ahotsa.

Ireki **Ezarpenak** aplikazioa, sakatu Erabilgarritasuna → Entzumena, eta, ondoren, irristatu **Isilarazi soinu guztiak** etengailua, aktibatzeko.

Azpitutuluak konfiguratzea

Ireki **Ezarpenak** aplikazioa, sakatu Erabilgarritasuna → **Entzumena** → **Samsung azpitutuluak (CC)** edo **Google azpitutuluak (CC)**, eta, ondoren, sakatu etengailua, aktibatzeko.

Hautatu aukera bat, azpitutuluaren doikuntzak konfiguratzeko.

Soinuaren balantzea doitzea

Konfiguratu gailua, entzungailuak erabiltzean soinu-balantzea doitzeko.

- 1 Konektatu entzungailuak gailura, eta jarri belarrietan.
- 2 Ireki **Ezarpenak** aplikazioa, eta sakatu **Erabilgarritasuna** → **Entzumena**.
- 3 Irriatu doikuntza-barra ezkerrera edo eskuinera **Ezker/Eskuin soinu balan.** aukeran, eta doitu soinu-balantzea.

Audio monoa

Soinu monofonikoak seinale batean konbinatzen du soinu estereoa, eta entzungailuaren bozgorailu guztietatik erreproduzitzen du. Erabili aukera hau entzumen-arazoak badituzu edo entzungailu bakarra erabiltzea erosoagoa iruditzen bazaizu.

Ireki **Ezarpenak** aplikazioa, sakatu **Erabilgarritasuna** → **Entzumena**, eta, ondoren, sakatu **Mono audio** etengailua, aktibatzeko.

Gaitasuna eta interakzioa

Ekintza pertsonalizagarria

Kanpoko etengailu baten bidez kontrola daiteke ukipen-pantaila, pantaila sakatuz edo buru-mugimenduak eta aurpegi-keinuak erabiliz.

Ireki **Ezarpenak** aplikazioa, sakatu **Erabilgarritasuna** → **Gaitasun murriztua eta elkarreragina** → **Etengailu orokorra**, eta, ondoren, sakatu etengailua, aktibatzeke. Ekintza pertsonalizagarriak gailuan erregistratu gabe badaude, sakatu **GEHITU ETENGAILUA**, eta konfiguratu itzazu gailua kontrolatzeko.



Ekintza pertsonalizagarriaren funtzioa aktibatzeke, gutxienez ekintza batek egon behar du gailuan erregistratuta.

Gailua kontrolatzeko ekintzak konfiguratzeko, sakatu **EZARPENAK** → **Etengailuak**.

Funtzio hori desaktibatzeke, sakatu pizteko botoia edo bolumena igotzeko botoia aldi berean.

Laguntza-menua

Laguntzako lasterbideen ikonoa bistaratzea

Gailua konfiguratzeko, aplikazioetara, funtzioetara eta doikuntzetara sartzeko morroiaren lasterbidearen ikonoa erakusteko. Ikonoan laguntza-menuak sakatuz gailua erraz erabiltzeko.

1 Ireki **Ezarpenak** aplikazioa, eta sakatu Erabilgarritasuna → **Gaitasun murriztua eta elkarreragina** → **Laguntzaile menua**.

2 Sakatu etengailua, aktibatzeke.

Laguntza-lasterbideen ikonoa pantailaren beheko eskuineko aldean agertuko da.

Laguntzailera sartzeko lasterbidearen ikonoaren gardentasun-maila doitzeko, irristatu doikuntza-barra aukera honetara: **Gardetasuna**.

Laguntza-menuetara sartzea








Laguntza-lasterbideen ikonoa ikono mugikor gisa agertuko da, edozein pantailatetik laguntza-menuetara erraz sartzeko.

Laguntza-lasterbideen ikonoa sakatzean, ikonoa zabaldu egingo da, eta laguntza-menuak ikonoan agertuko dira. Sakatu ezkerreko edo eskuineko tekla, beste panel batzuetara joateko, edo mugitu pantaila ezkerredera edo eskuinera, beste menu batzuk hautatzeko.

Kurtsorea erabiltzea

Laguntza-menuan, sakatu **Kurtsorea**. Hatzarekin ukipen-eremuan mugimendu txikiak eginez pantaila kontrolatzeko. Arrastatu hatza ukipen-eremuan, kurtsorea mugitzeko. Kurtsorearen azpiko elementuak hautatzeko ere saka dezakezu pantaila.

Erabili aukera hauek:

-  /  : pantailan ezkerrera edo eskuinera joateko.
-  /  : pantailan gora edo behera joateko.
-  : kurtsorea dagoen zona handiagotzeko.
-  : ukipen-eremua beste leku batera eramateko.
-  : ukipen-eremua ixteko.

Kurtsorearen eta ukipen-eremuaren konfigurazioa aldatzeko, sakatu **Ezarpenak**, eta sakatu Erabilgarritasuna → **Gaitasun murriztua eta elkarreragina** → **Laguntzaile menua**. Ondoren, pertsonalizatu doikuntzak **KURTSORE ETA PANTAILAREN KONTROLA** aukeran.

Laguntza-menu hobetuak erabiltzea

Konfiguratu gailua, laguntza-menu hobetuak erakusteko aplikazio jakin batzuetarako.

Ireki **Ezarpenak** aplikazioa, sakatu **Erabilgarritasuna** → **Gaitasun murriztua eta elkarreragina** → **Laguntzaile menua** → **Laguntzaile osagarria**, eta sakatu etengailua, aktibatzeke, eta, ondoren, hautatu aplikazioak.

Erraz piztea

Piztu ezazu pantaila gailuaren goiko aldean eskua sentsorearen gainean mugituz. Botoirik sakatu gabe piztu ahalko duzu pantaila. Funtzio hau erabiltzean, jarri gailua gainazal lau batean pantaila behera begira duela, edo eutsi tinko, mugi ez dadin.

Ireki **Ezarpenak** aplikazioa, sakatu **Erabilgarritasuna** → **Gaitasun murriztua eta elkarreragina**, eta, ondoren, sakatu **Pantaila pizte erraza** etengailua, aktibatzeke.

Luze sakatzea

Ikono edo pantaila bat zenbat denboraz sakatu nahi duzun definitzeko, normal sakatuta egiten ez duen beste ekintza alternatibo bat egin dezan.

Ireki **Ezarpenak** aplikazioa, sakatu **Erabilgarritasuna** → **Gaitasun murriztua eta elkarreragina** → **Ukitu eta eutsi atzerapena**, eta, ondoren, hautatu aukera bat.

Klik bat erakuslea gelditzen denean

Konfiguratu gailua, saguaren erakuslea elementu baten gainean jarritakoan elementu hori automatikoki hauta dezan.

Ireki **Ezarpenak** aplikazioa, sakatu Erabilgarritasuna → **Gaitasun murriztua eta elkarreragina**, eta, ondoren, irristatu **Egin klik erakuslea gelditzean** etengailua, aktibatzeke.

Interakzio-kontrola

Aktibatu interakzio-kontrolaren modua, aplikazioak erabiltzen dituzun bitartean egiten dituzun sarrereki-ko gailuaren erreakzioa mugatzeko.

- 1 Ireki **Ezarpenak** aplikazioa, eta sakatu Erabilgarritasuna → **Gaitasun murriztua eta elkarreragina** → **Elkarreragin kontrola**.
- 2 Sakatu etengailua, aktibatzeke.
- 3 Luze sakatu pizteko eta bolumena igotzeko botoiak, biak batera, aplikazio bat erabiltzen duzun bitartean.
- 4 Doitu markoaren tamaina, edo marraztu marra bat mugatu nahi duzun eremuaren inguruan.
- 5 Sakatu **AMAITUTA**.

Gailuak eremu mugatua bistaratuko du. Eremu horrek ez du erreakzionatuko hura sakatzean, eta gailuaren teklak desaktibatuta egongo dira. Baina funtzioak aktibatu ditzakezu pizteko/itzaltzeko botoia, bolumen-botoia eta teklak aukeretarako, interakzioa kontrolatzeko moduan.

Interakzioa kontrolatzeko modua desaktibatzeke, luze sakatu pizteko eta bolumena igotzeko botoiak aldi berean.

Interakzioa kontrolatzeko modua desaktibatutakoan gailuak pantaila blokea dezan, honela konfiguratu behar da: ireki **Ezarpenak** pantaila, sakatu Erabilgarritasuna → **Gaitasun murriztua eta elkarreragina** → **Elkarreragin kontrola**, eta, ondoren, irristatu **Pant. Blokea, itzalita dagoela** etengailua, aktibatzeke.

Testua ahots bihurtzeko funtzioak konfiguratzeko

Voice Assistant erabiltzen denean testua ahots bihurtzeko erabiltzen diren funtzioen doikuntzak alda ditzakezu (adibidez, hizkuntza, abiadura eta beste hainbat).

Ireki **Ezarpenak** aplikazioa, sakatu **Erabilgarritasuna** → **Testurik hizketara**, eta, ondoren, erabili funtzio hauek:

- **Motor lehenetsia:** Testua ahots bihurtzeko funtziorako motor bat hautatzeko.
- **Hizkuntza:** ikusi dezazun zer hizkuntza dagoen hautatuta testua ahots bihurtzeko funtziorako.
- **Hizketaren abiadura:** testua ahots bihurtzeko funtzioaren abiadura doitzeko.
- **Tonua:** testua ahots bihurtzeko funtzioaren tonua doitzeko.
- **ERREPRODUZITU:** ahots-doikuntzen erakustaldi labur bat erreproduzitzeko.
- **BERREZARRI:** ahotsaren abiadura eta bolumena ezartzeko.

Blokeoaren norabidea

Norabide-konbinazio bat sortu, pantaila desblokeatzeko.

- 1 Ireki **Ezarpenak** aplikazioa, sakatu **Erabilgarritasuna** → **Keinu bidezko blokeoa**, eta, ondoren, sakatu etengailua, aktibatzeke.
- 2 Irristatu hatza gorantz, beherantz, ezkerrerantz edo eskuinerantz (sei-zortzi aldiz), eta, ondoren, sakatu **JARRAITU**.
- 3 Marraztu berriro norabide-konbinazioa, egiaztatzeke, eta sakatu **BAIEZTATU**.

Lasterbidea

Konfiguratu aukera hau irisgarritasuneko menuak bizkor irekitzeko.

Ireki **Ezarpenak** aplikazioa, sakatu **Erabilgarritasuna** → **Zuzeneko sarbidea** eta, ondoren, irristatu etengailua, aktibatzeko. Ondoren, hautatu irisgarritasuneko menu bat, ireki dadin pizteko/itzaltzeko botoia eta bolumena igotzeko botoia aldi berean sakatzean.

Irisgarritasuneko aukera hauetan sar zaitezke.

- Erabilgarritasuna
- Voice Assistant
- Ekintza pertsonalizagarria
- Lupa
- Kolore negatiboak
- Kolorearen doikuntzak
- Interakzio-kontrola

Irisgarritasuneko lasterbidea:

Lasterbide bat konfigura dezakezu, zerbitzu hori bizkor abiarazteko.

Ireki **Ezarpenak** aplikazioa, sakatu **Erabilgarritasuna** → **IRISGARRITASUN LASTERBIDEA** eta, ondoren, irristatu etengailua, aktibatzeko. Ondoren, sakatu **Lasterbide zerbitzua** eta hautatu zer zerbitzutarako sarbidea sortu nahi duzun hiru segundoz aldi berean bolumena igotzeko eta jaisteko botoiak sakatuta.

Zerbitzu hauetako lasterbideak sor ditzakezu:

- Samsungen ekintza pertsonalizagarria
- Voice Assistant

Jakinarazpena gogoratzea

Gailua konfiguratzeko tarte jakin batean begiratu ez dituzun jakinarazpenen berri emateko.

Ireki **Ezarpenak** aplikazioa, sakatu **Erabilgarritasuna** → **Jakinarazpen gogorazlea** eta, ondoren, irristatu etengailua, aktibatzeke.

Gailua konfiguratzeko, begiratu gabeko jakinarazpenak daudenean gailuak bibratzeko; irristatu **Bibratu**, aktibatzeke.

Alerten artean tarte bat konfiguratzeko, sakatu **Gogorazpen tarte**.

Aplikazioak konfiguratzeko, jakinarazpenez ohartarazteko, hautatu aplikazioak hemen: **ERAKUTSI JAKINARAZPENAK**.

Deiak erantzutea edo bukatzea

Deiak erantzuteko edo bukatzeko modua aldatzeko.

Ireki **Ezarpenak** aplikazioa, eta sakatu **Erabilgarritasuna** → **Deiak erantzutea eta amaitzea**.

Hautatu nahi duzun metodoa.

Ukitu bakarreko modua erabiltzea

Alarma batek jotzen duenean edo dei bat jasotzen duzunean, botoia arrastatu beharrean sakatu botoia alarma geldiarazteko edo deiari erantzuteko edo deia ez hartzeko.

Ireki **Ezarpenak** aplikazioa, sakatu **Erabilgarritasuna** eta, ondoren, sakatu **Ukipen bakarra** etengailua, aktibatzeke.

Irisgarritasun-doikuntzak konfiguratzeko

Irisgarritasun-doikuntzak fitxategi batean gordetzea

Esportatu uneko irisgarritasun-konfigurazioa fitxategi batera.

Ireki **Ezarpenak** aplikazioa, eta sakatu **Erabilgarritasuna** → **Erabilerraztasun ezarpenen babeskopia** → **Inportatu/Esportatu** → **Esportatu Nire Fitxategietara**.

Irisgarritasun-doikuntzen fitxategi bat inportatzea

Inportatu irisgarritasun-doikuntzen fitxategi bat, eta eguneratu konfiguraturata dituzun doikuntzak.

Ireki **Ezarpenak** aplikazioa, eta sakatu **Erabilgarritasuna** → **Erabilerraztasun ezarpenen babeskopia** → **Inportatu/Esportatu** → **Inportatu Nire fitxategietatik**. Aukeratu inportatu nahi duzun fitxategia, eta sakatu **EGINDA**. Irisgarritasun-doikuntzak inportatutako fitxategiaren arabera eguneratuko dira.

Irisgarritasun-doikuntzen fitxategiak partekatzea

Partekatu irisgarritasun-ekarpenen fitxategiak beste pertsona batzuekin posta elektronikoz, Wi-Fi Direct bidez, bluetooth bidez...

Ireki **Ezarpenak** aplikazioa, eta sakatu **Erabilgarritasuna** → **Erabilerraztasun ezarpenen babeskopia** → **Partekatu**. Ondoren, hautatu irisgarritasun-fitxategiak, eta sakatu **EGINDA**. Hautatu partekatzeko metodo bat, eta bete pantailako jarraibideak, fitxategiak partekatzeko.

Arazoak konpontzea

Samsungen Laguntza Teknikoko Zerbitzuaren zentroarekin harremanetan jarri aurretik, egin proba hauekin: Litekeena da egoerak batzuk zure gailuan ez aplikatzea.

Gailua pizten duzunean edo erabiltzen ari zarenean, kode hauetako bat sartzeko eskatzen dizu:

- Pasahitza: gailua blokeatuta badago, ezarri zenion pasahitza idatzi behar duzu.
- PINa: gailua lehen aldiz erabiltzean edo PIN kodearen eskaera aktibatuta dagoenean, SIM edo USIM txartelarekin batera emandako PIN kodea sartu behar duzu. Funtzio hori desaktibatzeke, erabili SIM txartela blokeatu menua.
- PUKa: SIM edo USIM txartela blokeatuta dago; normalean, PINa behin baino gehiagotan gaizki idazteagatik gertatzen da. Idatzi zerbitzu-hornitzaileak emandako PUK kodea.
- PIN2: PIN 2 kodea eskatzen duen menu batera sartzen bazara, SIM edo USIM txartelarekin emandako PIN 2 kodea sartu behar duzu. Informazio gehiago lortzeko, jarri harremanetan zure zerbitzu-hornitzailearekin.

Zure gailuan sare- edo zerbitzu-errorea ageri da

- Seinale edo harrera ahula dagoen eremuetan, estaldura gal dezake. Aldatu tokiz eta eta saiatu berriro. Mugitu bitartean, baliteke errore-mezuak behin baino gehiagotan bistaratzea.
- Aukera batzuetara ezin da sartu harpidetu gabe. Informazio gehiago lortzeko, jarri harremanetan zure zerbitzu-hornitzailearekin.

Zure gailua ez da pizten

Bateria guztiz deskargatuta badago, gailua ez da piztuko. Kargatu bateria erabat gailua piztu aurretik.

Ukipen-pantailak geldo edo desegoki erantzuten du

- Ukipen-pantailan babes-estalki bat edo aukerako osagarriak jartzen badituzu, baliteke ondo ez funtzionatzea.
- Eskularruekin edo esku zikinekin ukipen-pantaila sakatuz gero edo pantaila objektu puntadunekin ukituz gero, baliteke ondo ez funtzionatzea.
- Litekeena da ukipen-pantailak ongi ez funtzionatzea ingurune hezeetan edo bustitzen denean.
- Berrabiarazi gailua softwarearen behin-behineko erroreak erauzteko.
- Egiaztatu gailuaren softwarea bertsio berrienekin eguneratua dagoela.
- Ukipen-pantaila marratua edo kaltetua badago, jo ezazu Samsungen laguntza-zentro batera.

Gailuak ez du erantzuten edo errore larri bat du

Probatu konponbide hauek. Arazoa ez bada konpondu, jarri harremanetan Samsungen Laguntza Teknikoko Zerbitzuarekin (LTZ).

Gailua berrabiaraztea

Gailua erabat gelditzen bada edo eseki egiten bada, baliteke aplikazioak itxi behar izatea edo gailua itzali eta berriro piztu behar izatea.

Berrabiaraztera behartzea

Gailua blokeatu egiten bada eta ez badu erantzuten, sakatu pizteko/itzaltzeko tekla eta bolumena jaisteko batera gutxienez 7 segundoz, berrabiarazteko.

Gailua leheneratzea

Arazoa ez bada konpontzen, berrezarri fabrikako balioak.

Ireki Ezarpenak aplikazioa, eta sakatu Kudeaketa orokorra → Berrezarri → Berrezarri fabrikako datuak → BERREZARRI GAILUA → EZABATU GUZTIA. Fabrikako datuak berrezarri aurretik, gogoan izan gailuan gordetako datu garrantzitsu guztien segurtasun-kopia egin behar dela.

Ezin da deirik egin/jaso

- Ziurtatu sare mugikor egokian sartzen ari zarela.
- Ziurtatu markatu nahi duzun telefono-zenbaki hori ez duzula jarri deiak murrizteko aukeran.
- Ziurtatu telefono-zenbaki hori ez duzula jarri deiak murrizteko aukeran.

Solaskideak ezin dizu entzuten deia egitean

- Ziurtatu ez zarela ari mugikorraren mikrofonoa estaltzen.
- Ziurtatu mikrofonoa zure ahotik hurbil dagoela.
- Entzungailuak erabiltzen badituzu, ziurtatu behar bezala konektatuta daudela.

Deiak egitean oihartzuna entzuten da

Doitu bolumena, bolumen-tekla sakatuz, edo mugitu lekuz.

Sare mugikorrak edo Internet sarri deskonektatzen dira, edo soinua kalitate txarrekoa da

- Egiatzatu ez zarela ari gailuaren barneko antena blokeatzen.
- Seinale edo harrera ahula dagoen eremuetan, estaldura gal dezake. Baliteke konektatzeko arazoak izatea zerbitzu-hornitzailearen oinarri-estazioan arazoren bat dagoelako. Aldatu tokiz eta eta saiatu berriro.
- Mugitzen ari zarela gailua erabiliz gero, baliteke haririk gabeko sare-zerbitzuak desgaitzea, zerbitzu-hornitzailearen sareko arazoen ondorioz.

Bateriaren ikonoa hutsik dago

Materia-maila baxua du. Kargatu bateria.

Bateria ez da behar bezala kargatzen (Samsungek onartutako bateriarako)

- Ziurtatu kargagailua ondo konektatuta dagoela.
- Joan Samsungen Laguntza Teknikoko Zerbitzura, bateria ordeztu dezaten.

Gailua erosi nuenean baino azkarrago deskargatzen da bateria

- Gailua edo bateria tenperatura altuegietan edo baxuegietan erabiliz gero, kargagailuaren bizona erabilgarria murriztu egin liteke.
- Bateria-kontsumoa handitu egiten da funtzioak eta aplikazio jakin batzuk erabiliz gero (adibidez, GPSa, jokoak edo Internet).
- Bateria kontsumitu egiten da, eta ohiko kargatzea laburragoa bihurtzen da denborarekin.

Errore-mezuak agertzen dira kamera abiaraztean

Gailuak nahikoa memoria eta bateria izan behar du kameraren aplikazioa erabili ahal izateko. Kamera abiaraztean errore-mezuak agertzen badira, saiatu hau egiten:

- Kargatu bateria.
- Eraman datuak ordenagailu batera edo ezabatu gailutik, memorian toki gehiago egiteko.
- Berrabiarazi gailua. Iradokizun hauei kasu eginda ere kameraren aplikazioarekin oraindik ere arazoak badituzu, jarri harremanetan Samsungen Laguntza Teknikoko Zerbitzuarekin.

Argazkien kalitatea ez da aurrebistarena bezain ona

- Argazkien kalitatea aldatu egin liteke, ingurunearen eta argazkilaritza-tekniken arabera.
- Leku ilunetan, gauez edo leku itxietan argazkiak ateraz gero, baliteke irudiak zarata izatea edo irudiak fokutik kanpo egotea.

Errore-mezuak bistaratzen dira multimedia-fitxategiak irekitzean

Gailuan multimedia-fitxategiak irekitzean errore-mezuak agertzen badira edo halako fitxategiak ez badi-
ra erreproduzitzen gailuan, saiatu hau egiten:

- Eraman datuak ordenagailu batera edo ezabatu gailutik, memorian toki gehiago egiteko.
- Egiatzatu musika-fitxategia ez duela babesten eskubide digitalen kudeaketa-sistema batek (DRM).
DRMz babestua badago, egiatzatu fitxategia erreproduzitzeko beharrezkoa den lizentzia edo gakoa
duzula.
- Egiatzatu gailuak fitxategi-formatuak onartzen dituela. Fitxategi-formatu bat ez bada bateragarria,
hala nola DivX edo AC3, instalatu haiek onartzeko aplikazio bat. Gailuak zer fitxategi-formatu
onartzen dituen jakiteko, kontsultatu www.samsung.com webgunea.
- Gailuarekin ateratako argazkiak eta bideoak onartzen ditu gailuak. Baliteke beste gailu batzuekin
egindako argazkiek eta bideoek ondo ez funtzionatzea.
- Zure sare-hornitzaileak edo zerbitzu osagarrien hornitzaileek baimendutako multimedia-fitxategiak
onartzen ditu gailuak. Baliteke Internetetik hartutako eduki batzuek (melodiak, bideoak edota
pantaila-atzealdeak) ondo ez funtzionatzea.

Bluetootha behar bezala ez badabil

Beste bluetooth-gailurik aurkitzen ez bada, konexio-arazoak badaude edo errendimendu baxua badu,
saiatu aukera hauekin:

- Ziurtatu zurearekin konektatu nahi duzun gailua bilatzeko edo hari konektatzeko prestatuta dagoela.
- Egiatzatu zure gailua eta bluetootha darabilen beste gailua bluetootharen gehienezko
irismen-tartearen barruan daudela (10 metro).
- Ireki gailuan **Ezarpenak** aplikazioa, sakatu **Konexioak** eta, ondoren, sakatu **Bluetootha** etengailua,
aktibatzeke.
- Ireki gailuan **Ezarpenak** aplikazioa, sakatu **Kudeaketa orokorra** → **Berrezarri** → **Berrezarri sare**
ezarpenak → **KONFIGURAZIOA BERREZARRI** sare-ezarpenak berrezartzeko. Berrezarpena egitean,
litekeena da erregistratutako informazioa galtzea.

Ohar horiei jarraitu ondoren arazoak bere horretan badirau, jarri harremanetan Samsungen Laguntza
Teknikoko Zerbitzuarekin.

Ez da konexiorik ezartzen gailua ordenagailu bati konektatzean

- Egiaztatu erabiltzen ari zaren USB kablea gailuarekin bateragarria dela.
- Egiaztatu ordenagailuak behar duen kontrolagailua instalatuta eta eguneratuta dagoela.
- Windows XP erabiltzen baduzu, egiaztatu ordenagailuak Windows XP Service Pack 3 edo berriago bat instalatuta daukala.

Gailuak ezin du aurkitu uneko kokapena

GPS seinaleak ez dira iristen leku batzuetara; adibidez, leku itxietara. Halakoetan, konfiguratu gailua WiFi-a edo sare mugikor bat erabil dezan zure uneko kokapena bilatzeko.

Gailuan biltegitratutako datuak galdu egin dira

Egin beti gailuan gordetako datu garrantzitsu guztien segurtasun-kopiak. Bestela, ezingo dituzu berrezarri kaltetutako edo galdutako datuak. Samsungek ez du bere gain hartzen gailuan gordetako datuak galtzeagatik erantzukizunik.

Hutsune txiki bat dago gailuaren zorroaren kanpoaldearen inguruan

- Hutsune hori fabrikazioko nahitaezko ezaugarri bat da, eta baliteke zati batzuk mugitzea edo bibratzea eragitea.
- Denborarekin, aldean kontaktuaren ondorioz, baliteke hutsune hori apur bat handitzea.

Ez dago nahiko toki gailuaren biltegian

Erabili Smart Manager, behar ez dituzun datuak (adibidez, cachea) ezabatu edo erabiltzen ez dituzun fitxategiak edo aplikazioak ezabatu eta biltegitratzeko lekua egiteko.


Aplikazioen botoia ez da agertzen pantaila nagusian

Ireki dezakezu aplikazioen pantaila aplikazioen botoia erabili gabe pantaila nagusian hatza gorantz edo behearantz arrastatuz. Aplikazioen botoia pantaila nagusiaren behealdean erakusteko, ireki Ezarpenak aplikazioa, eta sakatu Pantaila → **Pantaila nagusia** → **Aplikazioak botoia** → **Erak. Aplikazioak botoia** → **EZARRI**.

Hasierako botoia ez da agertzen

Baliteke hasierako botoia dagoen nabigazio-barra desagertzea aplikazio edo funtzio jakin batzuk erabiltzen ari zaren bitartean. Barra ikusteko, irristatu pantailaren beheko aldea gorantz.

Pantailaren distira doitzeko barra ez da agertzen ohartarazpenen taulan

Ireki ohartarazpenen taula egoera-barra beherantz arrastatuz, eta, ondoren, arrastatu ohartarazpenen taula beherantz. Sakatu  distira doitzeko barraren ondoan, eta arrastatu **Erakutsi kontrolak goian** etengailua hura aktibatzeko.

Samsung Cloud ez dabil

- Egiaztatu behar bezala konektatuta zaudela sare batera.
- Samsung Cloud-en zerbitzua egiaztatzen duzun bitartean, ezin duzu erabili Samsung Cloud. Saia zaitetz berriro geroago.

Gailuak ez ditu nire irisak errekonozitzen blokeatutako pantailatik

- Egiaztatu ezerk ez diela oztoporik egiten irisa ezagutzeko kamerari eta LEDari, eta saia zaitetz berriro.
- Argiztapen-baldintzak zure irisak erregistratu zenituenekoen oso bestelakoak badira, litekeena da gailuak ez ezagutzea zure irisak. Mugitu zaitetz beste leku batera, eta saia zaitetz berriro.
- Egiaztatu gailua ez dela mugitzen eta ez dela gehiegi okertzen.

Bateria ateratzea

- **Bateria ateratzeko, jarri harremanetan zerbitzu-zentro baimenduarekin. Bateria ateratzeko jarraibideak ikusteko, zoaz webgune honetara www.samsung.com/global/ecodesign_energy.**
- Zure segurtasunerako, **ez saiatu bateria ateratzen**. Behar bezala ateratzen ez bada, baliteke bateria nahiz gailua hondatzea, eta horrek kalte pertsonalak eragin diezazkizuke edo zure segurtasuna arriskuan jar dezake gailua erabiltzean.
- Samsungek ez du bere gain hartzen ohar edo jarraibide hauek behar bezala ez segitzeagatik sor daitezkeen kalteen edo galeren erantzukizuna (kontratuzko edo kontratuz kanpoko kalteak, arduragabekeria barne); hemendik kanpo geratzen dira Samsungen arduragabekeriagatik eragindako heriotzak edo lesio pertsonalak.

Adostasun-deklarazioaren laburpena

SAMSUNGek adierazten du, bere ardurapean, tresna honek Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1999ko martxoaren 9ko 2014/53/EE Direktiban finkatutakoa betetzen duela; Direktiba hori azaroaren 20ko 188/2016 Errege Dekretuaren bidez egokitu zen espainiar estatuko legeriara.

Copyrighta

Copyrighta © 2018 Samsung Electronics

Eskuliburu hau egile-eskubideen nazioarteko legeek babesten dute.

Debekatuta dago eskuliburu honen zatiak erreproduzitzea, banatzea, itzultzea edo bidaltzea bitarteko elektronikoko edo mekanikoak erabiliz (fotokopiak, grabaketak edo informazioa biltegitratzeko eta berreskuratzeke edozein sistema), Samsung Electronicsek alde aurretik idatzizko baimena ematen ez badu.

Marka komertzialak

- SAMSUNG eta SAMSUNGen logotipoa Samsung Electronicsen marka erregistratuak dira.
- Bluetooth SIG, Inc.-en marka komertzial erregistratua da Bluetooth®, mundu osoan.
- WiFi Allianceren marka komertzial erregistratuak dira Wi-Fi®, Wi-Fi Protected Setup™, Wi-Fi Direct™, Wi-Fi CERTIFIED™, eta WiFi logotipoa.
- Dolby Laboratories-en lizentziapean fabrikatua. Dolby Laboratories-en marka komertzialak , dira Dolby Dolby Atmos eta D bikoitzaren sinboloa.
- Gainerako marka komertzialak eta egile-eskubideak beren jabeenak dira.

HEVC Advanceri buruz



PRODUKTU HAU LIZENTZIA MUGATU BATEKIN SALTZEN DA, ETA HIRU BALDINTZA HAUETAKO BAT BETETZEN DUEN HEVCren EDUKIAREKIN BAKARRIK ERABILTZEKO BAIMENTZEN DA: (1) ERABILERA PERTSONALERAKO SOILIK DEN HEVCren EDUKIA; (2) SALGAI EZ DAGOEN HEVCren EDUKIA; ETA (3) PRODUKTUAREN JABEAK SORTUTAKO HEVCren EDUKIA.

PRODUKTU HAU EZIN DA ERABILI HIRUGARREN BATEK SORTUTATAKO ETA ERABILTZAILEAK HIRUGARREN BATI ESKATU EDO EROSITAKO EDUKI KODIFIKATURAKO, SALBU ETA LIZENTZIA DUEN SALTZAILE BATEK ERABILTZAILEARI EMAN BADIZKIO BERARIAZ EDUKI HORI ERABILTZEKO ESKUBIDEAK.

PRODUKTU HAU HEVCren EDUKI KODIFIKATURAKO ERABILTZE HUTSAREKIN JOTZEN DA ONARTZEN DELA ERABILERA MUGATURAKO BAIMENA LEHEN ADIERAZITAKO TERMINOETAN.